# Goienkaria

2008ko ekainaren 13a > Egubakoitza > VIII. urtea > 336. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




**"Saharatik datozen 12 ume janzteko eta jaten emateko dirua behar dugu"**

**Agurne Juldain**
Nubi elkartea > 09

**G2a** **Aita Mallearen mendeurrena, gogoan** > 43-44

**LEGEA**
**Udalen lege proiektuak herri galdeketak arautuko ditu** > 06

**ARRASATE**
**Azoka indartzeko asmoz, txostena egingo du Udalak** > 19

**KIROLA**
**Euskadiko Open Spiuk bizikleta proba egingo dute bihar** > 40-41

**EKONOMIA** > GARRAIOLARIEN HUELGA

# Lantegietara joaten hasi dira kamioiak, baina ez ohi bezala

**ENPRESAK** Candyra bi kamioi joan ziren atzo, baina itxita jarraitzen du lantegiak; beste batzuetan ere antzera daude

**MERKATARITZA** Saltoki batzuetan, produktu freskoak faltan izan dituzte egunotan, batez ere, arraina

**GASOLINDEGIAK** Erregaiez betetako kamioiak etorri dira gasolindegietara, eta ez dago arazorik autoa hornitzeko > 05

**UDA** > IGERILEKUAK

## Etzi hasiko da bainu denboraldia

Eguraldi txarrak atzeratu egin du Arrasateko denboraldi hasiera, hilaren 21 arte > 02-03

## Kooperatiba mugimenduaren gaineko fondo dokumentala aurkeztu dute

Arrasateko mugimendu kooperatiboa ulertzeko "ezinbestekoa" den fondo dokumentala aurkeztu zuten eguenean Eusko Ikaskuntzak, mugimendu kooperatibistaren bi fundatzailek, Eusko Ikaskuntzak eta Euskomedia Fundazioak. Jose Maria Arizmendiarrieta izena du fondo horrek.

Ia 11.000 artxibo jasotzen dituen webgunea aurkeztu zuten: Arizmendiarrietaren pentsamenduak, eskuz idatzitako oharrak, argazkiak, liburuak eta bi obra biografiko garrantzitsu. > 04



**AURKEZPENA** Jabier Retegi, Jose Mari Ormaetxea, Arantza Cuesta, Alfontso Gorroñogoitia eta Josemari Velez de Mendizabal. ARANTZAZU EZKIBEL

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Berri-zakua** > 46
**Eskelak** > 47
**Sailkatuak** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55



ION leihoak
ZORUAK LEIHOAK ATEAK HORMA ARMAIRUAK




Debagoiena industrialdea, 11. pab. Uribarri auzoa (Markulete ondoan) ARRASATE
Tel.: 943 79 11 35

Skoda Fabia berria




Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

AISIALDIA > BAINU DENBORALDIA

# Euriz bustitzeko arriskua bailaran, bainu denboraldia hastear denean

**IGERILEKUAK** Arrasaten, Musakolako eta Uxarteko igerilekua daude kanpoan, eta Eskoriatzan, umeendako txikia; gainontzekoetan, berdegunea

**URTEGIA** Oñatiko Usakoko urtegian, Osasun Sailaren araudiak betetzeko seinaleak, dutxak, iturria, zakarrontziak eta zaindaria ipiniko dituzte

**EGURALDIA** Iragarpenek eguraldi nahasia aurreikusi dute udarako, eta horrek denboraldiaren irekieran aldaketa batzuk ekarri ditu

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Ekainaren erdira iritsi eta ez da ia egunik euria egiten ez duenik. Denen gustura behin ere ez omen du euria egiten eta, batzuk euri beharrean daudenean, beste batzuek soberan dute. Euria ez da lagunik onena garai honetan; are gutxiago, kontuan hartuz gero Gipuzkoako hondartza gehienetan etzi, domeka, hasiko dela bainu denboraldia.

Gurean, hondartzarik ez, baina eguzkia hartzeko eta bainuaz gozatzeko aukerarik ez da falta. Oñatin, Bergaran eta Eskoriatzan, barruko igerilekuetako ateak edo beirateak zabaltzen dituzte berdegunerantz; Arrasaten, Musakolako kanpoko igerilekuak dituzte, baita Uxarte jatetxeko igerilekua ere; eta Eskoriatzan, umeendako igerileku txikia kanpoan; Oñatin, Usakoko urtegira joaten da jendea.

**AUKERAK HERRIZ HERRI**

Oñatiko kiroldegian, barruko igerilekuak erabiltzen dituzte, baina beiratea zabalik izaten da eguraldi ona dagoenean, eta dena gertu dute: zakarrontziak eta dutxak ipinita, belarra moztuta...

Igerilekua baino nahiago dute Usakoko urtegia batzuek, batik bat, jende gazteak. Osasun Sailak bainuguneetarako ipinitako arauak direla eta, Usakon hainbat berrikuntza izango dira aurten. "Seinaleak, dutxak, iturria edateko urarekin eta zakarrontziak ipiniko dituzte; eta zaintzailea ere egongo da. Udako denboraldia obrak amaitutakoan hasiko da Usakon, baina eguraldiak hobera eginez gero baliteke lehenago ere jendea joatea", esan digu Udaleko Hirigintza Sailak.

Bergaran ere ekainaren 16tik irailaren 14ra bitartean egongo da berdegunea zabalik Agorrosinen, 10:00etatik 20:30era, eta, berdegunea zabaltzen dutenean, igerilekuko ate handiak irekiko dituzte, pasabidea egon dadin. Ohiko baliabideez gain, Agorrosinen liburutegi zerbitzua egongo da txoko batean, liburuak mailegatzeko aukera egongo da, eta tabernakoek euren txosna ipiniko dute berdegunearen sarreran, eta, iaz ez bezala, kafea eta kopak emango dituztenez, erabiltzaileek ez dute kirol eremutik irten beharrik izango.

**Oñatin, Bergaran eta Eskoriatzan, barruko igerilekuko beiratea zabaltzen dute berdegunerantz; Arrasaten, Musakolaeta Uxarteko kanpoko igerilekuak daude; eta Oñatin, Usakoko urtegia**

Sorosleei dagokienez, jende kopurua dela-eta, beste sorosle bat izango da laguntzen. "Iazko iradokizunei jarraituz, jolas librerako gune bat utziko dugu jauziak egiteko; sorosleak baimenduta eta, betiere, egoerak uzten badu", esan digu Unai Asurmendik, Kirol teknikariak.

Eskoriatzako kiroldegian ere, zapatuan hasiko da udako denboraldia eta, irailera bitartean, barruko igerilekuak 09:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik, eta kanpokoa, 10:00etatik 20:00etara. "Kanpoan txikiendako igerileku txiki bat zabaltzen dugu, eta zati bat eguzkia hartzeko. Barruko igerilekuan, sorosle bat egoten da, eta kanpoan, beste pertsona bat zaindari lanetan. Barruko igerilekuko ateak ere zabaltzen dira, eta eguzkia hartzera joan daitezke kanpora zuzenean. Eguzkitakoak eta etzaulkiak ere ipintzen ditugu, baina jendeak kanpotik toailak baino ezin ditu eraman. Bestalde, udan, barruko igerilekuko uraren tenperatura 28 gradutik 24-25era jaisten da", esan digu Eskoriatzako kiroldegiko Karlos Azkaratek.



Eguraldiaren ondorioz, kanpoko igerilekuak irekitze

Aretxabaletan kanpoko igerilekurik ez dago, baina, Uda Kanpainaren barruan, igeriketa ikastaro ugari egongo da, eta baita ur jolasak ere.

ARABAKO HONDARTZAK

## Uribarri Ganboako urtegian 11 sorosle izango dira bainua zaintzen hilaren 15etik

Gurean, hondartzarik ezean, Gipuzkoako zein Bizkaiko hondartzetara joaten da jendea. Baina Arabara, Uribarri Ganboako urtegira bainua hartzera zein egunpasa joateko joera ere badu askok. Bi hondartza daude aukeran, Garaiokoa eta Landakoa; 2.600 metroko eta 500 metroko luzera dutenak, hurrenez hurren. Komunak daude bietan; dutxak, 11 guztira; iturriak, zazpi; eta baita jatorduak egiteko guneak ere. Informazio bulegoa dago Garaion; Landan, ordea, ez. Umeendako jolasak, berriz, Landan badaude, baina Garaion, ez.

Bainurako esparruetan, guztira, 11 soroslek jardungo dute udan. Garaion, Landan eta Uribarrin egongo dira bana; azken horretan ez dute gomendatzen bainatzea, hondartza egokitu gabe baitago. Ekainaren 15etik irailaren 2ra arte etengabe egongo da zerbitzua 12:00etatik 20:00etara eta Irailaren 16ra arteko asteburuetan ere jardungo dute.



Eguraldi ona egiten duenean, debagoiendar asko joaten da Uribarri Ganboako hondartzetara. GOIENKARIA



ko data ekainaren 21era atzeratu dute Arrasaten; oraindik hutsik dago igerilekua eta inguruko belarra moztu gabe. IMANOL SORIANO

Arrasaten, Musakolako kanpoko igerilekuak ekainaren 13an ziren zabaltzekoak, baina, eguraldi txarraren ondorioz, ekainaren 21era atzeratu dute irekiera. Bitartean, neguko ordutegia izango da: astelehenetik egubakoitzera, 07:00etatik 22:00etara, eta udarako txartela atera dutenak barruko igerilekura sartu ahal izango dira. "Kanpokoa irekitzeko, barrukoa itxi behar dugu, lege kontuengatik, eta, horrelako eguraldiarekin, ez kanpoko ez barruko geratuko ginateke. Legeak ez du uzten aldagela berberak erabiltzen bi igerileku ezberdinetarako; hortaz, aldagela berriak egiten ez diren artean, igerileku batzuk zabaltzeko, besteak itxi behar ditugu", esan digu Aukeako gerente Larraitz Sanzberrok.

Bien bitartean, guztia gertu ipintzeko lanak egingo dituzte: zakarrontziak; izozkiak eta litxarreriak saltzeko txosna... Gainera, lau sorosle ibiliko dira txandaka eta, arratsaldeko txandan, bi. DYAkoak ere egongo dira.

Igerian ez ezik, beste jarduera batzuetan ibiltzeko aukera ere izango da igerilekuan. Txatxilipurdikoek, egunen batean, eskulan tailerra egingo dute. Bestalde, Aukeakoek asmoa dute barruko igerilekuan piraguismo ikastaroak emateko, udan.

Musakolako igerilekuaz gain, Udalan ere bada besterik aukeran: Uxarte jatetxean, hain zuzen ere 25x12,5 metroko igerilekua dute, eta sarrera ordaintzen duen edonor joan daiteke hara San Juanetatik aurrera. Gainera, jatetxeko zerbitzua ere eskaintzen dute: ogitartekoak, edariak, plater konbinatuak... igerileku ingurura eramateko aukera dago.

**EGURALDIAREKIN KEXU**

Kanpoko igerilekuak eta berdeguneak gertu dituzte batzuek, eta gertatzeko bidean daude beste batzuk, baina eguraldiak ez du bainurako gogo handirik ematen.

Oñatiko kiroldegiko Manolo Irazabalek esan digunez, "orain dela hiru aste moztu genuen belarra, pentsatuz eguraldi ona hasiko zela, baina ez da gure ustea bete eta eguzkiaren zain gaude".

Eskoriatzako kiroldegian ere esan digute jendea, batez ere, eguzki egunetan joaten dela, baina, eguraldi txarra egin arren, zerbitzua berdin eskainiko dutela.

Arrasatekoak dira eguraldiaren eraginez irekiera atzeratu dutenak. "Lotuta gaude barrukoak kendu eta kanpokoak zabaltzera eta, baldintza klimatologiko hauekin, jendeari ezin diogu esan kanpoko igerilekuetara joateko", dio Larraitz Sanzberrok.

Euriaren ondoren eguzkia etortzen dela dio esaerak, eta hori da askoren nahia. Iragarpenek, ordea, bestelakorik diote. Hala ere, bainujantzia gertu duenik izango da honezkero.

EGURALDIA

## Pello Zabalaren iragarpenen arabera, udan eguraldi nahasia eta giro umela izango dugu

Eguraldiak baldintzatzen du igerilekuen eta hondartzen denboraldia eta, tenporei eta kontratenporei erreparatuta, udan ezin daiteke eguraldi onik espero. "Egun garbirik ez da egon, eta sanorik, gutxiago. Eguzkia gutxitan agertu da, eta bero ustela ekarri du. Gainerako egunetan, euria izan da", esan du Pello Zabalak. Haizea faktore erabakigarria izaten da, eta haize zehatzik ez izanak ekarriko du eguraldi egonkorrik ez egotea. Udan, beraz, eguraldi nahasia izango dugu: "Negu giroa egin du udaberrian eta, udan, giro umela ekarriko du horrek. Baina ilargiaren lau faseetako bat besteekiko ezberdina izaten denez, baliteke hilean zazpi-zortzi egun onak izatea", dio Zabalak.

Euriak hartu ditu berdeguneak ere. Bergarako Narbaiza Bolu baserrian Luis Mari Agirrek jasotako datuen arabera, 240,8 litro euri egin du maiatzean metro koadroko, eta ekaineko lehen bi asteetan, 53 litro.




Kulturaten egin zuten Eusko Ikaskuntzak eta kooperatibismoaren sortzaileek fondoaren aurkezpena. ARANTZAZU EZKIBEL

**ONDAREA** > ARIZMENDIARRIETA FONDOA

# Arizmendiarrietaren fondo dokumentala aurkeztu dute

11.000 artxibo jasotzen dituen webak oharrak eta argazkiak biltzen ditu, adibidez

**A.EZKIBEL/ N.MENOR** > ARRASATE

Jose Maria Arizmendiarrieta fondo dokumentalaren aurkezpena egin zuten atzo Arrasateko Kulturaten. Jabier Retegi, Eusko Ikaskuntzako presidentea; Jose Mari Ormaetxea, mugimendu kooperatibistaren fundatzailea; Josemari Velez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzako zuzendari kudeatzailea; eta Arantza Cuesta, Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioaren zuzendaria egon ziren aurkezpenean.

Ia 11.000 artxibo jasotzen dituen webgunea aurkeztu zuten: Arizmendiarrietaren pentsamenduak, eskuz idatzitako oharrak, argazkiak, liburuak eta bi obra biografiko garrantzitsu. Arrasateko mugimendu kooperatibista ulertzeko ezinbesteko dokumentazioa dela diote Eusko Ikaskuntzatik, eta XX. mendeko euskal historiaren funtsezko zatia.

Lehen industria kooperatiba sortu zenetik 50 urte bete dira, eta Eusko Ikaskuntzak Jose Maria Arizmendiarrieta euskal kooperatibismoaren mugimenduaren bultzatzaile izan zenaren ondare dokumentala jarri du sarean. Jose Maria Arizmendiarrieta da Arrasateko kooperatiben mugimenduaren sortzailea. Enpresaren kudeaketari buruzko kontzepzio aurrerakoi eta ausartaren bitartez, Arizmendiarrietak eta haren giza taldeak abian jarri zuten industria azpiegitura garrantzitsua, mundu osora zabaldu duena.

**30 URTETAKO FRUITUA**

Orain dela 30 urte hasitako lanaren fruitua da sarean dagoen ondarea. Digitalizazio lanetan, baina, azken urtea besterik ez dute eman. Zortzi gune bereizi ditu Arizmendiarrietaren ondarea batzen duen webak: lehenengo zatian, haren bizitza aztertzen da. 18 panel jarri dituzte eta horien bidez non jaio zen, non ikasi zuen eta beste hainbat datu ikusi daitezke; bigarren zatian, Arizmendiarrietaren liburutegia dago. Hark erabili zituen 500 liburu, alfabetikoki sailkatuak daude; hirugarren zatian, 4.500 dokumentu daude.

Gehienak On Jose Maraia Arizmendiarrietak idatzitako gutunak dira. Arizmendiarrietaren lanean itzulpenik egin ez dutela argitu dute; hau da, testuak Arizmendiarrietak idatzi bezala daudela.

**ELKARTASUNA** > JAIA

# GKEen Elkartasun Eguna ospatuko da Seber Altuben

Ankur proiektuaren barruan Uttai eta Gorai herrietako umeen aita ponteko izatera animatzen dituzte herritarrak

**N. M.** > ARRASATE

Gobernuz kanpoko erakundeek Elkartasun Eguna ospatuko dute 10. aldiz bihar, Arrasaten. Urte hauetan guztietan herritar asko bildu ditu egitasmoak eta beti lurralde txiroenen arazoak azaldu nahi izan dituzte.

Aurten, marjinazio lokalaren gaia landuko dute: "Gure inguruan ere arazoak daudela uste dugu", diote Harremanetik –Arrasateko hirugarren mundu taldea. Gobernuz kanpoko hainbat erakunde bilduko dira Arrasaten, egiten duten lana herriari azaltzeko. Inguruko pertsona baztertuenekin aritzen dira zuzenean, eta lan hori guztiori azaldu nahi dute.

**EGITARAU ZABALA**

12:00etan hasiko dira ospakizunak eta 20:00ak arte egitarau zabala egongo da Seber Altube Plazan. Egun osoan askotariko ekintzak egongo dira: bidezko merkataritzako produktuen denda, tonbola, musika, saharar dantzen tailerra, gobernuz kanpoko erakundeen produktuen salmenta, tea dastatzeko aukera, taloak eta euro solidarioaren jolasa izango dira.

12:00etan Zaramasamba perkusio taldearen emanaldia egongo da. 17:00etatik 19:00ak arte haur jolasak egongo dira eta 20:00etan Amaia antzokian *Urre beltza* dokumentala eskainiko dute: Etiopian kafearekin gertatzen den bidezko merkataritzaren gaia jorratuko da. Filmean ikusitako kafe bera erosteko eta dastatzeko aukera izango dute ikusleek.

Tonbolarako txartelak salgai jarriko dituzte 10:00etan, eta 19:30ean izango da zozketa Seber Altube plazan. Ibai-Artek, Eroski Bidaiek eta Ume dendak eskainitako opariak zozketatuko dira.Lortutako dirua Indiako Ankur umezurtz-etxera bidaliko da.

**AITA PONTEKO BIHURTU**

Ekimen berri batean murgildu da aurten Harreman. Ankur-ek aita pontekoak egiteko proiektua bultzatu du, eta Arrasateko elkartea erronka berri horretan sartu da. Herritarrak aita ponteko ekimenetan parte hartzera animatzen dituzte. Laguntza Uttaiko eta Goraiko umeei eskainiko zaie.

ULMA
Grupo ULMA, Koop. E.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2008ko ekainaren 20a.
Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta11:00etan bigarrena.
Tokia: Santa Ana antzokia - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena.
2. 2007ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea.
3. 2007ko ekitaldiko balantzea eta kontuak onartzea.
4. Emaitzak banatzeko proposamena.
5. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaiei buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea.
6. Grupo ULMA Koop E.ko kooperatiba bazkideen Estatutu Sozial Homogenotuen 17, 21, 38, 54, 56, 57, 72 artikuluetan eta lehenengo xedapen gehigarrian onartutako aldaketak berrestea.
7. Grupo ULMA Koop E.ko kooperatiba bazkideen Barne Araudi Homogenotuen 44 eta 46 artikuluetan onartutako aldaketak berrestea.
8. Grupo ULMA Koop E.ko Estatutu Sozialetako 16, 36, 37, 51 eta 67 artikuluak aldatzea.
9. ULMA Servicios de Logística, Koop E. eta Rochman, Koop E. kooperatiba bazkide berrien onartze erabakien berri ematea.
10. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
11. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
12. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
13. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2008ko ekaina*

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuzko eta Barne Araudiaren aldaketen testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

UNED-Bergara
*Zure denbora eta zirkunstantzietara egokitzen den unibertsitatea*

HITZALDI INFORMATIBOA
Ekainak 17, Asteartea. 19etan
Koldo Mitxelena Kulturunea.
Donostia.
Publiko guztiari irekia




30 karrera Unibertsitario baino gehiago
Jarraipen indibidualizatua eta eskaintza egokitua
Doktoretza ikastaroak, graduondokoak, masterrak...
Tutoretza Telematikoak eta segimendu presentziala

UNED-Bergara San Martin Pl 4, 20570 Bergara Tel-a 943 769 033 info@bergara.uned.es www.uned.es/ca-bergara




Arrasateko Eroski gasolindegia itxita egon zen martitzen goizetik eguazten eguerdira arte, erregai barik geratu zelako.

**GREBA** > PETROLIOAREN KRISIA

# Garraiolarien greba gasolindegi, enpresa eta dendetan igarri da

Debagoieneko hainbat enpresa garrantzitsuk ekoizpena eten ostean, kamioiak mugitzen hasi ziren atzo

**A.EZKIBEL/M.BITERI** > BERGARA

Garraiolarien grebak arazo asko sortu ditu egunotan Debagoienean. Gasolindegietan eta supermerkatuetan ez ezik, bailarako hainbat enpresatan ondorioak jasaten hasi dira dagoeneko.

Aste bukaerako zoramenaren ondotik, lasaitasuna itzuli da bailarako gasolindegietara. Gehienetan normaltasuna da nagusi, erregaiz beteriko kamioak iritsi dira eta. Arrasateko Eroskikoa, hala ere, martitzen goizetik eguaztenen eguerdira arte itxita egon zen, erregai faltagatik. Horien prezioei dagokienez, esan beharra dago gasolioaren prezioak gora egin duela egubakoitzetik hona. Hala, Arrasateko Mecan litro bakoitza 1,278 eurotan zegoen lehen eta eguaztenean 1,289 eurotan zegoen. Gasolinak 1,325 euro balio du.

**DENDETAN, PRODUKTU FRESKOAK**

Dendetan produktu batzuk falta izan dira, bereziki freskoak. Arrasateko Hiper-Eroskin, esaterako, produktu freskoekin izan dituzte arazo gehien. Ertzaintzak eskoltatutako konboi bereziekin, egoerari aurre egin diote. Bergarako fruta dendetan, adibidez, denetarik zegoen atzo.

**ENPRESETAN ARAZOAK**

Enpresek ere grebaren ondorioak igarri dituzte. Arrasateko Fagor Etxetresna Elektrikoen lantegiko hozkailuen lerroak eta Garagartzako garbigailuenak ekoizpena eten zuten eguaztenean. Gaur, egubakoitza, kamioiak sartzen eta irteten hasiko direla jakinarazi digute eta egoera aztertuko dute. Arrasateko Ederlanen ere, galdategian eta mekanizazioan hainbat lerro eten behar izan dituzte asteon. Bergaran, Candy eta Geyser Gastech itxita daude atzo ezkero. Kamioiak materiala mugitzen hasi badira ere, oraindik ez dakite ekoizten noiz hasiko diren. "Egoera ez da normalizatu", azpimarratu dute Candytik.

Oñatin, Ulmak dituen zazpi enpresetatik batean bakarrik dituzte arazoak, material faltagatik: Hormigon Polimeron. Antzuolako Goizperren, berriz, nekazaritza sailean dituzte. Herri bereko Elayn, Arrasateko JMAn eta Oñatiko Betiken, bestalde, normaltasunez ibili dira lanean, baina materiala pilatuta dute.

**EUSKARA** > KONTSEILUAREN URTEURRENA

# 'Euskaraz bai' astea Bergaran

Aurten Kontseiluak hamar urte betetzen ditu, eta horregatik, hainbat ekimen antolatu dira; bailaran, 'Euskaraz bai' astea egingo dute datorren astean, Bergaran

**M.B.** > BERGARA

Kontseiluaren hamargarren urteurrena dela eta, hainbat ekimen izango dira Euskal Herrian; baita Debagoienean ere. Datorren astean, ekainaren 16tik 20ra bitartean, *Euskaraz bai* astea egongo da Bergaran.

Lau ekimen izango ditu: batetik, *Kontseilua 10 urte bidea irekitzen* erakusketa ibiltaria prestatu du Artemanek. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 17:30etik 21:00etara; ekainaren 18an, 19:00etan, Kontseiluaren ibilbide eta erronken gaineko berbaldia izango da toki berean.

Hilaren 19rako kale ekimena aurreikusi dute Muniben. Bi ardatz izango ditu: euskarari lotuta herrian ateratako argazkiak erakustea eta *Euskaraz bai* logotipoa egitea. Ekainaren 20an, azkenik, *Euskaraz bai* adierazpenari atxikimendua ematen diotenekin ekitaldia izango da, 19:30ean.

EKIMENAK

**> ERAKUSKETA IBILTARIA**
Ekainaren 16tik 20ra erakusketa izango da udaletxean.

**> BERBALDIA**
Hilaren 18an, 19:00etan, Kontseiluaren ibilbidearen gaineko berbaldia osoko bilkuren aretoan.

**> KALE EKIMENA**
Ekainaren 19an, 19:30ean, kale ekimena izango da Munibe plazan.

**> EKITALDIA**
Ekainaren 20an, *Euskaraz bai* adierazpenari atxikitzeko aukera izango da udaletxean, 19:30ean.

> URTEGIAK

## Urkuluko urtegia batu dezakeen %99,26ra dago

Azkenaldiko euriteen ondorioz, nabarmen egingo du gora Urkuluko urtegiak. Horrek hamar hektometro kubiko ur jaso dezake eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak jakinarazi duenez, asteon %99,26ra dago. Kuota, berriz, 332,92 da.

Iturri berak azaldu du euri asko egin badu ere, ez dutela urtegia hustu behar izan. "Beharrezkoa denean bakarrik irekitzen dugu eta oraingoan ez du behar hori izan", aipatu du. Horrez gain, datozen egunotarako euriteen aurreikuspenik ez dagoela eta, beraz, Gipuzkoako Ur Kontsortziotik Urkulu husteko asmorik ez dutela azpimarratu du.

> NAGUSIEN EGOITZAK

## Aralarrek dio 2010ean itxaron zerrendak izango direla

Aralarrek salatu du Diputazioko Gizarte Politikako Departamentua mendekotasuna duten nagusiendako egoitzetako itxaron zerrendekin amaitzeko "urruti" dagoela. Aipatu duenez, Gipuzkoan mendekotasuna duten adinduen egoitza batean plaza bat lortzeko, batez beste, 110 egun itxaron behar dira. Debagoienean, berriz, 95 egun itxaron behar dira.

Gauzak horrela, departamentuaren helburua betetzea "urruti" ikusten duela dio Aralarrek. Alegia, 2010erako mendekotasuna duten nagusientzako egoitzetan itxaron zerrendekin amaitzea. Gaineratu du Debagoienean, gaur egun, 55 pertsona daudela plaza baten zain.

> ATXILOKETA

## Arrasatear batek langileak mehatxatu ditu aizkorarekin

Ertzaintzak 20 urteko gaztea atxilotu zuen joan zen astean Arrasateko Bedoña auzoan, etxe ondoko enpresa bateko langileak aizkorarekin eta artaziekin mehatxatzeagatik. Istiluaren jatorria enpresak sortutako zaratak siesta egiterik ez ziola uzten izan daitekeela aipatu du Ertzaintzak.

Langileak mehatxatzeaz gain, lantegi horretako hainbat ibilgailutan kalteak eragin zituen atxilotuak. Zehazki, kamioi bateko atean eta furgoneta baten leihoan sortu zituen. Ertzainak atxilotuaren ondora hurbildu zirenean, gainera, hark mehatxatu egin zituela eta haien kontra aizkora botatzeko ahalegina egin zuela azaldu du.

**ADMINISTRAZIOA** > UDALEN LEGE PROIEKTUA

# Udalen lege proiektuak herri galdeketak arautuko ditu

Ibarreko udalek ez dute lege proiektua aztertu; indarrean sartzeko, Gasteizko Legebiltzarrak onartu behar du

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Joan den astean onartu zuen Eusko Jaurlaritzako gobernu kontseiluak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakundeen arteko eskumenak eta harreman instituzionalak zehaztuko dituen Udalen Lege Proiektua. Araudia indarrean jartzeko Gasteizko legebiltzarrak lege proiektua onartu beharko du. Lege proiektuaren helburua antolaketa politiko-administratiboaren araudia erregulatzea da. Jaurlaritzak onartu duen lege proiektuak, besteak beste, herri galdeketak egitea arautzen du. Baina oraindik ez dute jakinarazi nola arautuko duen.

**BEHARREZKO LEGEA DA**

Oñatiko Udaleko idazkari Jesus Mari Madinabeitiak esan du Parlamentuak onartu beharreko legea dela. Azpimarratu du "aspaldi" onartuta egon beharreko legea dela. Lege proiektuan udalen eskubideak eta autonomia aurreikusten direla gaineratu du. "Eudel sartu da lege proiektu horren tramitazioan; esan daiteke udalen ordezkaria izan dela Eudel. Horregatik, uste dut udalen eskubideen alde egingo duen legea izango dela eta ona izango dela", dio.

Horrelako lege bat beharrezko ote den galdetuta, hauxe dio: "Lege oso zaharrekin gabiltza lanean; 1980ko hamarkadako legeak ditugu gaur egun. Eta, orain udal batek eskaintzen dituen zerbitzuak ez dira lehen eskaintzen ziren berdinak. Orain udalek hainbat konpetentzia hartu dituzte, legeetan aurreikusten ez direnak. Hezkuntza, gizarte zerbitzua... Gizarteak eskatzen zituelako hasi gara zerbitzu horiek ematen", dio Madinabeitiak.

**ESKUMENAK FINKATZEA**

Madinabeitiaren esanetan, eskumen horiek guztiak eguneratuko dituen lege baten beharra dago. Izan ere, "nahasketa" dagoela dio. "Uste dut lege horrek argitu egingo dituela gauza horiek guztiak", azaldu du Madinabeitiak. Hori dela-eta, ez du uste lege proiektu horren gai garrantzitsuena herri galdeketa denik. "Eskumenak finkatzea: zeintzuk Jaurlaritzarenak eta zeintzuk Udalarenak" uste du Madinabeitiak izango dela garrantzitsuena.

Antzuolako Udalean esan dute ez dutela horren berririk. Elgetako Udalean hau diote: "Udal txikia da eta ez dugu lege proiektu hori aztertu". Gaineratu dute ez dutela herri kontsultarik egiteko beharrik ikusten eta beharra dagoenean aztertuko dutela gaia.

ESANAK

**"Lege proiektuaren gai garrantzitsuena Jaurlaritza eta Udalaren arteko eskumenak finkatzea izango da"**

**Jesus Mari Madinabeitia**
> Oñatiko Udaleko idazkaria



Manu Beraza azalpenak ematen. MIREN ARREGI

**ENPRESAK** > IKERKUNTZA

# Garaia Berrikuntza Gunean osagaien gela sortu dute

Astelehenean inauguratu zuten; han izan ziren MUko errektore Josu Zabala eta Mondragon Taldeko presidente Jose Mari Aldekoa

**A.E.** > BERGARA

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Taldeak elkarlanean osagaien gela inauguratu zuten astelehenean Garaia Berrikuntza Gunean. Linea zuriaren, elektronikaren eta etxeko energiaren gaineko proiektuak ikertuko dituzte han lan egingo duten Mondragon Unibertsitateko ikasle eta irakasleek.

Osagaien gelan, Mondragon Unibertsitateko ikasle eta irakasleek eta osagaien dibisioko kooperatibetako berrikuntzako arduradunek osaturiko zortzi pertsonako taldea ibiliko da ikerketak aurrera eramaten.

**GARAIA BERRIKUNTZA GUNEAN**

Osagaien gelan sortuko dituzte aplikazio elektronikoak, kontsumitzailearendako segurtasuna, erosotasuna eta energia aurreztea ahalbidetuko dutenak. Osagaien gela Garaia Berrikuntza Gunean dago kokatuta. "Elektragailuen sektorea da eta horretarako osagaiak egingo ditugu", azaldu zuen Manu Berazak, osagaien zuzendari eta presidenteordeak. Berazak azaldu zuen ikerketa eta berrikuntzaren alorrean Eskola Politeknikoak eta Mondragon Taldeak eman duten beste urrats bat dela osagaien gela.

**ETXEKO ENERGIA**

Batez ere egosketa elektrikoan, gas bidezko egosketan eta garbiketan, ura eta airea berotzeko aparailuetan, domotikaren sektorerako sistemetan eta komunikazio alorrean eta etxeko energiari dagokionez egingo dituzte ikerketak.

Osagaien gela deitutakoaren inaugurazio ekitaldian izan ziren, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabala eta Mondragon Taldeko presidente Jose Mari Aldekoa.

Josu Zabalak zera gogoratu zuen: "Unibertsitatea beti egon izan da enpresetatik oso gertu. Hori da Mondragon Unibertsitatearen ikurra. Unibertsitatera etortzen direnek hori azpimarratzen dute: unibertsitateak inguruko enpresekin duen gertutasuna. Beti izan da horrela, jatorritik".




0 km
Fiesta Focus
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

**OSASUNA** > SALUDNOVA

# Telefono bidezko medikuntza sustatzen duen enpresa abiarazi du Mondragonek

Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Informatikako Fakultatearen ekimen batean oinarritzen da kooperatiba berria

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Saludnova telemedikuntzako kooperatiba da Mondragon korporazioaren sustapen zentroak –jarduera berritzaileetan enplegua sortzen duten negozioak abian jartzeko zentroa– martxan jarri duen kooperatiba berria; hain zuzen, Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Informatikako Fakultatearen ekimen batean oinarritzen da Mondragon korporazioaren proiektua, eta helburua da erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzea eta osasunbaliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzea. Sei pertsonak dihardute lanean, eta lau urtean 50 enplegu sortu gura dituzte. Bestalde, fakturazioa hiru milioi euro izatea aurreikusten dute.

Saludnova kooperatibaren egoitza Donostian dago, eta 565.000 euroko kapitalarekin sortu den kooperatiba mistoa da. Hain zuzen, bazkide langileek eta bazkide instituzionalek parte hartzen dute; besteak beste, Mondragon Korporazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Arrisku Kapitalak.

**TELEFONO BIDEZKO KONTROLA**

Saludnovaren jarduera eremua telemedikuntza da, eta asmoa da une jakin batean edo aldizka aldagai biometrikoak monitorizatzea behar duten erabiltzaileen urrutiko kontrola egitea. Horren harira, jarraipena egiteko mugikor bati konektatutako hari bako sentsoreak eta software bat erabiliko dituzte. Azken horrek erabiltzailearen egoera interpretatuko du, hainbat aldagai kontuan hartuta: tentsioa, bihotz eta arnas erritmoa, odoleko oxigenoa, tenperatura, glukosa eta elektrokardiograma, besteak beste.

Softwareak jasotzen dituen datuak kontrolgune batera bidaltzen ditu. Erabiltzaileak eta berak baimendutako pertsonek bertan jasotako datuak kontsulta ditzakete. Bestalde, Kooperatiba berriaren sortzaileek garbi utzi gura dute telefono bidezko kontrolgunea ez dela familia medikuaren ordezkoa, haren lana errazteko erabiliko den bidea baizik. Telefonia mugikorreko ohiko teknologia erabilita, beste hainbat zerbitzu eskainiko ditu Saludnovak: erabiltzaileari mezuak bidali, GPS bidez berehala aurkitzeko aukera eta telealarma zerbitzua, besteak beste.

DATUA

**565.000**

**EURO**

Hain zuzen, diru kopuru hori da Saludnova kooperatiba martxan jartzeko erabilitako kapitala. Lau urtean hiru milioi euroko fakturazioa eta 50 enplegu sortzea aurreikusten dute.

**BI PROBA EGIN DITUZTE**

Mondragonek martxan jarri duen kooperatiba berriak bi proba egin ditu dagoeneko, Eibarko Egogain egoitzan eta Donostiako Donostia ospitalean. Etorkizunari begira, Osakidetzako Lehen Mailako Atentzioko Gipuzkoa Ekialde Eskualdean eta Gurutzetako ospitalean eta Galdakaoko etxeko ospitaleratzean probak egiteko negoziazioetan dihardute. Laster egingo dituzte beste proba batzuk.




**ZABORRA** > FORU ALDUNDIAREN ASMOAK

# Gipuzkoako zaborraren %57 birziklatu gura dute 2016an

Mankomunitateek eta udalek hiri hondakinen aurrerapen dokumentua jaso dute

**M.B.** > BERGARA

Hiri hondakinen arloan datozen zortzi urteotarako dituen asmoak azaldu zizkien Gipuzkoako Foru Aldundiak, astelehenean, mankomunitate, udal eta gizarte eragileei. Hain justu ere, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Nagusiari (Pigruc) eginiko aldaketak biltzen dituen aurrerapen dokumentua aurkeztu zien Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalek. Dokumentu horren arabera, 2016. urtean, Gipuzkoan sortuko den zaborraren %57 birziklatzeko eta konpostatzeko erabiliko dute; hain justu ere, 289.000 tona: horietatik, 229.000 tona askotariko gaiei dagokienez eta beste 60.000 tona materia organikoari dagokionez. Egun 6.000 tona materia organiko konpostatzen dira, dokumentuaren arabera, eta kopuru hori hamar aldiz biderkatzeko helburua jarri dute Foru Aldundiko arduradunek. Hain justu ere, 2002. urtean egindako planean baino %14 gehiago da. Bestalde, Foru Aldundiaren asmoa da 2016. urtean sortzen den zaborraren %47 erretzea.

**AZPIEGITURAK**

Hiri hondakinen aurrerapen dokumentuaren arabera, Foru Aldundiak 300 milioi euro inbertituko ditu zaborrak kudeatzeko azpiegituretan, eta inbertsioa Hondakinen Partzuergoren bidez egingo da. Azpiegitura gehienak Zubietako gainetan jarri nahi dituzte, eta 2012rako martxan egongo dira. Hain zuzen, erraustе planta, bio-lehortze planta, erraustearen zepak tratatzeko planta eta interpretazio zentroa. Bestalde, 2010a baino lehen, hiru konpostatze planta egingo dituzte: aurreko astean Lapatxen (Azpeitia) zabaldu zena, eta Goierrin eta Donostialdea-Bidasoan jarriko dituztenak.

Aurrerapen dokumentua osorik ikusi gura duenak *www.gipuzkoaingurumena.com* helbidean begira dezake. Orain, dokumentuari ekarpenak egiteko kanpaina zabaldu du Foru Aldundiak, hain justu ere, uztailaren 18ra arte.

**JARDUNALDIAK**

# Migrazioa, aztergai udako ikastaroan

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra egingo du Soziologiako Nazioarteko Erakundeak

**M.B.** > OÑATI

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak udako ikastaroa egingo du ekainaren 30etik uztailaren 4ra arte. Hain zuzen, globalizazioaren barruan migrazio prozesuei buruz jardungo dute hainbat adituk.

Ekitaldian hartuko dute parte Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuorde Jose Sagastik, Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendari zientifiko Carlos Listak, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendari Jon Landak eta Oñatiko alkate Lurdes Idoiagak. Bestalde, irekiera hitzaldia Roberto Marrok egingo du.

**HITZALDIAK ETA TURISMOA**

Lau egunean zehar, globalizarioaren migrazio prozesuei buruzko 21 hitzaldi egingo dituzte; besteak beste, Espainia eta Ekuadorko migrazioari buruzkoak. Bestalde, udako ikastarora datozen adituekin bisita gidatuak egingo dituzte Oñatin, eta Oñatz Dantza Taldearen emanaldia ikusteko aukera izango dute. Ikastaroaren amaiera ekitaldia uztailaren 4an egingo dute, Donostiako Kursaalen. Udako ikastaroaren gaineko informazioa dago ikusgai *www.iisf.es* webgunean.

gure artekoak

**HONDA ACCORD** > Honda etxeak joan den astean merkaturatutako autoa da Accord berria. Aurreko modeloa baino zerbait luzeagoa eta zabalagoa da; baina, era berean, baita baxuagoa ere. Hala, segurtasunean irabazi du.

**Jesus Zubiaur** > Tecnocar Arrasate etxeko saltzailea

# "Bost urteko bermea ematen du Honda Accord berriak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Hilabete honetan bertan aurkeztu dute merkatuan Honda Accord berria. Aurreko modeloa baino zerbait handiagoa da oraingoa. Zabalagoa eta luzeagoa da; hala, maletategi handiagoa du oraingo autoak. Gainera, diseinu aldetik ere aldaketak izan ditu auto berriak.

Bestalde, modelo familiarra lehengoa baina motzagoa da. Jesus Zubiaurren berbetan, lehengoa "oso luzea" zen.

**MOTOR AUKERA**

Accord berriak hiru motor aukera eskaintzen ditu: dieselezko bat –2.2, 150 ZP –; eta, gasolinazko bi –2.0, 156 ZP eta 2.4, 201 ZP – daude aukeran.

Aldaketa kaxari dagokionez, sei martxako aldaketa kaxa eskaintzen du autoak. Aukeran, baina, gasolinazko motorrak aldaketa kaxa automatikoa eskaintzen du.

Autoa lau atekoa da eta familiarra bost atekoa.

**SEGURTASUNA, BERMATUTA**

"Autoak duen elementu azpimarragarriena segurtasuna da", azaldu du Zubiaurrek. Orain arte Honda Accord-ek izan duen CMBS eta ACC sistemei –radar bidez aurreko autoaren abiadura neurtu eta abiadura berean jartzen du autoa – LKAS sistema gehitu behar zaie. Sistema horrek kamera bat eskaintzen du; hala, alboetako marra zuria ikusi eta zuzenbidea okertuz gero, autoa zuzen jartzeko aukera ematen du. Gainera, segurtasunari dagokionez, bost urteko bermea eskaintzen du Honda etxeak.



Jesus Zubiaur, Tecnocar Arrasate etxeko saltzailea. A.I.

**Honda Accord iDTEC 150 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 28.900 euro |
| Luzera | 4,72 metro |
| Zabalera | 1,84 metro |
| Maletategia | 460 litro(1) |
| Kontsumoa | 5,5 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 192 km/h(3) |
| Otik 100era | 9 seg. |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**EURO 5 ZIURTAGIRIA**

Accord berriak 2009ko irailean sartuko den Euro 5 legea betetzen du. Diesel mekanika bidez, potentzia handia eskaintzen du, baina kontsumoa %5 jaitsita.

etxeko leihotik



**Leire Kortabarria** > lkortabarria@goiena.com

# Krisia eta elkartasuna bizilagun txarrak dira

Bai, bai. Solidarioak garela esatea gustatzen zaigu denoi, eta, tokatzen denean, elkartasun jaietan gustura parte hartzen dugu; oraingo aste bukaeran bertan, horretarako bi edo hiru aukera ditugu bailaran. Dirua emateko eskatzen digutenean ere ematen dugu, kontu korronteren batean edo orain hain sasoian ez dauden telemaratoi solidario horietako baten (esan behar da, halere, poltsikoa nekatzen hasia dela; hala dio, behintzat, inguruko elkarte batek). Baina gero, gure eguneroko erosotasuna eta hobe beharra zalantzan dagoenean, hor ez dago elkartasunik. Ikusi, bestela, zer gertatu den garraiolarien huelgarekin: agudo asko joan gara denok karrotxoa eta autoaren depositua goraino betetzera, konturatu barik, edo konturatu gura barik, ohiko kantitateetan erostea dela onena, horrela generoa ez delako behar baino lehenago bukatuko. Baina, jakina, hori onena da denondako, ez derrigorrez bakoitzarendako, eta zeinek ziurtatuko dit bihar nire ohiko jatekoak eta edatekoak izango ditudala, eta aste bukaeran ohiko irteerak egin ahal izango ditudala? Krisia atetik sartzen denean, elkartasuna leihotik kanpora doa.

**"Gure eguneroko erosotasuna zalantzan badago, ez dago elkartasunik"**

**> Saharatik umeak ekartzeko gertu egoten ziren familia pilo bat orain dela ez hainbeste. Aurten, familia gutxi zegoenez, udalekuak antolatu nahi dituzte, baina horiek egiteko ere, larri dabiltza.**

**> 2010. urte inguruan, petrolioa azkenetan dagoenean, hura gabeko mundu batera ohitu beharko garela irakurri nion aditu bati: ibilgailu pribatu gutxiago, elkarbanatze gehiago... Mundua gertu ote dago?**

begi-bistan



**Auto bat erre da (Arrasate) 2008/06/10**

**Argazkia:** Miren Arregi.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Auto bat erre zen eguaztenean Arrasaten, Aprendizen eskola parean. Udaltzaingoaren arabera, autoak urtebete zeraman abandonatuta. Autoak sua zergatik hartu zuen ez dakite.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Pello Zabala**
FRANTZISKOTARRA

Ekainaren 21ean aurkeztuko den Euskal Curriculuma sustatzeko taldean parte hartu du Pello Zabalak. Bost urte eta erdiko lana izan du Euskal Curriculumak.

Aurkezpena ekainaren 21ean izango da, Donostiako Kursaal jauregian, 11:00etan.



**Alberto Sanchez**
KULTURISTA

Donostiako Victoria Eugenian egin zuten IX. Open Regional Olympus Sport txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen Alberto Sanchez arrasatearrak. Emaitza horrekin, maila nazionaleko txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuen.



**Iban Velasco**
Txirrindularia

Euskatel Euskadiko Arrasateko txirrindulariak bihar hasiko den Suitzako Itzulian parte hartuko du. Jon Odriozolak zortzi txirrindulariko taldea eramango du Suitzara; taldeburua Igor Anton izango da. Lehenengo etapa Langnau-Langnau izango da.

Uda pasatzera Saharatik etorriko diren 12 neska-mutikoei oinarrizko zerbitzua emateko deialdia egin zuten Aretxabaletako Iesbaa eta Arrasateko Nubi elkarteek. Enpresetara eta udaletara eta Arrasate, Oñati, Bergara, Eskoriatza eta Aretxabaletako ikastetxeetara egindako deialdiak erantzun eskasa izan du. Azken deia egin dute erabakia hartu aurretik.

**Agurne Juldain** > Nubi elkarteko kidea

# "Saharatik datozen 12 haurrak janzteko eta jaten emateko dirua behar dugu"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Azkeneko deialdia egin gura dute Iesbaa eta Nubi elkarteek. Ekainaren 23an helduko dira Saharako 12 haurrak, eta gutxieneko aurrekontua ez dute bildu. Nubi elkarteko Agurne Juldainek gaur eta bihar egingo dituzten ekintza solidarioetara joateko gonbidapena egin digu.**


Agurne Juldain, Nubi elkarteko kidea, Bergarako Irizar lorategian. MIREIA BIKUÑA

**Gaur eta bihar Arrasaten eta Aretxabaletan egingo dituzuen ekitaldietan jasotako erantzunaren ondoren erabakiko duzue zer egin udalekuekin.**

Bai, hala da. Gaur hainbat ekitaldi egingo ditugu Iesbaa eta Nubi elkartekook Aretxabaletan; besteak beste, bingo solidarioa egingo dugu, eta tea dastatzeko aukera egongo da. Bihar, berriz, gobernuz kanpoko eraundeek antolatuta Elkartasun Festa egingo dugu Arrasaten. Sahararen txokoa egongo da, eta Ekin Emakumeak elkarteak taloak egingo ditu proiektuan laguntzeko.

Esperantza handia jarri dugu bi ekitaldi horietan, eta horren ondoren erabakiko dugu Saharako haurrekin zer egin.

**Proiektua aurrera eramateko duzuen arazoa dirua da.**

Aljeriako Tindouf errefuxiatuen kanpalekuetatik ekarri nahi ditugun 12 haurrei eta begiraleari bi hilabeteko egonaldia ordaindu behar diegu, eta horretarako, 50.000 euro beharko ditugula uste dugu. Baina dirua biltzeko egin ditugun deialdietan erantzun eskasa jaso dugu.

**Zertan datza esku artean duzuen proiektua?**

Aspaldi hasi ginen Saharako haurrak ekartzen; hain justu ere, Debagoieneko familiekin egoten ziren bi hilabetean. Baina, urteak joan ahala, familia kopuruak behera egin du. Horregatik, Italian erabiltzen duten sistema martxan jartzea erabaki genuen; alegia, familietara etortzen diren haurrez gain, beste 12 neskamutiko ekartzea aterpetxe batera. Proiektu hori gauzatzeko lanean gabiltza oraindik; izan ere, aterpetxera datozen haurren gastuak guk ordaindu behar ditugu. Ekainaren 23tik abuztuaren 23ra jaten eman behar diegu, eta arropak berriak erosi behar dizkiegu. Gainera, gurean egongo diren egunetan, hainbat ekitaldi egiteko asmo dugu. Horrek guztiak aurrekontu potoloa eskatzen du; besteak beste, 12 haurren eta haiekin datorren begiralearen bidaiengatik, 8.000 euro ordaindu behar ditugu.

**Horretarako, dirua lortzeko, deialdi zabala egin zenuten.**

Gure proiektua aurkeztu genuen 400 enpresatan eta Debagoieneko udal guztietan, eta lau enpresaren erantzunak bakarrik jaso ditugu: bik ezetz esan digute eta beste bik, dirurik ez, baina beste material batzuk eman dizkigute. Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundian ere eskatu ditugu laguntzak, baina azaro arte erantzunik ezin digutela eman esan digute. Jantziekin eta janariekin lan egiten duten enpresetara ere joan ginen, baina ez genuen ezer lortu

Gainera, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergarako ikastetxeetan bost euroko laguntza txartelak banatu genituen, 0-18 urte arteko neskamutikoei emateko. Guztira, 6.500 txartel banatu genituen. Baina, zoritxarrez, oraingoz, bost lagunen laguntza bakarrik jaso dugu. Egia esan, ez dakigu zer gertatu den, baina erantzuna oso txarra izan dela esan behar dugu.

ERANTZUNA

**"Proiektua 400 enpresatan aurkeztu genuen, eta lauk bakarrik erantzun digute"**

LAGUNTZA

**"Dirua eman gura dutenendako hiru kontu ditugu zabalik, Euskadiko Kutxan, La Caixan eta Kutxan"**

ZERBITZUA

**"Oinarrizko zerbitzua emateko dirurik biltzen ez badugu, Saharako haurrak ez dira etorriko"**

**Kontzientziazio falta izan daiteke?**

Ez dakigu. Egia da pertsona guztiak ez daudela laguntza emateko moduan, baina egia da, baita ere, bost euro ez dela diru askorik. Bestalde, gatazka asko dago munduan, eta elkarte ezberdinetatik laguntza eskaerak egiten ditugu behin eta berriz. Agian, gizartea nazkatuta dago.

Baina guk ez diogu azalpenik topatzen jaso dugun erantzun eskasari. Batez ere, asko tristatzen gaitu, kooperatibismoaz harro dagoen ibarrean, puntako enpresen aldetik horren laguntza eskasa jasotzea.

**Oraindik laguntza eman daiteke?**

Bai. Hiru kontu korronte ditugu zabalik : Euskadiko Kutxan, 3035 0002 16 0020047050 zenbakian; La Caixan, 2100 6838 48 0200002671 zenbakian; eta, Kutxan 2101 0055 67 0126379429 zenbakian. Pertsona bakoitzak gura duen dirua sar dezake. Dena den, dirua sar ezin duenak baina beste mota bateko laguntza eman gura duenak aukera du horretarako.

Horren harira, laguntza lehenbailehen eskatu nahi dugu, jasotzen dugun diruaren arabera erabakiko dugu-eta haurrak ekarri edo ez.

Garbi utzi nahi dugu dirulaguntzaeskaera ez dugula guretzako egiten, Saharako haurrendako baizik. Oinarrizko zerbitzua eman ahal izateko dirua bildu behar dugu; besteak beste, arropak eta janaria erosi eta osasun azterketak egin nahi dizkiegu. Etorriko diren neska-mutikoetatik bik osasun arazo larriak dituzte, eta espezialistengana eroan gura ditugu. Gainerakoei ere osasun azterketa egin gura diegu, eta hori guztia ordaintzeko dirua behar dugu.



zabalik

**Diego Martiartu**

# 'Apokalipsis gaur'

Egun batean, demagun iragan astelehen buruzurian, jaikitzen zara ohetik, gosaltzen duzu anis-erroskilla batzuk cola-caoarekin, joaten zara Maxi-Eroskira bekarrak oraindik zintzilik eta konturatzen zara, derrepentean, gaur dela munduaren akabera. Bistan da komunikabideek bikain bete dutela bazter-nahasle lana.

Kamioilarien greba dela-eta, musulmanak Mecara nola, hala bildu da Eroskira itzelezko jende multzoa. Gurditxoak goraino beteta pasilloetan gora eta behera. Lorezaintza sailareko interes ezak izugarrizko kontrastea egiten du arroza eskuratzeko antsiekin. Oilaskorik ez apaletan; txerrikia ere urri; haraxeago, Mistol poto gutxi batzuk, desanparoaren erdian lekuko mutu. Arrandegian, peska banatzaileak kopetan behera txangurruetara erortzen zaizkien izerdi tantei ezin eutsita dabiltza.

> **"Kamioilarien greba dela-eta, musulmanak Mecara nola, hala bildu da Eroskira itzelezko jendea"**
>
> **"Esnea eta komuneko papera dira produkturik preziatuenak"**

Erosgai meten gailurrean, baba, barbantzu eta erremolatxen gainetik, esnea eta komuneko papera dira produkturik preziatuenak. Oinarrizko elikagaia dugu esnea, etxeko sotoan handizka pilatu beharrekoa: dozenako bi, hiru, lau kaxa... Komuneko papera, berriz, derrigorrezkoa, hemen kontua ipurdia salbatzea baita.

Zurrumurrua zabalduaz doa saltokian: Ederlanera ez da gaur piezarik iritsi. Gurditxo gainezka eginak lerro luzetan pilatzen dira kutxen aurrean. Gasolindegian badago morroi bat autoaren erregai ontzia bete ondoren maleta-lekuan dituen bidoiak gasolinaz betetzen ari dena: Mad Max erreinuan pribilegiozko posizioa hartzen ari.

*Gran Circo Royal* delakoaren karpa erretiratzen dabiltza, baina funtzioa, benetako zirkoa, hasi besterik ez da egin ondoko eraikin gorri dekadentean.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

AUTOBUS GUTXIAGO

**Zergatik murrizten dituzte autobusak, Arrasatetik Donostiarakoak hain justu ere, uda sasoian?**

Egunero Donostiara joan-etorria egiten duen arrasatear gazte batek idatzi digu kexa baten berri emateko. Gazte honek, Josune Garaik, dio udan Arrasate-Donostia autobus linea erdira murrizten dela "eta, gainera, goizetan, lanera joateko orduetan, gehien kentzen dituztela, hiru bidai hain zuzen ere" dio. Era berean, dio, Bizkaian autobusak bikoiztu egiten diren bitartean, Gipuzkoan erdira murrizten direla. Hori zergatik den eta arazoa konpontzeko asmorik duten edo ez galdetzen du.

Erantzunaren bila Pesa autobus konpainiara deitu dugu. Berezoaren arretarako telefonoan hartu gaituzte. Diote uztailean zerbitzu batzuk murriztu egiten dituztela eta abuztuan gehiago. Diote, horren arrazoia dela hilabete horietan erabiltzaile gutxiago izaten dituztela, batez ere ikasleek jai dutelako, behin ikasturtea amaituta. Eta oraingoz ez dutela hori aldatzeko asmorik.

KANPOKO IGERILEKUAK

**Arrasatear batek deitu digu galdetzeko ea noiz zabalduko dituzten Musakolako kanpoko igerilekuak eta zabaltzen dituztenean barrukoak itxiko dituzten edo ez. "Eguraldi honekin kanpoan bainatu beharra ere...", dio.**

Arrasateko kirol zerbitzura jo dugu erantzunaren bila. Han diote berez oraingo asteburuan zabaltzekoak zirela, baina azkenaldian egin duen eguraldia ikusita, astebete atzeratzea erabaki dutela. Hala, ekainaren 21ean irekiko dituzte, beti ere eguraldiak hobera egiten badu; izan ere, kanpokoak irekitzeko, barrukoak itxi egin behar dituzte eta eguraldi honekin ez du merezi. Zergatik barrukoak itxi? Legeak ez duelako baimentzen barrukoak eta kanpokoak, aldiberean, zabalik edukitzea aldagela bakarrak baldin badaude, hau da, biak zabalik edukitzeko bakoitzak bere aldagelak izan behar ditu eta Arrasateko kasuan ez da hori betetzen. Ibarreko gainerako igerilekuetan asteburu honetan irekiko dituzte kanpoko zerbitzuak.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

MUSIKA ESPOLOIAN

**"Aurten uztailean antolatuko dira Espoloian musika emanaldiak?", galdetzen du bergarar batek**

Bergarako Udaleko Kultura zerbitzuan eman digute erantzuna: "Bai, egingo dira, uztaileko bost egubakoitzetan. Jazz, blues, flamenko eta funky estiloko taldeak izango dira zumardian".

marrazkiz

**Alex Ugalde**




blog

## Errotatibaren kontra

**Alberto Araberri 'Amatiño'**
eibar.org/blogak/amatino

(...)

Bat. Segurutik ezer gutxi dago zaharragorik, zaharkituagorik eta anakronikoagorik, edozein egunkariren errotatiba amonalez erasotzea baino. Hori ez da egiaren jabe denaren arrazoia, zer esanik ez duenaren ezinaren ezina baino.

Bi. ETAk besterik uste arren, ez dira euskal errotatibak bere etsaiak. Nekez aurkituko dugu munduan beste prentsarik, talde terroristen iritziak eta komunikatuak euskal prentsak bezain sarri eta osorik ematen dituenik. ETAren arazoa ez da herritarren informaziorik eza. Ez, ETAren arazoa ez da egin dakiokeen zentsura ere, honez gero zentsuratu behareko ideiarik gabe geratu dela baizik.

Eta hiru: ETAri zer pentsa eman beharko lioke jakiteak, berak erasotu duen egunkariaren erosleak, ezker abertzalearen botu-emaileak baino dezente gehiago direla Bizkaian.

Zergatik ote?

## Free, free, free

**Leire Urtzelai**
eskohitza.com/blogak

Tibeten askatasun aldarrikapena eta Eskoitzako mozio etikoa. Antzekotasunik ote inon?

Oin danok gaz Tibeten askatasunan alde. Free Tibet, free!! Eta hala ere hor jarraitzen dou gure interes ekonomikoengatik Txinan inbertitzen. Txinatik datozen erropak erosten. Txinan eindako zapatilekin korrika itxen. Txinan eindako lapikoekin babak prestatzen. Free-free ta

## plazara

Kontseiluak 10 urte bete ditu aurten. Ospatzeko hainbat ekimen antolatu ditu. Horietako bat da *Euskaraz bai* astea, datorren astean Bergaran egingo dena. Bestalde, adierazpena eman du ezagutzera. Xabier Mendigurenek aurkezten digu orrialde honetan. Edozeinek du aukera atxikimendua adierazteko adierazpenari. Webgune honetan: *www.kontseilua.org/euskarazbai.*

**Xabier Mendiguren ***

# Esan eta egin dezagun denok, 'Euskaraz bai'

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta bertan izan dezakeen garapenaren baitan bakarrik ziurta daiteke bere biziraupena. Euskarak etorkizuna behar duelako, iraungo duen hizkuntza izatea nahi dugulako eta euskal herritar guztien hizkuntza izatea nahi dugulako, ezinbestekoa da euskararen garapena ziurtatzea.

Zorionez, nahiz eta euskal jendartean osoki euskaraz bizitzeko aukerarik ez egon, gaur egun, neurri handi batean euskaraz bizi den jendarte zabala dago. Euskalgintza bilgune da euskaraz bizi den jendarte horrentzat. Hortaz, euskaraz bizitzea da gure aukera. Aukera hori hartu dugunontzat euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortu nahi ditugu eta horretarako ari gara lanean euskalgintzan. Horregatik ere hizkuntzarentzat esparruak garatu eta zabaldu nahi ditugu; geure bizitza euskaraz normaltasunez egin ahal izateko.

XXI. mendearen hasieran euskarak bizi duen egoeraren aurrean, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko Batzar Nagusiak oinarrizko irakurketa hau egin du, euskararen egungo egoeraz:

- Egindako lanari esker euskal herritarren euskararen aldeko jarrerak azken hamarkadetan bilakaera baikorra izan duela ukaezina da. Gehiengo zabalaren jarrera euskararen aldekoa da, euskararen zabalkundea eta normalizazioa lortzearen aldekoa. Baina euskararen garapena nahi baino mantsoago ari da gertatzen.

- Euskal Herriko biztanleen laurdena euskalduna da. Azken hamarkadetan egindako ahaleginak euskaldunen kopurua handitzea ekarri badu ere, handitze hori ez da izan euskararen normalizazioa bermatzeko adinakoa.

- Erabileran ere hazkundea gertatu den arren, egoera normalizatuak izango lukeen erabilera mailaren azpitik gaude oraindik.

- Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta, eta nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak. Euskal Herriko hainbat eremutan, euskaraz bizitzeko aukera dagoenean, euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du hori lortzeko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen delako.

- Abagune honetan, euskalgintzak elkarlan-jarduera aberasgarria eraiki du. Elkarlan-giro horren emaitza oparoa da euskarari emandako bultzada, ehunka gizarte-eragileren ekarpena eta instituzioengan lortutako eragite-lana.



MIKEL ARROIABE

**"Funtzio sozial guztiak euskaraz garatzeko aukera lehenbailehen lortu behar da, benetako normalizaziorako"**

Aurreratutakoa kontuan izan eta normalizaziora iristeko bidea falta dela gogoan hartuta, oinarrizko ildo hauek jarraituko ditugu etorkizunera begira:

1. Euskararen berreskurapen-prozesua azkartzea ezinbestekoa da. Hau da, egun Euskal Herrian euskara ez dakitenek ikastea, eta, bere erabilera esparru eta eremu berrietan handitzea, ahalik eta eperik laburrenean. Ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen segitu behar dugu.

2. Funtzio sozial guztiak euskaraz garatzeko aukera lehenbailehen lortzea ezinbestekoa da, horrela lor baitaiteke euskararen normalizazioan urrats benetakoak egitea.

3. Euskara lehentasuneko hizkuntza izatea lortu behar dugu, horrela ziurta baitaiteke euskaldunen eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea.

4. Hori guztia egiteko lan politiko-instituzionala eta lan soziala bideratu behar dira, biak ere norabide berean. Erakunde instituzionalek, eragile politikoek, ekonomikoek eta sozialek, norbanakoek eta euskalgintzak norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, guztion arteko lankidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua osatzen dugun eragileok euskararen eremu osoan euskaraz normaltasunez bizitzeko ari gara lanean. Etorkizunerako, euskalgintzan ari garen erakunde eta lagunok lanerako ilusioa eta grina dugula berretsi nahi dugu. Ahalegin horretan batera jarduteko gonbita luzatzen diegu jendarte-eragileei, erakundeei, eta gizarteari oro har.

* Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko idazkari nagusia

## zer deritzozu?

www.goiena.net

### Erregaien krisiagatik arduratuta?

| | |
|---|---|
| BAI | %75 |
| EZ | %25 |

**> HORIXE BAIETZ**
Nire poltsikoak asko igartzen du. Gasolina botatzera noan bakoitzean atrakua egiten didatela iruditzen zait.
**Iratxe Lopetegi**

**> GIZAKION ERRUA DA**
Gure erruagatik eta guk sortu dugun psikosiagatik gasolina guztia agortuko dugu eta gainera prezioa bikoiztea besterik ez dugu lortuko. Merezia!
**Maider Arregi**

**> EZ**
Ez dut uste horrenbestekoa denik krisia; duena baino garrantzia handiagoa ematen gabiltza eta jendea erotuta dabil.
**Mikelo**

**> ZELAN EZ BA?**
Klaro arduraketan garela, baiñe krisialditxo hau pasauko da, eta berdin jarraittuko dou. Ez garena konturaketan da krisi hau reflejo txiki bat baiño ez dala, gero etorriko dan kolpe gogorran señale bat.
**Baltz**

**DATORREN ASTEKOA: Ondo ikusten duzu lan astea 65 ordutara luzatzea?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzunak.

## -top

merke-merke batez-be!! Ze axola nondik eta nola datozen? Ze axola hain urrun dauden langileen eskubideek? Ze axola besteen askatasunak? Baina hori bai, jendeaurrean ta prentsaurrekoetan: Free Tibet, free!!

Hori da gure herriko mozio etikoan kontua bezala. Hemen danok gaz herrixan alde ta askatasunan alde. Ze politxa!! Danok errespetatzen dou herriaren borondatia. Baina, badaezpada, hor doia "mozio etiko" bat, free-free!! Herritarron borondatearen kontra. Beste nonbaiten hartutako erabaki baten izenian(???). Botere gose asegaitza!! Hipokresi mozorrotua!!

(...)

### Europa gaixorik

**Asel Luzarraga**
goiena.net/blogak/asel

(...)

Europako parlamentuan jesartzen diren horientzat zer dira 68 ordu astean? Borobildu eta 70 ezartzea ere ez dago txarto, horrela, astelehenetik igandera 10na orduz lan egingo dugu Europaren lehiakortasunaren izenean. Jakina, langilea ez da "derrigortuta" egongo. Hots, galtzeko asko daukaten gizajoak, berriz ere etorkinak eta txiroak, izango dira gure bizi-kalitatea (tira, kantitatea esan behar genuke, kalitate gutxi baitauka gure bizimodu modernoak) bermatuko duten pariak. Badakigu laster nortzuk izango diren legezko esklabo berriak. Ez dituzte katez lotuko, zertarako, premia gorria eta aukerarik eza katerik onenak dira egun.

Baina jarrai dezagun goizeko kafea lasai hartzen, dirudienez kontuak ez du zerikusirik gurekin...

(...)

## koplak

**Eñaut Uriarte**

### Garraiolariak kexu

Garraiolariak kexu ziren
gasoila garesti zela,
greba egin eta nahasmena
sortu dute berehala.

Argudiatu digute Madrildik
ez dakit zenbat arrazoi,
baina, nire ustez, arazo horrek
badauka, bai, hainbat pozoi.

Gobernuak baitta be esaten dau
greba ez dabela onartzen,
noski, beraren poltsikoari
ez diolako afektatzen.

Pentsatu ezazue nolakua dan
suertau jakun egoera,
ematen zuen gertatuko zela
munduaren amaiera.

Lantegi askotan, langile denak
bialdu dituzte etxera:
eroaten duten produkzioa
ezin dabe atera.

Arrantzaleak ta beste batzuk
orain ere berdin dare,
inoiz jakin ahal dogu nor den
egoera honen jabe?

# Baserria SOS! Borrokatu ala desagertu!

**Jerman Arbulu, Agurtzane Diaz eta Maite Aristegi**
(Debagoieneko EHNEren izenean)
Bergara

Ez dira ez garai errazak baserritarrontzat. Ia inork aintzakotzat hartzen ez duen lanbide honetan alde guztietatik datozkigu erasoak. Zailtasunak dituen lanbidea zela jakin bagenekien ere, gustura egin genuen apustu bere alde. Baina gainean daukan alarma argi gorria ia su hartzeraino berotu zaigunez, uste dugu badela garaia jendarteak uler dezan lehen sektoreko arazoak ez dagozkigula baserritarroi soilik, jendarte osoari baizik. Gure elikagaien, paisaiaren, ingurumenaren eta azken batean denon osasuna dagoela jokoan. Eta gure kultura, hizkuntza, historia eta galtzen ari garen jakinduria tradizionalaren babesleku den horren alde denon artean borrokatzen ez badugu, baserrietako nekazaritza jarduera desagertzeko arrisku larrian dagoela.

Baserri lanaren desagerpenari buruzko datuak larriak dira oso. 30 urtetan Hego Euskal Herrian martxan diren baserrien %85 desagertu dira. Ia 14.000 baino ez gara, urtetik urtera %5-10 bitartean gutxiago (azken sei urteetan nekazaritzako lanpostuen %30 galdu dira) eta gaudenon %60 baino gehiago 55 urtetik gorakoak gara. Ezkutuko errekonbertsio basatia, aspalditik datorrena baina azken hilabeteetan asko larritu dena. Eta gure bailarari erreparatuz gero, zer esanik ez: 60 baserri baino ez dira bertatik bakarrik bizi direnak. Indikatzaile argi bat ganadua duten baserriena da; 400 pasatxo baino ez gara eta horietatik hiru laurdenak 10 abelburu baino gutxiago dituzte, maitasunagatik, penagatik edo inguruak txukun izateagatik eusten diotenak, baina egun batetik bestera denari lagatzeko zorian daudenak.

Eta desagerpenaren ondorio zer? Ingurumenean, paisaian, elikaduran eta oro har gure jendartearen bizi kalitatean eragin negargarria.

Hemen ez ezik, Europan eta mundu mailan ematen ari den nekazaritza ereduen arteko borroka horretan aspalditik daukagu definituta zelako nekazaritza behar dugun: ditugun errekurtsoak egoki baliatuz, herri honek ahal eta behar duen adina kalitatezko janari sortu, elaboratu eta kontsumitzailearenganaino iristeko balioko duena (janari subirautza ziurtatzen saiatu), geure inguruetako oreka mantentzen eta errespetatzen lagunduko duena eta baserritarrei duintasunezko diru sarrerak eta kalitatezko bizitza bermatuko diena.

Azken urteetan, ostera, lurrari lotutako betiko baserri eredu sostengarritik desagerpena edo agro-industrializaziorako salto larria ematen ari da, ekoizpenaren kontzentrazioaren ondorio guztiekin; EHNEtik baserriak hustearen edota ziklo naturalekiko urruntzearen aurrean lanpostuak mantentzea eta kalitatezko nekazaritza herri honentzat ezinbestekotzat aldarrikatzen ditugu.

Eta kaletarrei ate joka gatoz, gure lanbidean jarraitzeko berehalako erantzuna eskatzen duten arazoen aurrean mugi gaitezen, gizarte osoaren babesa eta ulermena behar ditugu eta!

- Kostuen igoerari erantzuteko. Produzitzeko behar ditugun lehengaiak etengabe igo dira azken urtebetean. Kontsumitzaileei ere igo egin zaie elikagaien kostua, baina gu lehengo prezioetan ari gara jeneroa saltzen. Bitartekariak negozioa egiten, baserritarrak dirua galtzen, erosleak dirua xahutzen. Horregatik beharrezkoa dugu prezioen behatoki bat (jatorrian eta salmentan) eta baserritik bizi ahal izateko beharrezkoak diren gutxieneko prezioak markatzea, produktuz produktu.

- Azpiegiturek eragindako lur xahuketari erantzuteko. Etxebizitzak, industrialdeak, AP-1 autopistaren eragin izugarriak... eta orain AHTren mamua. Lurra, bereziki lur ona, baliabide urria gure bailaran, eta dagoeneko zuloz betetako gazta bat badirudi… Zer espero dezakegu etorkizunean? Gazteak baserriratzea eta hainbat baserriren jarraikortasuna ezinezkoa, izugarrizko indefentsioa, ezintasuna gure lurrak defendatzeko, lurretik bizitzeko. Espekulazioa baztertuz, baserritarron eta jendarte osoaren benetako interes sozialak defendatuko dituen lurraren kudeaketa publikoa eskatzen dugu.

- Burokrazia jasanezinari erantzuteko: gero eta paper gehiago bete behar ditugu kontrolaren izenean, horrek suposatzen duen koste guztiekin (denbora, dirua, ardura…) baina gure produktua baserriko atetik irteten denetik sekulako deskontrola dago. Arriskuen eta gure baserriaren tamainaren araberako kontrola eskatzen dugu, betetzeko modukoa eta janarien kate osoan zehar gauzatuko dena. Bestela, orain arte bezala,baserrietan galtzen diren lanpostuak bulegoetan sortzen jarraituko dugu, baina, baserritarrik gelditzen ez denean, zer?

- Diru publikoen erabilera okerrarekin amaitzeko: nekazaritza aurrekontuko milioika euro enpresa publiko, para-publiko eta elikagai industria handiei bideratzen zaie baserritar soila babes barik lagatzen duten bitartean. Kanpora begira, itxurakeriazko politika bat bultzatzen da, kalitate hitza edukiz hustu eta kontsumitzailearengan nahasmena sortuz. Diru publikoaren erabilera okerra salatu eta gure lanaren ordain egokia eskatzen dugu.

Arrazoi hauek eta gehiago ditugu kalera irteteko; igande eguerdian, Donostiako Bulebarrean elkartuko gara ozen esateko kale eta baserri elkarren beharra dugula. Zeuk ere hala uste baduzu, gonbidatuta zaude gurekin gurdi gainera igotzera. Itolarrian dagoen baserriari, gure lur onari eman diezaiogun irauli bat!

# Lemoiz vs AHT

**Gorka Martinez**
Bergara

Erreflexiorako momentua… Ni ondio jaio barik neuan oingo Iberdrolak Eusko Jaurlaritzari planteatu zotsaneann Lemoizeko Zentral Nuklearraren inguruko instalazio hauek. Jaurlaritzak onartutzat jo zeban (Fase 0) batezbe Euskal Herrixak bere autonomia eukitzeko energiari dagokionez (Zeiñek eukiko zeban autonomia Euskal Herriak ak ero Iberdrolak?). Orduan instalaziñuen obrak hasi zian (Dirua Iberdrolak jarri zeban baña Euskal Herriak baitxa) eta hauekin batera kontran zeren elkarte eta herritarrak hainbat eta hainbat ekitaldi, manifestazio... antolatu zeben, "Euskal Herriari galdeketa" bat egitea eskatuz (Fase 1). Denboria pasa zan eta instalaziñuak aurrera zoiazen, jendearen inpotentziarekin batera. Orduan ETA (m) sartu zan jokuan baitxa (Fase 2)…., eta birritan lortu zeben bonbak jartzia zentral barruan, horietako baten pertsona bat erahilaz. Tentsioa asko handitu omen zen guztien partetik eta zentralaren aurkako manifestaldi batian Guardia Zibil batek beste pertsona bat erahil zeban... Bestaldetik ETA (m)-k Zentralaren kargu zeuan injienerua sekuestrau eta erahil zeban eta berdina gertau jakon honen ordezkuai. Orduantxe paralizau (Fase 3) zian obrak... gaur egunera arte. Oin hainbat alternatiba planteau dia leku hau aprobetxatzeko, baña Iberdrolak ez dau onartzen (Euskaldunen energia-tarifak igoz ordaindu dia instalazio horien galerak... Zergatik dauka azkenengo hitza enpresa pribau honek, guk ordaindutako zeozerena?).

Nik ez dot bizi izan hau guztia, baña burura galdera sinple bat etortzen jat. Hau guztia pasa biako dou AHTrekin? Espero ezetz, eta gure agintariek egun inspirau baten egoeraz sakonki erreflexionatzea eta Fase 3ra, Fase 2 desberdin batez heltzea. Hau da herritarron nahia Herri galdeketa batez argi geratzea eta ez erahilketen bidez.

Azkenengo erreflexio moduan: Euskal Herriko agintari potoloak Herri galdeketa bat eskatzen dabiz estatuari Independentziaren inguruan, baña ez dabe lagatzen herritako alkatiei Herri galdeketa bat egiten AHTren inguruan!

Nun dao koherentzia eta gurekiko errespetua!

# Aretxabaletako kultur etxea

**Pedro Lasagabaster, Oihana Aranburu, Agurne Barruso, Pedro Iturbe, Asier Agirre eta Arkaitz Biain**
(Debagoieneko hautetsi independentisten izenean)
Arrasate

Eskutitz honen bitartez pasa den ekainaren 6an Aretxabaletako Arkupe kultur etxearen inaugurazioari buruz, GOIENKARIAk argitaratutako erreportajearen inguruan hitz egin nahi genuke.

Bertan bailarako hautetsi independentiston prentsa oharraren pasarte batzuk gehitu ziren, arertxabaletarrek aukeratutako ordezkari legitimoak diren Anjel, Larraitz, Iñaki eta Nereak gonbiterik jaso ez zutela adierazi genuelarik. Bailarako gainontzeko hautetsi independentistak inauguraziora ez azaltzeko arrazoi nagusia, herriak aukeratutako ordezkariei, urrun joan gabe Aretxabaletan, egunerokotasunean ere Alderdi Politikoen Legea aplikatzen zaiela ikustea izan zen.

Erreportajean bertan Inaxio Garrok argi utzi zuen bezala, ekainaren 3an, eta kasualitatez hautetsi independentistok aipatutako prentsa oharra bidali ondoren, Anjelek inauguraziorako gonbidapena jaso zuen e-mailez, bailarako gainontzeko ordezkariek aurreko astean eskutitzez gonbidapen dotorea jaso genuenean.

Gauzak horrela argi geratu da, beste behin ere, egunerokotasunak agerian uzten duela Alderdi Politikoen Legea Espainiako Estatuak sortu zuela, baina praktikan badagoela hau bere modura aplikatzen duenik ere. Azken uneko aurpegi garbiketek, ez dute Alderdi Politikoen Legearen aurkako jarrera frogatzen, esan bezala, egunerokotasunak markatzen baitu jarrera eta borondatea. Gogoratu nahi genuke, eta ez gara hau esateaz aspertuko, udal ordezkari egiten gaituena ez dela legea, herritarren borondatea baizik.

# Reala, aurrera!

**Mikel Rodriguez**
Arrasate

Mendizorrotzan egon nintzen domekan, beste milaka Realeko zale bezala. Egun ederra igaro genuen han, Alaves-Real partiduaren hondarrera arte. Goizean, alde zaharrean sekulako giroa ipini genuen Realeko txuriurdinok eta partiduaren atarian ere bai, futbol zelaiaren inguruan. Zer esanik ez partiduan zehar. Baina, zerua eskuekin ukitzen genbiltzanean... dena pikutara!

Ez dut ulertzen Realeko hainbat jokalariren jarrera. Zelan ez diren agertzen lehiakorrago, txapeldunago, kementsuago, tinkoago... momentuak eskatzen duenean. Lotsa sentitu beharko lukete harmailetan geunden milaka zaleen aurrean.

Onena da oraindik aukera badugula eta badutela; benetako txapeldunak direla erakusteko aukera badutela jokalariek domekan. Azken finean, esperantzara kondenatuak gaude/daude: ea ez diguten berriro ere hutsik egiten.

# ELKARTASUNA 'EL CORREO'-RI

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko zuzendaritzak gaitzespena adierazi nahi du *El Correo* egunkariak jasan duen erasoaren aurrean eta elkartasuna agertu nahi die egunkariari eta berau egiten duten langileei.

Goienaren zeregin nagusietako bat adierazpen askatasuna sustatzea den neurrian, uste dugu edozein hedabidek jasan ditzakeen eraso, itxiera eta abar herritarron eskubide oinarrizko baten kontrakoak direla.

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

Faxa
**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


Ezagutzen gaituzu. Aurten ere emango ditugu dirulaguntzak, Nazioarteko Programen bidez atzerrian praktikak edo ikasketak egin ahal izateko.
IZEN-EMATEA MAIATZAREN 15etik EKAINAREN 30era
www.kutxasocial.net
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


MILAR ELKORO
ASTE EDERRA
GARRAIOA DOAN
BERRIA
42"
FULL HD
TDT
3 X HDMI
PLASMA PANASONIC TH-D42PN83E
79,99€ hilean*
1.599€*
Erresoluzioa 1920 x 1080 p
Kontrastea 30000:1
SDHC Txartel irakurlea
GARRAIOA DOAN
32"
HD ready
2 x HDMI
TDT
32,45€ hilean*
649€*
LCD PHILIPS 32PFL3512D
Erresoluzioa 1366 x 768 p
Pixel Plus HD
Kontrastea 5000:1
37 PFL5522D 37"
39,95€ hilean*
799€*
GARRAIOA DOAN
37"
HD Ready
TDT eguneragarria
160 GBtako disko gogorra
58 partidu grabatzen ditu
LCD LG 37LT75
2 x HDMI
Erresoluzioa 1366 x 768p
Kontrastea 8000:1
49,95€ hilean*
999€*
32 LT75 32"
39,95€ hilean*
799€*
* 11 hilabete interesik gabe
MILAR ELKORO
Milar Elkoro Olarte 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86


ORAIN GERTUAGO!
EIBAR - GORBEIA
AP-1
627
Bergara
Arrasate-Mondragón
Luko
GORBEIA
errazago, azkarrago, erosoago, merkeago eta orain...
GERTUAGO!
MODAZKO 70 DENDA ,
OSAGARRIAK, KIROLAK,
SUKALDARITZA, 14 ZINEMA ARETO...
GORBEIA

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31 **Oñati** > 33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Sarriegiren doinuak zabalduko dira umeen danborradan **> 19**



**> ARETXABALETA**
Herriko jaiak iragartzeko horma-irudi lehiaketa **> 32**



**> ESKORIATZA**
Kirol Elkartearen eguna ospatuko dute bihar herriko plazan **> 34**



**> ARAMAIO**
Herriko zenbait txoko kaltetuta agertu dira azkenaldian **> 38**

**ELKARTE AKTIBOA**
"Elkarteak ez dira afaltzera joateko bakarrik", dio Gure Ametsak; hala, ekintza asko egiten dituzte

**AUZOKO JAIAK**
Partaidetza asko jaitsi da, baina ez dute amore emango



**GURE AMETSA** Jesus Jauregi, Luis Igartua, Jabi Fernandez, Agustin Once, Jesus Elkoroberezibar, Pedro Rico, Andres Fernandez eta Patxi Uribezalgo. N.M.

**BERGARA** > SAN ANTONIOKO ELKARTEA

# 35 urte eta 50 lagun, San Antonioko giroa alaitzen

**NEREA MENOR** > BERGARA

1973ko martxoaren 25ean sortu zen Gure Ametsa elkartea. Txikitero talde bati bururatutako proiektua izan zen eta, auzoan zehar jende bila ibili ondoren, 50 lagunek osatu zuten elkartea, Martin Arriaran zuzendari zutela. Bazkide gazteenek gauzak egiteko gogoa erakutsi zuten, eta hasiera-hasieratik saiatu ziren auzoko giroa alaitzen. Sortu eta zortzi hilabetera, erakusleiho lehiaketa antolatu eta jaiotza jarri zuten. Gero, San Antonioko jaiak heldu zirenean, ekintzak antolatzen hartu zuten parte.

Gure Ametsa sortu zen garaian, giro handia zegoen auzoan: "Auzo alaia zen eta askok hartzen zuten parte jaietan. Herriguneko haurrak hona etortzen ziren katekesira, dantzaldiak gainezka egoten ziren eta danborrada ere antolatzen genuen: auzo osoak hartzen zuen parte, baina urteekin, giroa desagertuz joan zen", dio Jesus Jauregik, Gure Ametsako partaideak. "Orain asko aldatu da dena. Etxe berri asko egiten dabiltza, baina bizilagunak lotara bakarrik datoz, eta aurreko urteetan egondako espiritua mantendu nahi dugu guk".

Urteetan zehar gauza asko antolatu ditu Gure Ametsak. Bergarakoei eta kanpokoei omenaldiak egin dizkiete, jaiak antolatu dituzte, lehiaketak eta herri bazkariak. "Elkarteak ez dira afaltzera joateko lokalak bakarrik. Ondo funtzionatu du guztiak, elkarteko jendeak ondo erantzun duelako", dio Jauregik. Orain, bi leku libre daude elkartean: "50 bazkide izan ditzake Gure Ametsak, eta 48 ditu".

Gaur egun, San Antonioko jaiak antolatzeaz gain, auzoko jaiotza ipintzen dute, Gabonetako azoka antolatzen dute produktu nafarrekin; eta, Gabonak hasi aurretik, azaro aldera, patata azoka egin zuten, iaz lehenengo aldiz. Dendatxoak egon ziren patata ezberdinekin eta dastatzeko aukera ere izan zen. Santa Marinako parroko baten omenez egiten da azoka hori. Patata ereiten lehenengoetarikoa izan zen herrian eta baita bizilagunei eskaintzen ere. Garai haietan, ogia egiteko arto-rik ez zegoen eta irinarekin batera patata nahasten zuen gero herritarrei eskaintzeko. Aurten patataren urtea da, eta azokaren bigarren urtea izanda, hobekuntzak egin nahi dituzte. Maiatzean jardunaldi gastronomikoa egin nahi izan zuten, baina bertan behera gelditu zen azkenean: "Datorren urtean saiatuko gara berriz", dio Jesus Jauregik.

**AURTENGO JAIAK**

Txupinazoak eman zien atzo hasiera San Antonioko jaiei. Gaur, txistulariekin hasiko da eguna, 10:00etan. 10:30ean meza izango da eta San Joxepeko abesbatzak auzoko plazatxoan abestu eta gero, luncha egongo da elkartean. 21:00etan herri afaria egongo da; oraingoz 40 lagunek eman dute izena. Asteburuan zehar sardina jana, zezentxoak eta artisautza azoka egongo dira, besteak beste. Gure Ametsan badakite parte-hartzea txikia izango dela: "Ezin dugu gauza askorik egin, oso garestia da guztia. Jendea jaietan parte hartzera gonbidatzen dugu, asko gustatuko litzaiguke auzoko giroa berreskuratzea".

## Auzoko giroa alaitzen 35 urtetan zehar

Duela 35 urte zabaldu zuten San Antonioko Gure Ametsa elkartea. Argazkia inugurazio ekitaldikoa da, Don Serafin Esnaola apaiza erdian dela. Bere ondoan, Martin Arriaran azaltzen da, Elkarteko presidentea; baita Luis Laskurain ere, Bergarako alkate ohia; Javier Manso eta Gure Ametsako gainerako kideak, 50 guztira, egon ziren ospakizunean.



GURE AMETSA

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Domeka, 15 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Astelehena, 16 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |
| Martitzena, 17 | Ruiz | Nafarroa, 1 | 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 18 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Eguena, 19 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Egubakoitza, 20 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 15 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 16 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 17 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 18 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 19 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 20 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 15 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 16 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 17 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 18 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 19 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 20 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 15 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 18 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 19 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 20 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| Osakidetza (Larrialdia) | 943 46 11 11 |
| DYA (Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria (Elorregi) | 943 76 55 76 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 77 12 64 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 15 12 |
| Nekazaritza ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Hondakindegi alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 943 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 14**

Eguerdi alderako behe-lainoa egongo den arren, garbitzen joango da eguerdian. Tenperatura maximoak pixka bat igoko dira baina brisa ibiliko da.



**Domeka, 15**

Okerrera egingo du. Euria bota dezake tarteka eta ostarteak gutxituko dira. Tenperaturak gora egingo du, hala ere.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuan giro eguzkitsua bueltatuko da Euskal Herrira. Goizean behe-lainoa sortuko da eta mendi inguruan hodeiak, baina eguerdi partean ostarteak izango dira nagusi. Arratsaldean hodeiak ugaritzen hasiko dira. Domekan, eguraldia okertu egingo da eta euria egingo du.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 07 — **10 ºC**

**MAXIMOA** Eguaztena, 04 — **22 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **41,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 4** | 22 ºC | 11 ºC | 0,2 l/m² |
| **Eguena, 5** | 16 ºC | 12 ºC | 4,2 l/m² |
| **Egubakoitza, 6** | 17 ºC | 13 ºC | 0,1 l/m² |
| **Zapatua, 7** | 16 ºC | 10 ºC | 1,4 l/m² |
| **Domeka, 8** | 19 ºC | 10 ºC | 3,6 l/m² |
| **Astelehena, 9** | 19 ºC | 14 ºC | 15,7 l/m² |
| **Martitzena, 10** | 20 ºC | 14 ºC | 16,6 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA EKAINEAN

| Ilbete | Ilbehera | Ilberri | Ilgora |
|---|---|---|---|
| 3 | 10 | 18 | 26 |

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
**> Araba Euskaraz jairako boluntario premia**
Bastidan ospatuko den Araba Euskaraz jairako, etzirako, oraindik boluntario asko behar dituzte, denetariko lanak egiteko. Kontaktua: *bastida@ikastola.net* edo 945 33 11 56 telefonoan.

ARETXABALETA
**> Funky eta hip-hop ikastaroa dago gaur**
Funky eta hip-hop ikastaroa antolatu du Udalak gaurko, egubakoitza, Arkupe kultura etxean, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak: *kultura@aretxabaleta.net*, *gazteria@aretxabaleta.net* edo 943 71 10 27 / 605 70 89 46 telefono zenbakietan. Ikastaroa doan da.

ELGETA
**> Erretiratuen elkarteko kuota, etzi**
Erretiratuen elkarteko bazkideek urteko kuota ordaindu beharko dute etzi, domeka, Ozkarbi elkartean. 8 euro da.

ARRASATE
**> 80 urtetik gorakoen jaian izenematea**
Urtero sanjuanetan egiten duen moduan, Udalak 80 urtetik gorakoendako omenaldia antolatu du. Parte hartzeko izena eman behar da hilaren 18a baino lehen. BAZera joan behar da, eta nortasun agiria erakutsi.

DONOSTIA
**> Uned-Bergarak, hitzaldi informatiboa**
Bergarako Uned unibertsitateak bere eskaintza formatiboaren berri emango du hilaren 17an, martitzena, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, 19:00etan.

ARETXABALETA
**> Sahararen aldeko dantzaldia eta bingoa**
Sahararen aldeko dantzaldia eta bingoa antolatu dute Iesbaa eta Jaiki elkarteek gaurko, Durana kalean, 18:00etatik 20:30era. Dantza egiptoarrak, ekialdekoak eta Saharakoak egingo dituzte, eta segidan, bingoan jokatzeko aukera egongo da.

ANTZUOLA
**> Haurreskolan matrikula egin daiteke**
Antzuolako haurreskolan urrian hasteko matrikula egin daiteke. Argibideak, haurreskolan, 13:00-14:30.

ARRASATE
**> Bi ziklo berri Arizmendiren Lanbide Heziketan**
Arizmendi ikastolaren Lanbide Heziketak bi ziklo berri izango ditu datorren ikasturtean: Obra eta Planen Burutzapena eta Arreta Sozio-sanitarioa. Horiekin batera, orain arteko lau zikloak ematen jarraituko dute. Matrikula egiteko epea gaur, egubakoitza, bukatzen da.

ARRASATE
**> Geriatria laguntzaile ikastaroa, astelehenean**
Arizmendi ikastolaren Lanbide Heziketa Inemek diruz lagundutako geriatria laguntzaile ikastaroa ematen hasiko da astelehenean, ekainak 16. 315 orduko ikastaroa da.

ARRASATE
**> Arrasate Rugby Taldeko zozketa**
Joan den aste bukaeran, zozketa egin zuen Arrasate Rugby Taldeak, eta hauek dira zenbaki saridunak: 1.070, 554 eta 852. Saria da agroturismo baten aste bukaera bat. Argibideak: *www.arrasaterugby.eu/web/arrasaterugby/eus/index.asp*.

BERGARA
**> Udarako irteerak 12-18 urte artekoendako**
Honako irteerak antolatu ditu Udalak: Ebro ibaian raftinga (13-18 urte), Arcachongo Aquaparkera (12-18 urte) eta kanoa zeharkaldia Urdaibain (12-18 urte). Izenemate epea zabalik dago.Argibideak: 943 77 91 00.

ARRASATE
**> Udarako bi ikastaro trinko dago AEKn**
Udarako bi euskara ikastaro trinko antolatu ditu AEK euskaltegiak, 16 urtetik gorakoendako. Uztailean eta irailean izango dira, hilabete bakoitzean hiru astean, egunero hiru orduan. Argibide gehiago, 943 77 03 69 telefonoan edo *arrasate@aek.org* posta elektronikoan.

ARRASATE
**> 1958an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1958an jaiotako arrasatearrek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 8an, Baster-Alde jatetxean. Parte hartzeko, 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 57 0010112788.

BERGARA
**> Lehen Hezkuntzako umeendako udalekuak antolatu ditu Jardun euskara elkarteak**
Antxintxika izeneko udalekuak antolatu ditu Jardunek. Irailaren 1etik 4ra izango dira, Hondarribian. Bergarako Lehen Hezkuntzako edozein umek eman dezake izena, eta izenemate epea zabalik dago ekainaren 27a arte. 52 euro da; Jarduneko bazkideendako, berriz, 49 euro. Argibideak: 943 76 36 61.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Garraiolarien greba dela–eta, hartu duzu neurri berezirik?



**Rakel de Diego**
Langilea
Arrasate

Greba dela eta, ez dut normalean baino janari gehiago erosi, baina egoera ikusita, ez dakit zer esan. Autoko erregaia ere erdian daukat. Ez nuen uste hainbesterako izango zenik.



**Saioa Beltran**
Langilea
Arrasate

Ez dut normalean baino janari gehiago erosi. Gainera, autoan erregaia ere beteta daukat, lanera joateko garraio publikoa erabiltzen baitut. Esnea eta babarrunak etxean izanda, ez dago arriskurik.



**Sonia Mateos**
Langilea
Arrasate

Bai janaria eta baita erregaia ere, normalean baino gehiago erosi ditut. Gaur, gainera, hasi gara nabaritzen lantegian grebaren lehen ondorioak, kamioi batzuk ez direta lantegira etorri.



**Salvador Mena**
Erretiratua
Arrasate

Ez. Betiko moduan erosi ditut bai erregaia eta baita janaria ere. Beharbada, jendea behar baino urduriago jartzen hasi da egoera honegatik guztiagatik; horregatik, dendetako apal asko hutsik daude.



**Kepa Altube**
Langilea
Arrasate

Normalean, astean zehar erosten dudana erosi dut. Erregaia ere badaukagu autoan. Nire ustez, garraiolariek badauzkate arrazoiak greba egiteko, baina jendearengan ezinegona sortu du.

txistuak



GOIENKARIA

## Oinezkoendako den kalean, autoak

Arrasateko irakurle batek bidali digu aste honetako kexa. Ferrerias kalea oinezkoendako da, baina beti auto pila bat egoten da bertan aparkatuta. Kalearen goiko aldean pibote bat zegoen autoak bertatik ez pasatzeko, baina denbora da ez dagoela, eta autoak kale barrura sartzen dira. Horrek arazoak sortzen ditu zabor-biltzaile edo kamioiren bat pasatu behar denean.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 25

Horiek dira Bergarako Udal Euskaltegiak bete dituen urteak. Urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte; horien artean, ekainaren 20an egingo duten afaria. Udal Euskaltegiak 82-83 ikasturtean zabaldu zituen ateak, eta orain arte, 6.000 ikasle inguru pasatu dira bertatik.

usteak uste

Ubane Madera

## Duina ez den lan mota ugari gurean

Nahikoa gogorra da egunero lanera joan beharra, lan horren baldintzak askoz gehiago gogortzeko. Gehienok kexatzen gara halakoetaz, baina badira batzuk arrazoi handiagoa dutenak.

Adibidez, Arrasateko Kuiskar lantegiko langile ohiak. Zazpi urte eta gero, lantegia itxi eta kalean geratu dira 33 emakumezko eta lau gizonezko. Zenbat emakume, ezta? Bada, bai. Izan ere, badira lanbide batzuk (baldintza okerrak dituztenak, gehienak) bereziki emakumeek egiten dituztenak. Esaterako, inguruko lantegi handi batzuek, lana kanpora bidali guran, norbait azpikontratatu egiten dute, eta norbait horrek (gizonezkoa, jeneralean) beste langile batzuk kontratatzen ditu (emakumezkoak, jeneralean) lan hori egiteko, jakina, lantegi handietako langileak baino baldintza dezente eskasagoetan. Seguru guztiok ezagutuko dituzuela halako kasuak.

Eta halakoak gutxi balira, gainera orain 65 orduko lan-jardunarekin datoz Europako agintari eskuindar neo-liberalak…

Datozen seme-alabek "eskerrak" eman beharko dizkiete euren hezkuntzaz arduratzeko gurasoei utziko dieten denbora librearengatik. Eta pertsona nagusiek ere bai, jakina.

5 galdera...

# Oiartz Garitaonandia

Urrats podologiakoa
Oñati

**1. Igerileku eta hondartzara joateko garaia iritsi da. Garai honetan oinek asko sufritzen dute, ezta?**

Bai, asko sufritzen dute; batez ere, hondartzara joatean. Azala asko lehortzen da, eta ez dugu ohiturarik larruazala hidratatzeko kremarik emateko orpoan. Bestalde, igerileku eta hondartzetako dutxa inguruetan, hezetasuna handia da, eta arriskua dago gaixotasun fungiko eta birikoak hartzeko.

**2. Egia da onddoak igerilekuan bakarrik har daitezkeela?**

Ez, igerilekuetan bakarrik ez, inguru hezea dagoen edozein tokitan dago aukera; batik bat, aldageletan, dutxetan... Bestalde, oinak, behatz inguruak batez ere, ondo lehortzeko ohitura ez badago eta asko izerditzen duten pertsonak badira, aukera gehiago izaten dute.

**3. Hala ere, jendeak gero eta gehiago zaintzen ditu oinak?**

Poliki-poliki, jendea gehiago akordatzen da oinak zaindu behar direla, baina oraindik ere jende asko dago ez dituenak behar beste zaintzen, batez ere, pertsona nagusi asko.

**4. Nortzuek hartzen dituzte onddoak errazago: pertsona helduek ala haurrek?**

Haurrek arrisku handiagoa izaten dute, hormona aldaketak direla-eta izerdi gehiago botatzen dutelako. Toki hezeetan denbora luzeagoa egoten dira, askotan txankleta barik. Horrek arriskua handitzen du. Pertsona heldu batzuek zailtasunak izaten dituzte oinetara ondo heltzeko, eta ez dituzte ondo lehortzen.

**5. Ze gomendio emango zenituzke oinak osasuntsu mantentzeko?**

Batik bat, higiene ona izatea eta egunero garbitzea, batez ere, behatz tarteak eta oin azpia. Baita zuntz naturaleko galtzerdiak erabiltzea eta oinak hidratatzea ere, baina, hori bai, inoiz ez behatz tarteak.




Ezker Batuko ordezkariak, Zutik alderdikoarekin: osoko bilkuran: Julia Monje, Joseba Ugalde eta Ander Rodriguez. GOIENKARIA

**POLITIKA** > PSE-EE-REN ZENTSURA MOZIOA

# Programa beharrezkoa, mozioa babesteko

PPk eta EAJk izan ezik, gainerakoek uste dute programa aurrez adostu behar dela zentsura mozioa babesteko

**UBANE MADERA**> ARRASATE
Azken orduko aldaketarik izan ezean, PSE-EEk proposatutako zentsura mozioak ez du aurrera egingo Arrasaten. Izan ere, Ezker Batua-Berdeak alderdiko presidentziak iragarri du ez duela babestuko. Horrek esan gura du PSE-EEk ez duela lortuko zentsura mozioa aurkezteko beharrezkoa duen gehiengoa: 11 boto.

Astelehenean aurkeztu zien PSE-EEk proposamena gainerako alderdi politikoei, eta hamar eguneko epea finkatu zuen, erantzunak batzeko. Baina dagoeneko, EBz gainera, beste alderdi guztiek jakinarazi dute euren jarrera GOIENKARIAn.

**EB: PROGRAMA BEHARREZKOA DA**
Ezker Batuak emandako azalpenei dagokienez, labur esanda, diote ez dutela hitzarmenik adostuko baldin eta zentsura mozio proposamenak ez badauka oinarri moduan "herritarren ongizateari erantzuna emango dion gobernu programarik", eta udalerriko gehiengoaren "adostasunik". Hori dela-eta proposatzen dute "elkarrizketa mahaiak" sortzea, "gobernagarritasuna eta elkarbizitza plurala" lortzeko.

Gaineratu dute ez dutela babestuko "zatiketa eta konfrontazio" handiagoa ekarriko lukeen ekimenik. Diote bakarka erabakitzea mozioak, hautagaia aldez aurretik aurkeztea eta epe-mugak ipintzea ez dela "bakea, normalizazioa eta pertsonen ongizatea bilatzen laguntzeko" elkarrizketa bultzatzeko modurik onena.

**EAJ: BAI, BAINA...**
Momentuz baiezko bakarra dute seguru: PPrena. Izan ere, EAJk ere baiezko botoa iragarri badu ere, baiezko hori ez da erabatekoa. Luis Mari Apraitz bozeramailearen azalpenen arabera, EAJk "konpromisoa" hartuta dauka "mozioa babesteko", baina gaineratu du ikusita *mozio etikoak* ez zirela atera, PSE-EEri eskatu diotela "lehenengo lanak gainerako alderdiekin adostasuna lortzea" izan behar duela. "Ez dugu alferreko pausorik eman gura, krispaziorik ez eragiteko", dio.

**PSE-EE: UDAL PROGRAMA, GERO**
Sozialisten izenean, berriz, Paco Gartziak esan du udal programa landuko dutela, baina zentsura mozioa onartu eta gero: "Ziurta nezake udal programa adostuko dugula, ez dut horretarako batere zailtasunik ikusten; baina une honetan dagoen programa bakarra da demokraziaren, askatasunaren eta etikaren defentsa".

**"AURRE-KANPAINAN" DABILTZA**
Azkenik, ezker abertzalearen ustez "alderdien interesei" erantzuten die zentsura mozioak, eurak politikatik ateratzeko helburuarekin. Diote alkatea kartzelan sartzearekin "nahikoa ez" eta orain "herrian samindura eta haserrea" handitu behar dutela eta "normalizaziorako borondatea" erakutsi beharrean, "aurre kanpainan buru belarri" dabiltzala.

Eta nabarmendu nahi dute"Arrasateko Udal Gobernuaren kontrako jazarpena egunerokotasunean aurrera" daramatela.

GAINERAKO ALDERDIEN IRITZIAK

**Itziar Lamarain**
PP-KO BOZERAMAILEA

### "Ez da aterako EAJk ez duelako intentziorik"

"Esan nuen babestuko nuela. Baina esan nuen, baita ere, ez zuela aurrera egingo. Ez da aterako, ez bakarrik hainbat alderdik ipini zituzten oztopoengatik (EA eta EB), baizik eta EAJk ere ez duelako batere intentziorik. Eurek jakingo dute zergatik landu ziren *mozio etikoak* eta zein akordio hartu zituzten. Ezin dute esan besteok ez dugula esandakoa bete".

**Pello Urizar**
EA-KO BOZERAMAILEA

### "Bermatu behar da gutxieneko gobernua"

"Arazoa da zentsura mozioak zer dakarren aztertu behar dela erabakia hartu baino lehen. Kontuan hartuta legealdiaren hiru laurdena geratzen dela oraindik, bermatu behar da herriak gutxiengo gobernua izan dezala eta herriak funtziona dezala. Gure gutxieneko hausnarketekin ados ez dauden bitartean, zentsura mozioa aurrera eramateko ez gaude gertu".

**Joxe Etxeberria**
ARALARKO BOZERAMAILEA

### "Bake bidean ez da inor baztertu behar"

"Diote demokratek egin behar diegula demokratak ez diren batzuei aurre; ez dut horrela ulertzen. Estatutua 30 urte dela onartuta dago, eta hori betetzeko gauza ez denak hori demokrazia dela esaten badu… Eta demokrazian legeak momentuan euren beharretara aldatzen joatea… *Mozio etikoa* dela-eta, adierazi genion bake bidean ez dela inor baztertu behar".

**ENPRESAK** > KUISKAR

# Zorretan utzitakoa eskatuko diete Kuiskar enpresakoei

Azken urteotan galerak izan eta gero, ateak itxi zituen martxoan Kuiskarrek

**U.M.** > ARRASATE
Kuiskar enpresako langile ohi gehienen izenean astelehenean du aurreneko kontziliazio batzarra ELA sindikatuak Musakolan zegoen lantegia gestionatzen zuen enpresariarekin, zorretan utzi dietena eskatzeko. Martxoaren 31n itxi zituen ateak Kuiskar lantegiak, ordainketen-etendura iragarri ostean. Eta 37 langile geratu ziren kalean, 33 emakume eta lau gizonezko, hain justu, eta euretariko gehienak enpresa horretan zazpi urte lanean ibili eta gero. Kalean geratzeaz gainera, momentuz ez dute kalteordainik kobratu eta, gainera, hainbat lansari zorretan utzi zieten Kuiskarreko kudeatzaileek. Halaxe salatu du ELA sindikatuak –sindikatu nagusia Kuiskarren– eta baita langileen ordezkari lanetan ibili ziren hainbat ordezkarik ere: "Urtarrilean 500 euro bakarrik ordaindu ziguten, martxoan ez ziguten ezer ordaindu eta oporrei dagokien zatia ere ez dugu kobratu".

Hori guztia erreklamatuko dute, beraz, asteleheneko kontziliazioan. Dena den, ez doaz esperantza handiarekin. Hala dio Alfonso Moyak, ELAko ordezkariak: "Enpresariak esango du ez dagoela dirurik; beraz, Fogasara jo beharko dugu, soldata fondora, eta horrek asko luzatuko du kontua".

**MULTINAZIONALA GAINEAN**
Bestalde, Kuiskarren itxiera lantegiaren kudeatzaileak egindako "kudeaketa benetan txarraren" ondorio dela salatzeaz gainera, kalean geratu diren 33 emakumeek salatu gura izan dute, baita ere, Kuiskar lantegiari lana ematen zion enpresaren jarrera: "Tesa-Assa Abloy multinazionalak ematen zigun lana. Erraldoi horrek, gure ugazabak fabrika modu patetikoan gestionatzen zuela aprobetxatzuz, erditik kendu gaitu, urteko eskaintza eginez; lanean segitu ahal izateko, gure eskubide guztiei uko egin behar genien: kalte ordainei, soldatei… Ez genuen onartu".

> DANTZARIEN EGUNA

### Bederatzi herritako dantzariak izangho dira domekan Arrasaten, Haur Dantzarien Egunean

Domekan Haur Dantzarien Eguna ospatuko da Arrasaten. Etorriko diren dantza talde guztiak zehaztu dituzte arazoak izan dituzten arren lan honetan. Honako herri hauetako dantzariak izango dira: Aretxabaleta, Oñati, Soraluze, Antzuola, Legazpi, Zornotza, Zangoza, Mugerre (Iparraldetik datoz) eta Arrasate. Antolatzaileek aipamen berezia egin nahi izan dute eguraldi txarra eginez gero -ez litzateke lehen aldia izango- arratsaldeko saioa Uarkapen izango dela.

> HEZKUNTZA

### Lanbide Heziketak zikloen eskaintza handitu egin du datorren ikasturteari begira

Arizmendiko Lanbide Heziketak bi ziklo berri eskainiko ditu datorren ikasturtean: *Obra eta Planen Burutzapena* (goi mailakoa) eta *Arreta Sozio-sanitarioa* (erdi mailakoa). Bi horietan zein Arizmendik eskaintzen dituen gainerako lau zikloetan aurre-matrikulatzeko epea gaur, egubakoitza, bukatuko den arren, aurrerago ere zabalduko dute matrikulatzeko epea. Bestalde, astelehenean hasita, *Geriatrian laguntzailea* ikastaroa egingo dute, 315 ordukoa.

> EUSKARA

### EGA maila lortzeko eta berba egiten laguntzeko ikastaroak eskaintzen ditu AEK euskaltegiak

Ekainaren 20an bukatuko da AEK-k udarako antolatu dituen ikastaro trinkoetan izena emateko epea. Uztailean eta irailean izango dira ikastarook, hiru astean, egunero hiru orduz. 16 urtetik gorakoei daude bideratuta. Ikastaroetako bat EGA maila lortzen laguntzeko antolatu dute, eta, besteak beste, azterketa errealak erabiliko dituzte. Beste ikastaroa, berriz, euskara jakin arren erabiltzeko ohitura gutxi edo zailtasunak dituztenei begira antolatu dute.

**ZERBITZUAK** > UDAL AZOKA

# Udal Azokaren egoera aztertuko du Udalak

Udal azokaren gaur egingo instalazioak eta kudeaketa bera zelakoak diren aztertu gura du Udalak, haren erabilera indartu guran

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Udal Azoka zelan birmolda daitekeen aztertu behar dela erabaki du Udalak oraingo astean. 35.000 euro bideratuko ditu lan hori egiteko. Eta behin azterketa zeinek egingo duen erabakita, hiru hilabeteko epean izango du emaitza Udalak.

**INSTALAZIOAK ETA KUDEAKETA**

Emandako azalpenen arabera, bi ikuspuntutik gura dute egin azterketa hori: batetik, Udal Azokaren instalazioen gaineko azterketa egin gura dute; eta bestetik, Udal Azokaren gestioaren gaineko azterketa.

Beste era batean esanda, ikusi gura dute zein den instalazioen egoera, jakiteko ea instalazio horiek egokiak diren daudenetan, berrikuntzarik behar duten edo instalazio horiek barik beste zerbait egokiagoa litzatekeen.

Eta bestetik, gura dute aztertu gaur egun Udal Azokan zein motatako eragile edo saltoki dauden; hau da, zein ezaugarri dituzten han dauden saltokiek eta ea beste zerbitzu motaren bat ipintzea egokia izango litzatekeen Udal Azoka berpizteko.

Kontua da Udal Azokan geroago eta saltoki gutxiago dagoela zabalik eta han ibiltzen den herritarren joan-etorria ere geroago eta txikiagoa dela. Udaletik esandakoaren arabera, saltoki asko itxita egotearen arrazoi nagusia da gutxinaka batzuk erretiratu egin direla eta ez dutela erreleburik lortu.

**46 SALTOKI ETA 50 MAHAITXO**

Gaur egun 46 saltoki edo postu daude Udal Azokan. Horietatik 18 postu finkoak dira; hau da, urte luzerako kontzesioan emandakoak dira. Eta postu finkoen artean, 11 hutsik daude eta zortzi okupatuta. "Okupatuta dauden gehienak goizez bakarrik egoten dira. Postu finkoen artean harategiak, arrandegi bat, txarkuteriak eta halakoak daude", azaldu dute Zerbitzu Sailetik. Dauden postu finkoek 2010era arteko kontzesioa dute, orain dela 18 urte emandakoak –kontzesioa laster bukatzen delako erabaki du Udalak orain egitea azokaren azterketa.

Postu finkoekin batera, beste mota bateko postuak ere badira: bereziak. Halako 28 postu daude, 11 hutsik eta 17 okupatuta. "Eguazten eta egubakoitz goizetan egoten dira. Produktu ekologikoak, fruta eta barazkiak, olibak, piperrak, kontserbak eta halako produktuak izaten dituzte".

Eta bukatzeko, baserritarrendako beste 50 mahaitxo daude egokituta udal azokan. "50 izen ditugu apuntatuta, baina ez dira guztiak etortzen. Produktuak ugaltzen direnean gehiago etortzen dira. Baserritarren kasuan, gainera, Arrasatekoek ez dute ezer ordaindu behar".

**SANJUANAK 2008** > UMEEN DANBORRADA

# Sarriegiren doinuak gaztetxoen eskutik

**U.M.** > ARRASATE

Danborrak gertu, jantziak ere bai eta, jakina, ilusioa irten nahian dutela, 300 bat neska-mutikok Arrasteko kaleak *hartuko* dituzte, bihar, zapatua, umeen danborradan.

Nafarroa etorbidetik irtengo dira, ohi duten moduan, 19:00etan, eta, 11 konpainiatan banatuta, Sarriegiren doinuak lau haizetara zabalduko dituzte. Garibai etorbidea, Maala eta Erdiko kaletik pasa eta gero, Herriko Plazan bukatuko dute ekitaldia, 21:00 inguruan.

Bestalde, aurtengo banderadunak ere izendatu dituzte, beheko argazkiko gaztetxoak, hain zuzen ere. Ezkerretik eskumara: Oihane Iborra (Arrasateko bandera), Laura Balantzategi (ekitaldia antolatzen duen SUDC elkarteko bandera) eta Anixe Uribarren (ikurrina). Azkenik, jenerala Julen Larrañaga izango da.



Banderadunak, urtero egiten duten aurkezpen argazkian. GOIENKARIA

**AISIALDIA** > TXATXILIPURDI ELKARTEAREN UDALEKUAK

# Gurasoendako batzarrak, udalekuak direla-eta

Ekainaren 16tik 19ra bitartean izango dira udaleku ireki eta itxien gaineko batzarrak

**U.M.** > ARRASATE

Udaleku ireki eta itxietan izena eman duten umeen gurasoekin batzarrak egingo ditu Txatxilipurdik astelehenean hasita. Hain zuzen, udaleku irekiei dagokienez, astelehenean, 18:00etan, San Andresen izena eman duten neska-mutikoen gurasoek dute hitzordua, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian. Martitzenean, berriz, erdialdekoen txanda izango da, ordu eta leku berean. Eta bukatzeko, Musakolako gurasoek eguenean dute hitzordua, 18:00etan, Santa Marinako ludotekan.

Udaleku itxietako umeen gurasoei dagokienez, berriz, eguaztenean eta eguenean izango dituzte batzarrak. Eguaztenean, 18:30ean Txatxilipurdiko arduradunak Kosta Ala Kosta izeneko udalekura doazen gazteekin elkartuko dira. Eta 19:15ean, berriz, haien gurasoekin. Eguaztenean, baita ere, Askixu udalekuetara doazen gurasoekin egingo dute batzarra, 18:00etan, Kulturaten. Eta eguenean, 18:00etan, Orioko lehen txandara doazen gazteen gurasoekin egingo dute batzarra eta 19:00etan, bigarren txandakoekin.

> GIZARTEA

### Gay, lesbiana eta transexualen egunaren harira hainbat ekimen izango dira Arrasaten

Ekainaren 28a badatorrela-eta –Gay, Lesbiana eta Transexualen Harrotasun Eguna–, hilaren 17tik 22ra bitartean Aldarte elkarteak antolatutako erakusketa izango da Kulturateko klaustroan. *Bidean: ezkutukotik ikusgarritasunera, 1977-2007* izenburua du erakusketa horrek. Eta eguenean erakusketa ikustera doazenek bisita gidatua egin ahal izango dute, 19:00etan, Ana Ureta Aldarteko kideak lagunduta.

> EUSKARA

### Udal Euskaltegiaren udako ikastaroetan izena emateko epea eguaztenean bukatuko da

Bost euskara ikastaro eskainiko ditu aurten: EGA; HABEko 1., 2. eta 3. mailak (homologatuta); mintzamena; Arrasateko euskalkia; hitanoa eta darabilgun euskara hobetzeko ikastaroa: okerrak zuzendu, hiztegia aberastu eta halakoetarako. Izena emateko euskaltegiko bulegora jo behar da, Arimazubi plazan, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Jakinarazi dute bekak ere badituztela.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74




Iaz Gaztetxean egin zituzten kontzertuak euri zaparraden erruz. 2006an, irudian ikusten denez, giro aparta izan zen Monterronen. GOIENKARIA

## Kontzertuak

**17:00etan**
**Dat:** The Convicts
**Kajoi/Itzala:** Dragoialde txaranga
**Gaztetxea:** Last Rebels
**Monte:** Muskaria
**Ederra:** Sweet Rockers
**Taupa:** Shaggy Daddy & The Troublemakers
**Jai-Zale:** Bitz

**18:00etan**
**Ostantz:** Material Rechazado
**Ekaitz:** Foxy Boxxi
**Basati:** Xasta
**Irati:** Ihesbide
**Dat:** Eskupitajo Punk
**Etxoste:** Cri D, Alerte
**Gaztetxea:** Kruders

**19:00etan**
**Iturriotz:** Los Cretinos
**Etxerat:** Bertso saioa
**Gure-Leku:** Aggressive Combat
**Haizea:** Nealta Fola
**Iluntz:** Sala, Alkor & Agina

**04:00etan**
**360 aretoa:** Beñat Silum suondz

**Gaueko kontzertu handiak**
22:00etatik aurrera, Monterron parkean: The 5 Twisters, Never Surrender, Frontkick eta Peter & The Test Tube Babbies.

Antolakuntzak informazio gehiagoren berri, honako helbide honetan emango du: *www.myspace.com/elkartasuneguna*

**JAIA** > ELKARTASUN EGUNA

# Elkartasun Eguna aldaketa eta berrikuntzekin dator aurten

Hiru gune nagusitan banatuta, kontzertuak eta herri bazkaria dira ekintza nagusiak. Egitarau oparoa gertatu dute; orain, eguraldiak elkartasuna adieraztea bakarrik geratzen da

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Portaloira plataformak hirugarrenez antolatu du presoen aldeko Elkartasun Eguna, eta, aurreko bi edizioetan bezala, aurten ere egitarau anitza eta zabala osatu du. Askotarikoa, zabala, eta aldaketez josia. Aldaketa aipagarriena manifestazioaren ordu aldaketa izan da. Nagusien Danborradagatik 13:00etan izango da eta, horrek, arratsaldeko tabernetako kontzertuak egiteko denbora luzatzea ekarri du.

**BITERI PLAZA**

Egitarau osoa hiru gune nagusitan banatu dute Portaloirakoek. Hala, Biteri plazan, herriko tabernetan eta Monterron parkean kokatu dute 2008ko Elkartasun Egunaren bihotza.

Biteri Plazan, umeen txokoa, herri kirolak eta herri bazkaria izango dira. Txikienentzat puzgarri, tailer eta ipuin kontalariak izango dira. Herri kirolei dagokienez, berritasuna dator aurten: koadrilak lehiatu beharrean, Portaloirakoek trontzalari eta aizkolari profesionalak ekarriko dituzte. Aldi berean, bazkari herrikoia lekuz aldatu dute, baina baita antolaketa modua ere. Aurten, antolakuntzako lantalde baten ordez, *catering* enpresa bat arduratuko da bazkaria egiteaz. Menua: Patatak txorizoarekin, oilaskoa eta goxua. Txartelak Irati, Taupa eta Monte tabernetan daude salgai, 12 eurotan. Hala ere, interesatua mugi dadila, urtero legez txartel gutxi geratzen dira-eta.

**TABERNAK ETA MONTERRON**

Antolakuntzaren ustez, bestalde, herriko tabernen jarrera "txalotzekoa" izan da. Harreman ona dago bi aldeen artean, eta horrek jaialdia sendotu egiten duela deritzo Portaloira plataformak. Era berean, Arrasateko musika taldeen inplikazioa ere goraipatu dute, eta, esker modura, Arrano elkartean afaria prestatuko diete.

Gauean helduko da jaialdia bere punturik gorenera. Monterron parkea lepo beteko da 22:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, gaztetxean izango dira kontzertuak, iaz bezala.

Azkenik, Portailora elkartekoek beste bi edizioetan arrasatearren jarrera "txalotzekoa" izan dela uste dute. Hala, jarrera hau mantentzeko deia luzatu dute. Hau da, istilurik gabe, ekitaldietan parte hartu eta ondo pasatzea da helburua.

## Presoen "eskubideen urraketa" gertatzen dela salatuko dute, besteak beste, bihar

Kartzelatan 17 preso arrastear daude, eta askok "eskubide urraketak jasaten" dituzte. Hala salatu zuen Portaloira Topaguneak III. Elkartasun Egunaren aurkezpenean. Adibideak eman zituzten: "Espetxe politikaren adibide garbi bat da Jon Agirre. Maiatzaren 11n 27 urte bete baititu espetxean. Gaixotasun larriak eduki arren 92. artikulua ukatu eta bizi osoko doktrina aplikatuz, bahituta dute Langraitzen. Bere zigorraren 3/4ak bete zituen arren, 2011ra arte bahituta eduki nahi dute".

Esan zuten, baita ere, Josu Uribetxeberriari ere ukatu diotela 92. artikulua –gaixoak aske uztea– eta Luis Mari Azkargorta *Kanto* rieta eta Jose Inazio Gaztañaga *Gazta*, berriz, "bizi osoko zigorraren doktrina" aplikatu dietela eta sakabanatuta daudela.

Bestalde, salatu zuten Arrasateko zortzi presok dutela zigorraren 3/4 beteta dutela, baina orain "zigorra betetzean bizi osoko zigorra aplikatzearen mehatxupean" daudela. Eta horrekin guztiarekin batera, datu bat ere eman zuten: "Dispertsioaren eraginez, asteburuero herriko seme-alaba horien senide eta lagunek 21.486 km egin behar dituzte 40 minutuko hizketaldi bat edukitzeko". Eta oro har, Amnisitaren Aldeko Mugimenduko hainbat kideren kontra egiten dabiltzan epaiketa ere salatu zuten.



Hainbat taldek babestuta aurkeztu zuten Elkartasun Eguna. MONDRABERRI

# Iturrieta Sagardotegia







Bertako sagardoa

Ekainaren erdialdetik aurrera hasierako jabeekin berriro

Hamarretakoak (asteburuetan)

Plater konbinatuak

Sagardotegiko menua

Menu bereziak

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593




25 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro.
HABEko diplomak. Pertsonalizatutako ordutegiak. Bekak...

08 ikastaroa

matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza
Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

HABEren dirulaguntzaz



2008
Udako euskara ikastaroak

**ESKAINTZA**
- EGA
- HABEko 1.,2. eta 3.mailak. HOMOLOGATUTA.
Irailean azterketa ofizialak
- Mintzamena
- Leintzeko euskalkia
- Darabilgun euskara hobetu: okerrak zuzendu, hiztegia aberastu...
- Hitanoa

**MATRIKULA EPEA**
Ekainaren 2tik zabalik

**IKASTAROAK**
Uztaila eta irailean

**BULEGO ORDUTEGIA**
Goizez: 10:00-13:00 / Arratsaldez: 15:00-18:00

Arratsaldez:
15:00-18:00

**Beka sistema daukagu.**
**Informa zaitez Euskaltegian.**

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

ATLETISMOA > EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO TXAPELKETAK

# Kadete mailako hiru atleta Euskadiko selekzioarekin

Murtzian egingo dute Lurraldekako selekzioen txapelketa

Axpe, Dorronsoro eta Uribarren izango dira lehia horretan

Euskadiko Txapelketan, bestalde, Arrasateko bost atleta izango dira

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Oraingo asteburuan bi hitzordu nagusitan ibiliko dira buru-belarri Arrasate Atletiko Taldeko ordezkariak. Batetik, Aguilasen (Murtzia) egingo dute kadete mailako Lurraldekako Espainiako Txapelketa, eta Euskadiko selekzioan Arrasateko hiru ordezkari izango dira: Maialen Axpe (pertika jauzia), Eukene Dorronsoro (300 metroko lasterketa), eta Iñigo Uribarren (salto hirukoitza).

Atleta horiek, gainontzeko taldekideekin batera, atzo bertan hartu zuten Murtziarako bidea, eta domekara arte izango dira han.

**EUSKADIKOA DURANGON**

Horrekin batera, bihar eta etzi egingo dituzte Durangon Euskadiko Txapelketa absolutuak. Hor, gutxieneko markak gainditu dituzten atletek hartuko dute esku, eta Arrasatek bost ordezkari izango ditu: Remi Diosdado (100 eta 200 metroko lasterketetan), Markel Blanco (800 metrotan), Jonathan Perez (pertika jauzian), Oihane Urtzelai (luzera jauzian) eta Lore Mar (pertika jauzian).




Domekan Bidasoak eskuratutako garaipenean parte hartu zuten Arrasateko atletak: Oihane Urtzelai, Eukene Dorronsoro, Maialen Axpe eta Lore Mar. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

**ESPAINIAKO TXAPELDUN**

Bestalde, joan den asteburuan lorpen garrantzitsua erdietsi zuten Bidasoa Atletiko Taldeko neskek. Lehen mailako kluben arteko lehian onenak izan ziren, eta klub horrendako talde filial moduan lan egiten duen Arrasatek lau atleta eraman zituen txapelketara: Lore Mar, Maialen Axpe, Oihane Urtzelai eta Eukene Dorronsoro. Lau atleta horiek lortutako puntuak garrantzitsuak izan ziren Bidasoaren garaipenean.

MENDIKO BIZIKLETA > IRTEERA

# Araotzeko kanaletara, bihar

Besaidek bizikleta irteera antolatu du biharko; 09:00etan irtengo dira Garibaitik

**X.U.** > ARRASATE

Urrun joan barik, Besaideko lagunek mendiko bizikleta irteera antolatu dute bihar, zapatua, goizerako. Aste barruan izenak hartzen ibili diren arren, izena eman ez duen edonork ere hartu ahal izango du bihar esku irteera horretan, nahikoa da 09:00etarako Arrasateko Garibaiko geltokira azaltzearekin.

**IRTEERA DOAN IZANGO DA**

Hori bai, kontutan hartu biharko bizikleta irteerarako Besaidek ez duela apartekorik prestatu: ez da jatekorik eta edatekorik emango –norberak eraman beharko du beharrezko guztia–, ez da segururik izango, eta noski, debaldeko irteera izango da. Hau da, lagun artean elkartu eta mendiko bizikletarekin goiz pasa ederra egiteko asmoarekin egin dute hitzordua, aparteko ezer antolatu barik.

Ibilbideari dagokionez, antolatzaileek onartu dute zeharkaldi nahiko zorrotza dela: "Lehenik eta behin Usakoraino joango gara. Handik Araotzera, izan ere, zentral hidroelektrikotara ura eramateko dauden kanal inguruetan bizikletarekin ibiltzeko bide ederrak daude. Itzulerako bidea Ugastegira igota egingo dugu, eta handik Urkulura jaitsiko gara". 50 kilometro inguru dira; ibilbideko edertasunak merezi du.



Urkobtt-ko lagunek Araotzen ateratako erretratua *(www.urkobtt.com)*. GAUEKO

ZALDIBAR > FINALERDIAK

# Zaldibarko finalerdiak dira bihar, 17:00etan hasita

**X.U.** > ARRASATE

Dribling, Cipris, McAwen Dauen eta Lasagabaster dira Zaldibarko txapelketan bizirik irauten taldeak, joan den astean final-laurdenak gainditu zituztenak. Bihar, 17:00etan jokatuko dute Driblingek eta Ciprisek lehenengo finalerdia eta ondoren etorriko da (18:00) McAwen Dauen eta Lasagabasterren arteko partidua.

**JOKALARI ONENAK**

Horrekin batera, antolatzaileek dagoeneko aukeratu dituzte uteko jokalaririk onenak: Oscar Sanchez *Pecho* (Dublin), Joseba Errasti (Cipris), Iker Leibar (McAwen), Juan Pablo Morillo (Betrayer), Ronald Blanco (Lasag.), eta Asier Manso (Dribling). Goleatzaile onenaren saria, berriz, Julen Ribasendako izan da (McAwen).



kanpotarrak Arrasaten

**Piero Giammarino** > Italiarra
Arrasaten bizi da

# "Napoli ez da bizitzeko hiri erraza, biolentzia asko dago"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Napoliko hiritik gertu jaio zen Tiero Giammarino orain 28 urte. Arrasaten lurreratu izanaren arrazoi nagusia amodioa izan da Giammarinorentzat, neskalaguna arrasatearra dueta. Gurean 14 hilabete eskas daramatzan arren, ez du bere herrialdera itzultzeko inongo asmorik.**

Piero Giammarino oso pozik bizi da Arrasaten. Donostia inguruan egiten du lan, oraingoz. Haren esku balego, Arrasaten egingo luke, baina oraingoz, "dagoena dago". Bizitzera etorri aurretik Euskal Herria ezagutzen zuen eta hemen bizitzeko aukera suertatu zitzaionean ez zuen bitan ere pentsatu. Herrian ondo integratu da, eta horretan, aurretik hemengo jendea ezagutzeak berebiziko garrantzia izan du harendako: "Heldu aurretik neskalaguna eta haren familia ezagutzen nituen eta horrek asko lagundu dit herrian integratzeko orduan".

**"Hemengo lasaitasuna da han falta zitzaidana. Ez nintzateke ezergatik bueltatuko; ahal badut, hemen biziko naiz"**



Piero Giammarino.

**HEMEN, HAN BAINO LASAIAGO**

Bere jaioterriaz mintzatzeko orduan, nahiko hitz gogorrak erabili ditu Giammarinok: "Napoli turista moduan joateko hiri atsegina eta erakargarria izango da, baina bertan bizitzeko ez da hiri erraza". Biolentzia eguneroko ogia omen da han: "Segurtasun falta handia dago Napolin, indarkeria ohikoa den zerbait da".

Euskal Herriarentzat hitz politak bakarrik ditu Giammarinok: "Euskal Herria oso lasaia da, nor bere bizitzaz arduratzen da, inorekin sartu gabe". Euskal Herriko eta Arrasateko lasaitasun hau da, finean, Giammarinori Napolin falta zitzaiona, eta neurri handi baten, horregatik dago hain gustura. Ez du bueltatzeko asmorik: "Ez nintzateke ezergatik bueltatuko; nire esku badago, hemen biziko naiz, betiko." Hori bai, bere familia eta betiko lagunekin ez du harremanik galdu, eta noiz edo noiz bisitatzen ditu.

bere ustez



**Ander Etxeberria**

## Dragoia eta errementariak dantzan

Badator dragoia herrira eta laster piztuko du San Juan sua. Oraingoa etxekotuta daukagu, baina garai batekoa gaiztoa zen oso. Han eta hemen istorio asko dago herritarrak izutzen zituzten dragoi zitalei buruz eta nola libratu ziren zorigaitz horretaz. Ezagunena San Jorgerekin lotutakoa da. Lurralde batean, aldiro giza sakrifizio bat kobratzen zuen herensuge batek. Behin hango printzesari tokatu zitzaion. Baina, dragoiak bazkaldu behar zuenean, Jorge agertu zen (aurrekoetan ez bezala) eta dragoia garbitu zuen bere lantzarekin. Krakoviako piztia hiltzeko ere super heroi bat dago: bertako zapatagile bat. Arma kimikoak erabili zituen honek. Sufrez betetako dragoi jana utzi zuen munstroa bizi zen leizetik gertu. Espero zuen bezala, dragoiak irentsi eta hain handia izan zen bere egarria ibaira jo eta ura edan zuela lehertu zen arte.

**"Han eta hemen istorio asko dago herritarrak izutzen zituzten dragoi zitalei buruz "**

Mondragoekoa Muru inguruan bizi zen eta gizajalea zen hau ere. Nola amaitu zuen? Kronika ezberdinak daude. Bat berezia da heroi bakarraren eskemaz kanpo dagoelako: herriko errementariek akabatu zuten burdin goriekin. Gaur zorionez, bata eta besteak elkarrekin dantzan.

txutxu-mutxua

### 1970. urtean jaiotakoak ederki ibili ziren Dulantzira egindako irteeran

**Iragandako denborak gogoratzeko aukera ezin hobea izan zuten 1970. urtean jaiotako arrasatearrek pasa den maiatzaren 31n Dulantzira (Araba) egin zuten irteeran. Ederki ibili zirela jakinarazi digute, nahiz eta sekulako euri zaparrada batek eguna zapuzteko saiakera egin.**

**Ikastola garaietan sortutako neska koadrila berriz ere batzeko aitzakiarekin batu ziren, euren familiekin, hau da, senar eta semealabekin. Datorren urteari begira, berriz ere elkartu eta irteera bat egiteko asmoa agertu dute. Urte gogoangarri haiengatik, "hala izan dadila!".**



JAIONE IBAIBARRIAGA









**UDAL EUSKALTEGIA** > URTEURRENA

# 25. urteurreneko ospakizunak afaria eginda hasiko dituzte

Afaria ekainaren 20an izango da; uda eta gero egingo dituzte antzerki eta proiekzioak, Udal Euskaltegiaren urteurrena ospatzeko

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Udal Euskaltegiak urteurrena ospatzeko hainbat ekintza batzen dituen egitaraua prestatu du.

Asteon egin zuten prentsaurrekoan, euskaltegiko bi kide eta Udaleko kide bat izan ziren. Hala, Maite Guridi Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren zuzendaritza batzordearen burua, Maria Dolores Lete euskaltegiaren sorreratik bertan lanean diharduen irakaslea eta Alex Labaien zuzendaria izan ziren.

**1982-1983 URTEAN, SORRERA**

Guridik ederki azaldu zuen bezala, "82-83 sorrera urte hartatik gaur arte, 6.000 ikasle inguru pasatu dira euskaltegitik; gainera, ez bakarrik bergararrak, baita, Antzuola, Elgeta eta Soraluzeko ikasleak ere". Lehen urte hartan, 150 ikasle inguruk eman zuten izena, eta harrezkero eta gaur arte, kopuru horren bueltan dabiltza.

Ikasleak ez ezik, 25 urte hauetan zehar langile ugari izan ditu euskaltegiak: zortzi lagun hasi ziren, eta gaur arte 50 pertsona inguru ibili dira bertan lanean, irakasleak, idazkariak, atezainak eta garbitzaileak tarteko. Udal Euskaltegiak kokapena ere sarri aldatu du: Errekalde jauregian hasi ziren, handik Irizar jauregira joan ziren; ondoren Bidekurutzetara, eta azken kokalekua Zabalotegi izan da. Etorkizunean, baina, kokalekua non egongo den ez dago batere argi.

Amaitzeko, Guridik adierazi zuen jakina dela urteen poderioz, egoera soziala, giroa, motibazioa... asko aldatu direla, baina "oraindik nabari da euskaltegiaren beharra, eta euskaltegia gertu dago beste 25 urte lanean jarraitzeko". Horregatik, atzean geratutako urte horiek ospatzeko eta datozenei harrera egiteko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horien berri emateko, Labaien zuzendariak hartu zuen hitza: "Ekainaren 20an afaria egongo da. Bertan izena eman nahi duenak euskaltegira deitu baino ez du.

Egongo diren beste hiru ekitaldiak oporren ostean izango dira; hala, lehena, irailaren 26an izango da, *Euskera sencilloaren manifestoa* antzerki lana, udaletxeko pleno aretoan, 22:00etan; urriaren 10 ean edo 17an– data zehaztu gabe dago– Antxon Arzaren *Bizimoduak* proiekzioa egongo da Aroztegi aretoan, 19:30ean. Ekitaldiei amaiera emateko, azaroaren 13an, Iñaki Kaperotxipiren *Zetaren ibilbidea* proiekzioa emango dute Aroztegi aretoan, 19:00etan.



Udal Euskaltegiko irakasleak, martitzenean egindako prentsaurrekoaren ondoren. JASONE ZABALA


J.Z.

**Alex Labaien** > Euskaltegiko zuzendaria

## "Euskara erabiltzea da garrantzitsuena"

**J.Z.** > BERGARA

**Aurtengoa bigarren urtea du Alex Labaienek Udal Euskaltegiko zuzendari lanetan –aurretik ere beste hirurteko bat egina du. Udal Euskaltegiak 25 urte betetzen dituen honetan, harekin hitz egin dugu.**

**Azken urte hauetako aldaketarik nabarmenena?**

Alde batetik, ikasleak eta euren motibazioak. Aspaldi honetan, motibazio instrumentalak gora egin du nabarmen. Bestalde, jendea oso lanpetuta bizi da, lanean dihardute asko, eta asko errelebotan. Estutu egin zaigu bizimodua. Ez dugu astirik egin nahiko genukeen guztia egiteko. Teknologia bera ere nabarmen aldatu da, eta horrek eragina du eskoletan. Horregatik, guk autoikaskuntza ere eskaintzen dugu; hau da, etxetik ordenagailu eta tutorearekin batera ikasteko modua.

**Datozenen euskara maila nolakoa da, zure iritziz?**

Esan ohi da maila asko jaitsi dela, eta egia da kaleko euskara *bizioz* josita dagoela, gauza asko gaizki esaten direla... Baina, era berean, nik garbi ikusten dut erabilera areagotu egin dela. Lehen, nekeza zen gazte jendea euskaraz entzutea, eta orain koadrila askotan egiten da. Nire ustez, erabiltzea da garrantzitsuena; kalitatea gero dator.




GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

**EUSKARA** > ITZULPENA

# Martzial Agirreren monografiaren itzulpena Carlos del Olmok egingo du

## Aurten euskaratu egingo dute, eta datorren urtean emango dute argitara

## Eskultorearen gainean egin den ikerketa lanik osatuena eta serioena dela diote

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Carlos del Olmo donostiarra aukeratu du Udalak Martzial Agirreren liburuaren itzulpena egiteko. Urte amaierarako itzulpena eginda egotea espero da, eta 2009an, euskaraz eta espainolez kaleratuko da.

**ITZULPENA EGITEKO PROZESUA**

Martzial Agirreren lana argitara eman ahal izateko, *Marcial Aguirre (1840-1900)* izeneko monografia erreproduzitu eta banatzeko eskubideak erosi zizkion Udalak bi egileei, Mikel Lertxundiri eta Larraitz Larretxeari, hain justu ere. Eskubide horiek esklusiban eta betirako erosi zizkien Bergarako Udalak.

**NOR ZEN MARTZIAL AGIRRE?**

Bergarak eman dituen seme ospetsuetako bat da Martzial Agirre Lazkano eskultorea, Gipuzkoako XIX. mendeko eskultoreen artean onenetarikoa, askoren iritziz. 1840. urteko azaroaren 22an jaio zen San Antonioko La Algodonera lantegiaren barruan zegoen etxean. Haren aita, Joakin Agirre, ehungintza lantegiko akzionista nagusia zen, eta horregatik bizi zen enpresan bertan. Gainera, San Antonio auzoan bazituen jabetza gehiago ere.

Martzial Agirrek Errege Seminarioan egin zituen lehen ikasketak, eta gero Arantzazuko ikastetxera joan zen. 1864ko uztailaren 9an Gipuzkoako Foru Aldundiak beka bat eman zionean Erromara abiatu zen ikastera eta bizi izatera. Han maisu handiekin ikasi zuen, besteak beste estilo neoklasikoa lantzen zuten Togletti eta Obiciren tailerretan. Italian, artista alemaniar eta austriarrekin zituen harremanen ondorioz, Lavinia Wittner ezagutu zuen. Harekin ezkondu zen 1866an, Erroman. 1870. urtean, bere laguna zen Luvestein-eko printzeak Pio IX.a Aita Santuaren bustoa egitea enkargatu zion. Lan harekin hirugarren domina eskuratu zuen Erromako erakusketan.

**SEME OSPETSUENEN LANAK**

Martzial Agirrek Peñafloridako Kondearen bustoa egin zuen 1873. urtean. Gipuzkoako seme entzutetsuenen bustoak ere egin zituen 1882 inguruan: Urdaneta, Elkano, Okendo, Lezo eta Legazpirenak, hain zuzen ere. Lan horiek guztiak Foru Aldundiko jauregiaren frontisean daude jarrita, bi Hercules eta lurraldeko armarriarekin batera. Garai hartakoak dira, baita ere, San Ignazio, Urbieta eta Txurrukaren estatuak.

Donostiara 1875 inguruan itzuli zen. Hasieran, 31 de Agosto kalean bizi izan zen, gero Loiola kalean eta, azkenik, San Martin kalean. Kale horretan bizi izan zen hil arte. Donostiako behin betiko egonaldi hartan hainbat proiektu burutu zuen: Espartero jeneralaren estatua, Zumalakarregiren estatua, hiriko heroiei eskainitako Polloeko hilerriko mausoleoa, Okendoren estatua eta beste lan eta enkargu batzuk: partikularren eta Gipuzkoako jende ospetsuen bustoak, esaterako. Donostian hil zen, 1900eko maiatzaren 10ean, eta hiriko hilerrian lurperatu zuten, familiaren panteoian. Panteoi horretan Martzial eta Laviniaren aurpegien marmolezko taila ikus daiteke, bere semeek egindakoa.



JASONE ZABALA

## Raizabal gozotegiaren zozketa

Ekainaren 5ean Raizabal gozotegikoek 100. urteurrena ospatzeko zozketa egin zuten bezeroen artean. Irabazlea Maria Luisa Zubia (argazkian, eskuman) izan zen. Zumaiako Zelai talasoterapia zentroan bi pertsonarendako asteburu bat eraman zuen sari moduan. Miren Berasategi Raizabaleko alabaren eskutik jaso zuen saria.

**JAIAK** > SAN ANTONIO AUZOA

# Gaur, Paduako San Antonio eguna ospatuko dute

## Erromeria, zezentxoak eta azoka daude, besteak beste, jaien egitarauan

**J.Z.** > BERGARA

Atzo hasi ziren aurtengo San Antonio auzoko jaiak, eta asteburu osoan egongo dira ekitaldiak. Gaur, egubakoitza, Paduako San Antonio eguna ospatzen dute: 10:30ean meza egongo da, eta gauean, herri afaria.

**ERROMERIA ETA AZOKA**

Bihar, zapatua, 12:00etan, gaztetxoendako zezentxoak eta zalditxoak egongo dira Gure-Ametsa elkarte ondoko plazan. Arratsaldean, berriz, mus txapelketa eta 16:30ean, Honorio Agirregabiriaren omenezko 72. txirrindulari lasterketa. Ondoren, 18:00etan, kalejira egongo da trikiti eta buruhandiekin. Txirrindulari lasterketako eta mus txapelketako irabazleei sariak eman eta gero, 20:00etan Gure-Ametsa elkarteak antolatutako afari-merienda egongo da, sagardo, ardo, sardina eta solomoarekin. Ondoren, giroa animatzeko erromeria egongo da, elkartearen ondoko plazatxoan Itziarko Uriarte anaiekin.

Domekan, berriz, 11:00etatik 14:00ak arte azoka egongo da. Nahi duen edonork gauzak saldu, erosteko edota elkar aldatzeko aukera izango du: liburuak, diskoak, koadroak, eskulanak, filatelia... Halako azoka bat antolatzen duten lehen aldia da.

GAZTELU, S. A.
BURDINDEGIA
HORNIDURA INDUSTRIALAK
Mintegi kalea 1
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

**MUSIKA ESKOLA** > KONTZERTUA

# Orkestra sinfonikoak kontzertua egingo du gaur

Mariaren Lagundiko elizan izango da orkestraren emanaldia, 19:00etan

**A.E.** > BERGARA
Musika eskolako orkestra sinfonikoak kontzertua emango du gaur, 19:00etan, Mariaren Lagundiko elizan.

**HIRU ZATI IZANGO DITU**
Musika eskolako ikasleek Mariaren Lagundian eskainiko duten kontzertuak hiru zati izango ditu: lehenengo zatian harizko instrumentuak joko dituzte musika eskolako 28 ikaslek; bigarren zatian, harizko instrumentuei haizezkoak gehituko zaizkie. Hala, harizko eta haizezko instrumentuak joko dituzte elkarrekin; azkeneko zatian, hirugarrenean, musika eskolako haizezko ikasle nagusiek joko dute. Guztira sei ikaslek joko dute kontzertuko hirugarren zati hori.

Joko dituzten piezen artean, guztientzat ezagunak diren Mozarten obrak daude. Gainera, Karlos Etxaniz, Argiñe Agirrezabal eta Nere Ibarra abeslarien laguntza izango dute musikariek hirugarren zati horretan.

Bestalde, Henry Purcell-en *Dido eta Eneas* obra ere joko dute gaurko kontzertuan.

**DIPLOMA BANAKETA**
Datorren astean beste kontzertu bat emango dute ikasleek. Hilaren 20an, egubakoitzean, diplomatuen emanaldia eta diploma banaketa egingo dute musika eskolan.

**GAZTETXEA** > 8. URTEURRENA

# Kontzertua eta zinema urteurrena ospatzeko

Kontzertua bihar izango da, gaztetxean, 23:00etan hasita

**A.E.** > BERGARA
Gaztetxeak 8. urteurrena bete du aurten; hori dela-eta, hainbat ekitaldi eta ospakizun antolatu ditu. Bihar, zapatua, esaterako, kontzertua emango dute Obligaciones –Gasteiz– eta Turboshit –Bergara– taldeek. Kontzertua 23:00etan hasiko da, gaztetxean.

**ROCK-AND-ROLLA**
Obligaciones talde arabarrak punk eta rock-and-roll musika egiten du, eta Anti, Epi, Pela eta Aitor dira taldekideak. Orain dela hamar urte hasi ziren musikaren alorrean eta ordutik hona lau disko eta single bat atera dituzte: *Obligaciones* –1997–; *Rapido y sucio* –2000–; *Prueba a gritar, prueba a llorar* –2002; *Iwo Jima Party* –2005–; eta, *Obligaciones Vs. Planet77* –2007.

**ZINEKLUBA EGUENEAN**
Ekaina eta uztaila bitartean erotika landuko dute gaztetxeko zineklubean. Hala, datorren eguenean, hilaren 19an, Pier Paolo Pasoliniren *Las mil y una noches* filma eskainiko dute. 1974an filmatutako lana mendebaldeko ipuinetan oinarrituta dago. Gainera, gaztetxearen 8. urteurrena ospatuko dute eguenean.

Gogora ezazue domekatik eguenera aldatu dituztela ekaineko eta uztaileko zineklub emanaldiak. Hemendik aurrera, eguenetan, 21:30ean izango dira zineklub emanaldiak gaztetxean.

> ZIRKUA

## Zirkua jarri dute seminarioko patioan eta, aste bukaeran, bost saio eskainiko dituzte

Gaur hasi eta domekara arte, Royal zirkua dago herrian. Seminarioko patioan ipini dute eraikina. Gaur, egubakoitza, emanaldi bakarra egingo dute, 19:30ean. Bihar, berriz, bi emanaldi egongo dira: 17:30ean eta 19:30ean; eta domekan, beste bi, 12:30ean eta 18:00etan. Sarrera 15 eta 20 euro bitartean kostatuko da, eta guraso batekin joaten bada ume bat, gurasoak bakarrik ordaindu beharko du. Emanaldiek bi orduko iraupena izango dute. Bestalde, herri guztian 25.000 beherapen txartel ere banatu dituzte. Royal zirkuak ez du animaliarik erabiltzen emanaldietan, eta, besteak beste, telebistako *lunniak,* munduko magia egilerik onena, malabaristak eta beste hainbat ikuskizun eskainiko dituzte.



Aroztegin ikusgai egongo den argazki bat. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

**UDAL ARTXIBOA** > ERAKUSKETA

# Argazki zaharrak eta hitzaldia, San Martzialgo erromeria erakusteko

Udal Artxiboak antolatuta, gaur hasi eta hilaren 29ra arte egongo da zabalik erakusketa Aroztegi aretoan; guztira 41 argazki egongo dira ikusgai

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Erromerien gaineko argazki erakusketa zabalduko du Udal Artxiboak Aroztegi aretoan. Hain zuzen, *San Martzialgo erromerixia* izena izango du erakusketak. Argazki erakusketa horren bitartez herritarrek udal fondoa ezagutzea nahi dute antolatzaileek. "Udal fondoa erakustea eta aktibatzea da erakusketaren helburua", azaldu digu Udal Artxiboko Arantzazu Oregik.

**AZKEN MENDEKO ARGAZKIAK**
"Erakusketarako 41 argazki aukeratu ditugu; gehienak Udal Artxiboan dauzkagunak dira", dio Oregik. "Garai guztietakoak dira argazkiak, hasi 1900. urte inguruan eta gaur egungo argazkiak arte". Argazki guztiek noiz ateratakoak diren eta zeinek atera dituen dioen azalpentxo bat izango dute.

Erakusketa gaur zabalduko dute eta hilaren 29ra arte egongo da zabalik Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, goiz eta arratsaldez; eta domeka goizetan.

**HITZALDIA, GAUR**
Gaur arratsaldean, 19:00etan, Jose Ignacio Homobonok *Erromeriak* delako hitzaldia egingo du Aroztegin. EHUko soziologia irakaslea da Homobono.

**PINTURA** > IKASTAROA

# Artelanak sortzeko prozesua nola egin azalduko dute

Uztailaren 1, 2, 8 eta 9an izango dira eskolak Bearteko lokalean

Bazkideek 25 euro ordaindu behar dute; gainontzekoek, 30 euro

**A.E.** > BERGARA
Beart Arte elkarteak artelanen prozesu sortzailea erakusteko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Luis Laskurain bergararrak emango du eta monografikoa izango da.

**IKASTAROA, UZTAILEAN**
Beart elkarteak antolatutako ikastaroa uztail hasieran izango da; hain zuzen ere, uztailaren 1ean, 2an, 8an eta 9an. Ikastaroko ordutegia 17:00etatik 19:00etara izango da, eta Bearteko lokalean emango dute, Bolu auzoko 49. zenbakian. Gaur egun, 60 bazkide inguru ditu Beart arte elkarteak.

Bazkideentzat 25 euro kostako da ikastaroan izena ematea; eta 30 euro bazkide ez direnentzat. Izena emateko azkeneko eguna ekainaren 26a izango da.

Laskurainek koadro bat margotuko du; hala, ikasleek koadroa hasieratik bukaera arte nola egiten duen ikusiko dute. Modu horretan, egiten dabilenari buruz galdetzeko aukera izango dute ikastaroan parte hartuko duten ikasleek.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



Neurriak 38tik 60ra

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Laster %50erainoko deskontuak

TXIRRINDULARITZA > TXAPELKETA

# Kadete mailako ziklismo lasterketa San Antonion

San Antonioko jaien barruan, 16:00etan hasiko da lasterketa; 72 kilometro guztira

JASONE ZABALA > BERGARA

Bihar jokatuko da, 16:00etan, San Antonioko jaien ekitaldien barrua, 72. txirrindulari saria –VIII. Honorio Agirregabiria memoriala. Kadete mailako lehen eta bigarren urteko txirrindulariek hartuko dute parte; guztira, 200 partaidetik gora. Bertan, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako txirrindularien parte-hartzea espero da. Kontuan hartu behar da biharko lasterketa Euskadiko Txapelketarako baliagarria dela, eta, beraz, lasterketa garrantzitsua izango da. Bi maila egongo direnez, sariak ere bi mailatan banatuko dira; hala, kadete mailako lehen urteko lehen hirurek saria izango dute, baita maila bereko bigarren urteko lehen hirurek ere.

**GUZTIRA, 72 KILOMETRO**

Ibilbideak guztira 72 kilometro izango ditu. San Antonion hasiko da lasterketa; ondoren, Elorregi aldera joango dira txirrindulariak. Hango biribilguneari bueltа eman eta Bergara zeharkatu eta gero, berriz ere Elorregi aldera abiatuko dira. Handik berriz ere Bergara aldera hartuko dute eta Antzuolara abiatuko dira. Antzuolatik bueltan San Antonioko helmuga izango dute; hantxe erabakiko dira irabazleak. Lasterketa 18:00 aldera amaitzea espero dute antolatzaileek.

Pasa den urtean, Mikel Mitxelena (C.C. Irunes) gipuzkoarra izan zen irabazlea. Aurten parte hartzeko iaz adina taldek izena eman dutelako, pozik daude antolatzaileak. Aurtengo lasterketa antolatu dutenak Lokatza Bergarako txirrindulari elkartea, Gure-Ametsa elkartea eta Bergarako Udala izan dira.



JOSEAN IÑARRA

## Emaitza onak Shotokan taldekoek

Ekaineko lehen asteburuan Donostian izan ziren Bergarako Shotokan taldekoak eta emaitza oso onak lortu zituzten bertan jokatu zen eskolarteko Euskadiko Txapelketan. Hala, kata modalitatean, Jon Urkiak hirugarren postua lortu zuen. Kumite modalitatean, eta nor beren pisuan, berriz, lehen postua lortu zuten Joane Amasorrain eta Deian Kerletak. Markel Larrañagak, bere mailan, bigarren postua. Eta azkenik, Haizea Iñarra eta Jonek Agirrezabalek hirugarren postua lortu zuten.

KIROL EGOKITUA > ESPAINIAKO ATLETISMO TXAPELKETA

# Emaitza bikainak lortu dituzte Dordokako atletek Madrilen

Urrezko bi domina eta brontzezko bat lortu zuten atletismo txapelketan, Madrilen

Asteburu honetan, Lleidan izango dira Dordoka taldekoak boccia txapelketan

J.Z. > BERGARA

Kirol egokituko atletismoko Espainiako Txapelketan izan ziren pasa den asteburuan Dordoka taldeko Sonia Medina, Maider Larrañaga eta Nerea Egaña, Fuenlabradan, Madrilen. Bertara Donostiako eta Urretxuko Dordoka taldeko partaideak ere joan ziren.

Medina, Larrañaga eta Egañak pisu jaurtiketan hartu zuten parte, eta emaitza oso onak lortu zituzten; horrela, Larrañaga eta Egañak urrezko domina lortu zuten; Medinak, berriz, brontzezkoa.



Irudian, Medina, Larrañaga, Dominguez (arduraduna) eta Egaña. DORDOKA TALDEA

**BOCCIA TXAPELKETA**

Asteburu honetan beste hitz ordu bat dute Dordoka taldekoek. Lleidara joango dira bocciako Espainiako Txapelketan parte hartzera. Bergarako Dordoka taldetik hiru kirolari doaz: Agustin Toledo bergararra, Hectore Prieto aretxabaletarra eta Amagoia Arrieta debarra. Guztira, Dordoka taldeko hamar kirolarik hartuko dute parte: Bergarako hiruk, Urretxuko bik eta Donostiako bostek. Haiekin, Ainhoa Dominguez arduradunaz gain, beste bi entrenatzaile ere joango dira: Garazi Larrea eta Elena Etxeberria.

**ZEHAZTASUN HANDIKO JOKOA**

Boccia ez da oso joko ezaguna. Dominguezek azaldu dizkigu joko horren nondik norakoak: "Zehaztasun eta estrategia handiko jokoa da. Nazioarteko arautegi batean biltzen dira joko horren arauak. Maila ezberdinak ezintasunaren arabera zehazten dira. Guztiak ere, gurpildun aulkietan lehiatzen dira; hala, esku edo oinekin pilotak jaurtitzen dituzte. Ezintasun larriena dutenek, berriz, arrapala baten laguntza izaten dute jaurtitzeko. Azken horien kasuan, jaurtitzaileak nora jaurti erabakitzen duenean, laguntzaileak pilota bertan jartzen dio jaurti dezan. Kirol horretan, banakako, bikotekako eta taldeko probak daude. Emakume zein gizonek osatutako taldeak izan daitezke. Parte hartzeko zazpi maila ezberdin daude ezintasunaren arabera: banakakoa BC1; banakakoa BC2; banakakoa BC3; banakakoa BC4; bikoteka BC3; bikoteka BC4 eta taldeka.

PILOTA > TXAPELKETA

# Udaberriko Txapelketako finalak gaur jokatuko dira

Benjaminetan, lau partidu egongo dira; alebinetan, bi; eta infantiletan, bakarra

J.Z. > BERGARA

Gaur jokatuko dira herriko pilota eskolako Udaberri Txapelketako finalak Udal Pilotalekuan. Partiduak 18:00etan hasiko dira. Hiru mailatan banatuta, hauek izango dira finalak: infantil mailan, Aristi-Diez, Marzo-Osaren aurka. Alebin B mailan, berriz, Bretaña-Rodriguez, Gaztañaga-Asularen aurka. Alebin A mailan, Gonzalez-Azpeitia, Valgañon-Narbaizaren aurka. Benjaminetan, lau final izango dira: Zubizarreta-Vicente, Etxabarri-Larrañagaren aurka; Najera-Rueda, Herrero-Labakaren aurka; Maiztegi-Etxaniz Arriola eta Karasatorreren aurka, eta azkenik, Armendariz-Etxebarri, Elisburu-Munategiren aurka. Bihar, berriz, 16:00etan hasita, Tolosa-Goierri-Deba eskualdeko alebinen finala jokatuko dute: Debako Euskal Jolas taldeak, Tolosako Aurrera Saiaz-en aurka. Final horren segidan, nagusi mailako Gipuzkoako lau t'erdiko Udaberri Txapelketako final-laurdenak jokatuko dira. Tartean bi bergarar: Larrañaga eta Eneko Mugurutza. lehenak Zumaiako Iribarren aurka jokatu beharko du eta bigarrenak, berriz, Azpeitiko Alkortaren aurka.

**ZOZKETAKO SARIAK**

Bestalde, pilota eskolak antolatzen duen zozketan, hauek izan dira sarituak: lehen saria Jose Luis Berasategirentzat izan da; etzi jokatuko den buruz buruko finalerako bi sarrera eta 500 euro irabazi ditu. Bigarren saria Ane Agirreolearentzat izan zen; sari moduan, Kantabriako hotel batean asteburu bat eta 250 euro. Hirugarren saria, eta azkena, Iñaki Diezek eraman zuen; sari moduan, Erreki erretegian bi afari eta 100 euro jaso zituen.



Irudian, zozketako sarituak, Reyes Azkoitia taldeko entrenatzailearekin. J.Z.

bergararrak kanpoan

**Borja Gonzalvo** > Tabernaria Bodegoian
Bergara

# "Euri asko egiten du hemen, baina ez zait axola; gustuko dut"

**NEREA MENOR** > BERGARA

**Borja Gonzalvo duela lau urte etorri zen Bergarara. Bartzelonan jaio zen eta bertan zegoen bere bizimodua. Urtero Pirinio aldera joaten zen oporretan eta bertan ezagutu zuen Bea bergararra. Maitemindu eta urrutiko hartu-emana izan zuten: "Astebururo egoten ginen, baina astero bueltaka ibili beharra gehiegizkoa zen eta Bergarara etorriko nintzela erabaki genuen azkenean", dio Borjak.**

Oso pozik dago Bergaran: "Ez du zerikusirik Bartzelonarekin, oso herri lasaia da. Jendetzak ez zaizkit asko gustatzen, herriak nahiago ditut. Bergarara heldu nintzenean gaueko isiltasunak asko harritu ninduen, kilkerrak bakarrik entzuten dira. Oporretan, Bartzelonara bueltatzen naizenean, zaila egiten zait lokartzea".

Bergararrak jatorrak direla uste du Borjak: "Tabernan jende asko ezagutu dut, eta, denetarik dagoen arren, orokorrean, oso ondo moldatzen naiz bezeroekin. Gainera, jendea ezagutzeko aukera eman dit tabernari lanak". Herriko paisaia asko gustatzen zaio katalanari, baita klima ere: "Euri asko egiten du hemen, baina ez zait axola; gustuko dut".

**"Bergarara heldu nintzenean gaueko isiltasunak asko harritu ninduen, kilkerrak bakarrik entzuten dira"**


Borja Gonzalvo.

10 urteko anaia asko igartzen du faltan: "Familia osoaren falta nabari dut, baina bereziki, anaia gazteenarena". Bartzelonan informatikari bezala lan egiten zuen eta informatikako ikasketak bukatu berri ditu Ermuan. Orain lana topatu nahi du, "goizez informatikari bezala arituko naiz eta arratsaldeetan tabernan lagunduko dut".

**PINTXOAK EUSKARAZ**

"Bergarara heldu nintzenean Beak erakutsi zidan euskara apur bat. Orain, pintxoen izenak eta zenbakiak euskaraz dakizkit. Tabernatik kanpo euskara ez erabili arren, tabernan nahiko ondo moldatzen naiz hizkuntzarekin".

txutxu-mutxua hau be badaukogu

## 1965. urteko kintoek ez zuten huts egin eta afaltzeko batu ziren, urtero bezala

**Urtero hainbat kintada egiten dira udalerrian; beraz, ia bergarar guztiek dute urteurrena ospatzeko aukera.**

**Eskuman, 1965. urteko kintoen argazkia dago. Urtero-urtero ospatzen dute eta "oso giro polita eta alaia" egon zela azaldu zigun Karlosek, "urtero bezala". Azpimarragarria da oso kinto talde horren berezitasun nagusia: 18 urte zituztenean lehenengo afaria egin zuten eta harrezkero beti ospatu izan dute kintada: "Behin bakarrik egin dugu kale", dio Karlosek. Dagoeneko 24 urte daramatzate afariekin eta aurtengoan 34 pertsona biltzea lortu dute.**


KARLOS

bere ustez


Jose Angel Mikeo

## Migrazioa, aukera kultur aniztasunerako

Emigratzea Giza Eskubideen eta Nazioarteko Eskubide Zibil eta Politikoen aldarrikapenetan jasotako eskubidea da; izan ere, edonork bere proiektu pertsonala, gizatasun izaera osoa garatzeko, nahi duen lekuan bideratzeko eskubidea baitu. Are eta gehiago jaioterrian garatzeko baldintzak ukatzen dizkiogunean. Italian etorkin *"ilegalak"* kanporatzeko legea onartzekotan dabiltza. Suitzan, ostera, auzoko edozein gustura ez badago etxekoneko emigrantearekin nahikoa izango ei da kanporatzeko. Harrigarriena zera da, gehienek lanean dihardute arren, bada ekonomiarako ez eze "europar kulturarako" ere arriskutsu direla zabaltzen ari denik. Euskal Herri honetan, euskara, frantsesa eta gazteleraz gain, beste ehun hizkuntza hitz egiten dira. Kultur aniztasuna munduko aberastasunik handiena dugu, kultura bakoitzak ekarpen berezia egiten du-eta mundua ulertzeko. Migrazioa dela eta etxean hainbesteko aberastasuna izateak aukera asko ematen dizkigu gure izaera ekarpen berriekin osatzeko.

**"Migrazioa dela eta etxean hainbesteko aberastasuna izateak aukera asko ematen dizkigu"**

Inmigrantea nola kanporatu beharrean nola etxekotu asmatuko bagenu, hobeto genbiltzake.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93




# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

## ASEGURUAK

**GOIENA ASEGURUAK**
ARRASATE / Antso Abarka 6
T: 943 79 59 81
F: 943 79 39 18

BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65
F: 943 76 40 37
goiena@goienaaseguruak.com

## EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

## GESTORIAK

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**KULTURA** > ARKUPE

# Liburutegi berria zabalik Arkupen

Martitzenean zabaldu zuten, eta datorren astelehenetik aurrera udako ordutegia izango du; ekainaren 23tik 27ra, ostera, itxita egongo da

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Arkupe kultura etxea joan zen egubakoitzean inauguratu zuten, eta dagoeneko zabalik dago. Zaraia aretoan hainbat ekitaldi egin dituzte, eta erakusketa aretoan Artium museotik (Gasteiz) ekarritako erakusketa dago ikusgai (18:00-20:00). Aste honetan bertan liburutegia zabaldu dute, eta hilabetea bukatzerako Kultura Saileko teknikariak ere bertan izango dira.

**LIBURUTEGIAK UDAKO ORDUTEGIA**

Hiru txoko ditu liburutegiak: helduena, haurrena eta Txiki-txokoa –5 urtetik beherakoendako. Eta hori guztia bi lagunen artean kudeatuko dute. Liburuak dagoeneko ekarrita dauzkate liburutegi zaharretik, baina hainbat ordenagailutan oraindik ezin da Internet erabili: "Wi-fia sartu behar dute, eta hamabost bat egun beharko dituzte", jakinarazi ditu Joseba Lopez de Armentia arduradunak.

Ordutegian ez dago aldaketarik; hala ere, astelehenetik aurrera, hilak 16, udako ordutegia izango du irailaren 12ra arte. Hona: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, 10:00etatik 14:00etara; eta martitzen eta eguenetan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Gainera, ekainaren 23tik 27ra itxita egongo da. Udako oporrak, ostera, uztailaren 23an hartuko ditu, eta abuztuaren 25ean zabalduko dute berriro.

**ERAIKINAREN KUDEAKETA, HUTSIK**

Kultura etxe berriak langile gehiagoren beharra ekarri du, eta Udalak lehiaketa deitu zuen orain hilabete batzuk Arkupe eraikina kudeatzeko. Herritarrek osatutako Jaiki proiektua bakarrik aurkeztu zen lehiaketara, baina azkenean hutsik geratu da: "Hainbat batzar izan ditugu eurekin, eta orain dela egun batzuk ezetza eman ziguten", jakinarazi digu Inaxio Garro alkateak.

Hori horrela, Zornotzako Aisilan enpresarekin egin du berba Udalak, eta harreran egongo diren langile biak jarriko ditu. Liburutegian egongo den bigarren langilea, ostera, Arrasateko Txatxilipurdikoa izango da. Hala ere, alkateak esan digu behin-behineko konponbidea dela bi enpresa horiekin adostutakoa, eta egunotan dabiltzala aztertzen zelan bideratu eraikinaren kudeaketa.

**EB-BERDEEN ADIERAZPENA**

Udaleko Ezker Batua-Berdeak taldeak gogor kritikatu du kultura etxearen kudeaketa enpresa pribatu baten esku uztea. Azpikontratatzearen kontra azaldu da behin baino gehiagotan Tomas Fernandez zinegotzia, haren esanetan biderik zuzenena udal zerbitzuak Udalak berak kudeatzea da-eta. Ezker Batuak-Berdeetako bozeramailearen iritziz, kudeaketa zuzenak zerbitzuaren kalitatea bermatzen du, eta era berean enpleguaren egonkortasuna. Ikusita hutsik geratu dela zerbitzua kontratatzeko lehiaketa, Fernandezek eskatu dio udal gobernuari berriro azter dezala hartutako erabakia.



Liburutegia zabalik dago martitzenaz gero. MIRARI ALTUBE

**ELKARTASUNA** > SAHARA

# Bingoa, Sahararen alde dirua batzeko

**M.A.** > ARETXABALETA

Sahararen aldeko elkartasun ekitaldia egingo dute gaur (18:00-20:00), Durana kalean. Sahararen alde lan egiten duen Iesbaa elkarteak antolatu du, Jaiki elkartearen laguntzarekin. Eta helburua da Saharako umeei laguntzeko dirua batzea. Proiektu horren berri ematen duten argazkiak eta argibideak jarriko dituzte herritarren eskura, ume horiek non eta zelan bizi diren jakin dezaten aretxabaletarrek.

Ospakizunari 18:00etan emango diote hasiera, eta tea eta Saharako artisauek egindako produktuak jarriko dituzte salgai. 19:00etan, Egiptoko dantzen erakustaldia egingo dute Jaiki elkarteko kideek, eta ondoren Saharakoak dantzatuko dituzte. 20:00etan, bingoa egingo dute. Txartelak aurrez eros daitezke Beroa kafetegian, eta bestela, hasi baino lehen Durana kalean jarritako karpan bertan izango dituzte, euro baten truke.


Sahararen alde orain dela bi urte egindako elkartasun jaia. M.A.

> KULTURA

### Ate irekiak egiten dabiltza Arkupe ezagutzeko

Kultura etxe berria ezagutzeko aukera eskaini gura die Udalak herritarrei; horregatik, zabalik izango ditu ateak ekainaren 21a arte. 10:00etatik 13:00etara bitartean hurrera daitezke Arkupeko gelak ezagutzera. Goizean ezin eta arratsaldean gura izanez gero, ostera, hitzordua egin behar da atezainarekin. Ikastetxe, elkarte edo talderen batek bisita egin gura badu ere hitzordua egin behar du aurrez. Horretarako, 943 08 10 01 telefono zenbakira deitu, eta harreran egongo den Aintzanerekin egin hitzordua.


1979urtetik zure zerbitzura
KOOP. E.
EGUZKIGRAF
inprimategia
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

**KULTURA** > ANDRAMAIXAK

# Herriko jaiak iragarriko dituen horma-irudi lehiaketa deitu dute

Uztailaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira, Arkupe kultura etxean edo udaletxean

Uztailaren 9an jakinaraziko dute epaimahaiaren erabakia, eta irabazleak 300 euro jasoko ditu

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Jai batzordea hasita dago Andramaixak antolatzen, eta herriko jai nagusiak iragarriko dituen horma-irudi lehiaketa deitu du. Oinarrietan ez dago aldaketarik.

**BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK**

Edozeinek har dezake parte, eta teknika librea izango da. Baina horma-irudiak ondorengo testua izan beharko du derrigorrez: *Andramaixak 2008. Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a. Aretxabaleta*. Gainera, neurria zehaztuta dauka: 50x70 zentimetro edo formatu digitalean ekarriz gero, DinA3.

Uztailaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean edo Arkupe kultura etxean. Eta horma-irudiarekin batera ezizena daukan kartazal itxi baten egilearen datuak jarri beharko dira: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia. Egoki ikusiz gero aurkeztutako irudi guztiekin erakusketa antolatuko dute. Epaimahaia herriko hainbat lagunek osatuko dute kultura batzordearekin batera, eta hartutako erabakia uztailaren 9an jakinaraziko dute. Irabazleak 300 euro jasoko ditu, eta jaietako egitarauaren azala egingo dute irudiarekin.

**ESALDI LEHIAKETA**

Andramaixetarako esaldi lehiaketa ere deitu du Prebentzio Sailak. 13 urtetik gorako aretxabaletarrek parte har dezakete, bakarka zein taldeka, eta ekainaren 27rako eroan behar dituzte esaldiok udaletxera edo kultura etxera. Jaietako egitarauan erabiliko duten esaldia asmatzen duenari 120 euro emango dizkiote, eta pegatinak egiteko erabiliko dituztenak asmatutakoei 60 euro. Epaimahaiak bereziki sarituko ditu jaiak neurri onean pasatzera gonbidatzen duten esaldiak.



Zezentxoa umeen atzetik iazko Andramaixetan. GOIENKARIA



Bigarren erregionaleko taldea, partidua irabazi ostean, Orion. MIRARI ALTUBE

**FUTBOLA** > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

## Bigarren erregionaleko futbol taldea mailaz igo da

Orion jokatu zuen, getariarren aurka, eta penaltietan eskuratu zuen garaipena

**M.A.** > ARETXABALETA

Mailaz igotzeko aukera ondo aprobetxatu zuen UDAko bigarren erregionaleko taldeak, eta ondo sufrituta bada ere, nagusi izan ziren aretxabaletarrak. Lehen partidua etxean jokatu zuen UDAk, eta orduan, 2-1 emaitzarekin nagusitu zitzaion Getariari. Zapatuan, bueltako partidua jokatu zuten Orion, eta bi taldeak oso berdinduta ibili ziren. Bukaerako emaitza 2-1 izan zen, eta luzapena jokatu behar izan zuten berdinketa apurtzeko. Baina golik ez, eta azkenean, penaltiak jaurtita erabaki zuten. UDAko jokalariak pozik eta Oriora joandako zaleak ere bai, sufritu ostean garaipena iritsi zelako.

Lehenengo erregionalera igotzen den bailarako hirugarren taldea da aretxabaletarra, BTLSrekin eta Mondrarekin batera.

**KARATEA** > KLUB ARTEKO TXAPELKETA

## Hamar domina jasota itzuli ziren UDAko karatekak

22 aretxabaletar joan ziren, eta txikienek, hamaika, erakustaldia bakarrik egin zuten

**M.A.** > ARETXABALETA

Bergarako Giartzukoak eta Arrasateko Saioa klubekoak izan zituzten aurkari UDAko karatekek klub arteko txapelketan, eta bikain jardun zuten. 22 aretxabaletar joan ziren ekitaldira; horietatik 11k (6 eta 7 urtekoak) erakustaldia bakarrik egin zuten, eta gainerako 11k norgehiagokan jardun zuten. 10 garaikurrekin itzuli ziren horiek. Kata modalitatean lehena izan zen Odei Vazquez (13-15 urte); bigarrenak, Jon Ander Estevez (8-10 urte) eta Xabier Zubillaga (11-12 urte); eta hirugarrenak, Jon Gonzalo eta Victor Perez (8-10 urte), Beñat Martin eta Oxel Vazquez (11-12 urte), eta Ekaitz Irusta (13-15 urte).

Shiai Kumite modalitatean, ostera, Odei Vazquez izan zen nagusi, eta Ekaitz Irusta bigarrena (12-15 urte).



Norgehiagokan jardun zuten hamaika karatekak garaikurrekin. ODILO VAZQUEZ

> DANTZA

### Funky eta Hip Hop ikastaroa gaur kultura etxean

Dantza ikastaroa antolatu dute kultura etxeko inaugurazio ekitaldi barruan. Funky eta Hip Hop zelan dantzatu erakutsiko diete gaur (17:00-20:00) dantzan egiteko berezi-ki gertatu duten gelan. 1960 eta1970 hamarkadetan sortutako dantza estiloak ezagutzeko aukera bikaina.

> KONTZERTUA

### Akordeoi Orkestraren kontzertua gaur, 22:00etan

Aretxabaletako akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, (22:00) Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan. Herriko beste talde batzuk egin duten moduan, kontzertua emanda estreinatuko dute kultura etxe berria herriko akordeoilariek ere.

> IKUS-ENTZUNEZKOA

### 'Etiopia oinez' diaporama eguenean, Zaraia aretoan

Abisiniako mendikate lur garaietan oinez egindako bidaia erakutsiko dute Asier Arantzabal eta Mila Gallastegik, eta telebistan ikusitako irudiekin zerikusirik ez duen Etiopia ezagutaraziko dute; ezusteko handia askorendako. Eguenean, hilak 19, izango da Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan (19:00).

> IKASTAROA

### Oinarrizko eskalada ikastarorako izenematea zabalik

Loramendi Euskara Elkarteak oinarrizko eskalada ikastaroa antolatu du uztailaren 3rako, eguena. Izenemate epea astelehenean zabaldu ko dute, eta interesatuek Loramendira deitu behar dute hilaren 27a baino lehen. Doan da ikastaroa, eta ordutegiaren berri aurrerago emango dute.

> UDALA

### Astelehenetik aurrera udako ordutegia udaletxean

Astelehenetik aurrera, hilak 16, udako ordutegia izango dute udaletxean: 08:00etatik 14:00etara. Hala ere, sail batzuetan 15:00ak arte egongo dira. Kultura etxeko langileek ere goizez bakarrik egingo dute lan. Irailaren 15a arte da udako ordutegia.

**KULTURA** > BERTSOLARITZA

# 'Hitzen lapurra, bertsotxongiloak' umeendako saioa domekan, hilaren 22an

Oñatiko Bertso Eskolak 25. urteurreneko ekitaldien barruan iragarri duen emanaldia Santa Ana antzokian egingo dute

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oñatiko Bertso Eskolak aurrera jaraitzen du 25. urteurreneko ekitaldiekin. Errekaldeko jaietan, Zumaiako Bertso Eskolaren aurka egindako desafioaren ondoren, haurrei zuzendutako saioa antolatu dute, hilaren 22rako, 17:00etan: hain zuzen, *Hitzen lapurra, bertsotxongiloak* izeneko emanaldia. Horren harira, ikuskizuna 3 eta 8 urteko arteko neska-mutikoendako da. Sarrerak salgai jarriko dituzte hiru euroren truke.

**TXOTXONGILOAK NAGUSI**

Hitzak dira protagonista Ander eta Amaia txotxongiloen eta Lide eta Ximon antzezleen istorioan. Herriko plazan gustura dabiltza jolasean Lide, Amaia eta Ander, eta herriko plazan itsatsi dituzten hitzekin kantatuko dituzte zenbait kopla. Baina, bat-batean, hitzak desagertu egingo dira, eta lapurra nor den jakiten ahalegin-duko dira antzezlaneko protagonistak eta saioa ikustera hurbiltzen diren gaztetxoak.

**GIOKELA FESTA**

Gazteendako saioaren ondoren, beste hainbat ekitaldi egingo ditu bertso eskolak. Hurrengoa Giokela festa izango da; hain zuzen, uztailaren 26an egingo dute. Giokelak ipinitako saiheskia erre eta haragi pintxoak salduko dituzte, eta Zapiain sagardotegitik ekarritako kupela egongo da sagardoa edateko.

Oraindik zehaztu barik dute egitaraua, baina giroa alaitzeko, trikitilariak eta bertsolariak egongo direla aurreratu digute. Giokela festarekin lortutako dirua bertso eskolaren urteurreneko ekitaldien gastuei aurre egiteko erabiliko dute. Abuztuko oporren ondoren, besteak beste, hitzaldiak eta San Migel jaietako bertso saioa egingo dituzte.



*Hitzen lapurra, bertsotxongiloak.*

**BERTSO DESAFIOAK**

Bertso eskolako kideak Euskal Herriko beste 15 talderekin lehian dabiltza. Lauko taldetan banatu dituzte herriak, eta Oñatiko bertsolariak Zumaia, Gasteiz eta Zizurkilgo bertso eskolekin lehiatuko dira. Lehen saioa egin dute oñatiarrek Zumaiakoen aurka. Hain justu ere, Errekaldeko jaietako desafioa itzulerako lehia izan zen. Talde bakoitzeko bertso eskola onena sailkatuko da finalerdietarako.


Argazian, *Ino, ino, ino... badator Bonbardino* antzezlaneko une bat. ELKAR HEZI

**HEZKUNTZA** > OSPAKIZUNA

## Kurtso bukaerako jaialdia egingo du Elkar Hezik gaur

Umeendako ikuskizuna eta gazteendako joko herrikoiak egingo dituzte Santa Marina plazan

**M.B.** > OÑATI

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 20an, bukatuko dute herriko ikastetxeek ikasturtea. Horren harira, kurtso bukaerako jaialdiak eta ospakizunak egiten hasi dira. Gaur, Elkar Hezi ikastetxekoen txanda da. Hain zuzen, ikasturte bukaerako afari-merienda egingo dute.

**MERIENDA IREKIA**

Azkeneko urteotako ohiturarekin jarraituz, Santa Marina plazan egingo dute ikasturte bukaerako jaialdia. "Herritar guztiak eta batez ere Santa Marina inguruko auzokideak daude gonbidatuta gure jaialdira", diote afari-meriendako antolatzaileek.

Jaialdiak hainbat zati izango ditu; alde batetik,18:30ean hasita, 3 eta 11 urte arteko haurrendako ikuskizuna egingo du Anne, Monna, Oskola eta Karramarroi antzerki taldeak. Hain justu ere, *Ino, ino, ino... badator Bonbardino* antzezlana eskainiko dute Santa Marina plazan. Eguraldi txarra egiten badu, kultura etxean egingo dute saioa.

Beste alde batetik, gazteendako joko herrikoiak egingo dituzte, eta afari-merienda guztioendako. Musikak ere toki berezia izango du gaur ilunkaran, besteak beste, trikitilariak, DJa eta Oñatiko Underbridge taldearen emanaldia egongo dira.



GOIENKARIA

## Aitor Umerez, Gipuzkoako txapeldun

Aloña Mendi txirrindulari taldeko kide Aitor Umerez Gipuzkoako txapeldun berria da, lehenengo urteko kadeteen artean. Hain zuzen, Beasainen jokatutako proban lortu zuen txapela. Helmugara bederatzigarren tokian heldu den, 1:41:01eko denbora eginda. Bestalde, ekainaren 7an, Arrasaten jokatutako lasterketetan hainbat domina jantzi zituzten Aloñako ziklistek. Nesken alebin mailan, Maider Usandizaga lehena izan zen; mutilen alebin mailan, Iker Alberdi izan zen lehena, eta Xabier Aiastui hirugarrena; eta infantil mailan, Unai Arabaolaza izan zen azkarrena.

> OSASUNA

### Zubikoa kiroldegiaren sarreran desfibrilagailua jarri dute, bihotz-geldiketei aurre egiteko

Bihotz-gelditzeak daudenetan lehen mailako laguntza eman eta pertsonak bizkortu ahal izateko, desfibrilagailua jarri dute Zubikoa kiroldegian. Hain zuzen, sarreran dagoen armairu batean jarri dute. Desfibrilagailua nola erabiltzen den jakiteko zortzi orduko ikastaroa egingo dute kiroldegiko langile guztiek. Oraingoz, bik egin dute ikastaroa Gurutze Gorriarekin, Donostian. Gainerako guztiek ez dakite noiz eta non egingo duten.

Bihotz-geldiketei aurre egiteko aparailuarekin zerbitzua osatu dute kiroldegian. Desfibrilagailuaren gaineko informazio gehiago gura duenak kiroldegiko sarreran edo bulegoan dauden langileei galde diezaieke.

> EUSKARA

### EGA ateratzeko 100 orduko ikastaroa egingo dute ekainean, uztailean eta irailean

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak hirugarren maila edo EGA agiria ateratzeko ikastaroa antolatu du udarako. Hain zuzen, ekainaren 30etik uztailaren 18ra arte eta irailaren 8tik 19ra arte egingo dute. Ikastaroa 100 ordukoa izango da eta astelehenetik egubakoitzera emango dute, 08:00etatik 13:00etara.

Dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Horren harira, bi bide daude izena emateko: alde batetik, 943- 78 24 96 telefonora dei daiteke; eta beste alde batetik, *euskaltegi@oinati.net* helbidera idatz daiteke. Matrikulazio epea ekainaren 20an bukatzen da, eta ikastaroa egitearren interesatuek 122,5 euro ordaindu beharko dituzte.

**OSPAKIZUNA** > KIROL ELKARTEAREN EGUNA

# Kirola, aisialdia eta denbora-pasa bihar, zapatua, plazan eta kiroldegian

Eskoriatzako Kirol Elkarteak bere eguna ospatuko du bihar, zapatua. Horrela bada, herriko plazan, dozena bat ekitaldi egingo dituzte



Mota askotako kirol partiduez gain, bestelako ekintzak egingo dituzte herriko plazan egun osoan. Argazkian, iaz izan ziren trikitilariak. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Aurten, bigarren aldiz, kirol elkartearen eguna egingo dute herrian. Eskoriatzako Kirol Elkartearen ekimena da hori, eta helburua da elkarteak egiten dituen ekintzak herritarren artean ezagutzera ematea.

**BETERANOEN KONTRA LEHIATU**

Egun osoko egitaraua antolatu dute ume, gazte zein helduendako. Hala, helduendako ekintza gehienak kiroldegian egingo dituzte: areto futboleko beteranoak gazteen kontra, saskibaloikoak gazteen aurka, pilotari ohien arteko norgehiagokak eta beste. Horiek guztiak kiroldegian eta pilotalekuan izango dira, goizez gehienak, eta arratsaldez, pilota partiduak. Horretarako, iraganeko hainbat jokalariri deitu diete.

Horrez gain, eguerdian eskalada erakustaldia egingo dute rokodromoan. Eguneko tarte berean herriko plaza pil-pilean jarriko dute: hain zuzen ere, mota askotako ekitaldiak egingo dituzte han egun osoan. Txikienendako espresuki antolatutakoak eta baita esku hartu gura duten herritar guztiendako batzuk ere.

**HAINBAT EKITALDI PLAZAN**

11:00etan saskibaloiko senior kategoriako neskek umeendako tailerrak egingo dituzte herriko plazan. Bertan aukera izango dute margoketan aritzeko eta hainbat jokotan esku hartzeko. Ordu berean eta 12:00ak bitartean gura duten herritar guztiek patata tortilla txapelketan esku hartu ahal izango dute. Etxetik eraman beharko dituzte tortillak, eta irabazleek herriko hiru jatetxetan bazkariak irabaziko dituzte. Herritarrek osatuko dute epaimahaia.

Sari banaketarekin batera, musika jartzen arituko dira, eta motorzaleen kontzentrazioa ere egingo dute.

Horren ostean, herri bazkaria egingo dute Mendigoian. Atzo, eguena, izan zen izena emateko azkeneko eguna.

**JATEKOAK ETA EDATEKOAK**

Arratsaldean, baina, ekitaldiek jarraituko dute: 18:30ean, parrilla jarriko dute eta txuleta-jana egongo da gerturatzen direnendako. Horrez gain, egun osoan elkarteko kideek txosna jarriko dute udaletxe azpian, kontzejupean, eta han edariak banatuko dituzte, eguneko gastuak estaltzeko.



Mota askotako ekitaldiak egingo dituzte aurten ere. LUIS EZEIZA

**HEZKUNTZA** > IKASTURTE BUKAERA

## Luis Ezeiza herri eskolaren jaia, bihar

**I.B.** > ESKORIATZA
Luis Ezeiza herri eskolako guraso eta arduradunek urtero jai berezia egiten dute ikasturteari bukaera emateko.

Biharko, zapatua, egin dute hitzordua. 10:00etatik aurrera hainbat ikaslek ikuskizunak egingo dituzte. 12:00ak aldera, berriz, txapelketen txanda izango da: hala, ping-pong, arku tiratzea eta ikasle txikienendako moduko beste joko batzuk.

Horren ostean, indarrak berrartzeko, herri bazkaria egingo dute, 14:00etan, eskolako arkupean bertan. Horren ostean, 15:30ean, aparraren festa egingo dute. Horretarako, komeni da bertara bainujantzia eta txankletak eramatea.

16:00etan, berriz, Iñigo Madinabeitia musikariak emanaldia egingo du, gura dutenek dantza egin dezaten. Jaiak 20:00ak arte iraungo du.




IÑAKI KORTAZAR

## Iñaki Kortazar da jaietako irudiaren egilea

Dagoeneko aukeratu dute aurtengo San Pedroetako irudia. Iñaki Kortazar eskoriatzarrak egin du eta *Jai herrikoien alde!* leloa dauka. Lehiaketa horren aurtengo berrikuntzetako bat da irudi horizontala eskatu dutela, egitarauaren eskuorriaren formatua aldatu dutelako.

Guztira 12 lan aurkeztu dituzte lehiaketara. Gehienak eskoriatzarrak izan dira, baina baita aretxabaletar batzuk eta Bartzelonako lagunen bat ere.

OSPAKIZUNA > V. ASTE ZAPATISTA

# Zapatismoa eredu hartuta, kontzientziatu egin gura dute

Zapatismoaren borrokak jarraitzen duela azpimarratu dute

Adin guztietarako ekintzak egingo dituzte aste osoan

Jai erraldoia zapatuan egingo dute, bazkari, kontzertu eta guzti



Aretxabaletako eta Eskoriatzako hainbat herritarrek antolatzen dute kolore eta errebindikazio askoz betetako Aste Zapatista. IKER BARANDIARAN

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Astelehenetik (hilak 16) zapatura arte V. Aste Zapatista egingo dute herrian. Eskoriatzako eta Aretxabaletako Zapatisten Lagunek antolatzen dute, Amuskaren laguntzarekin.

1995etik 2002ra bitartean, hainbat herritarrek urtero zapatismoaren aldeko hainbat ekintza egin zituzten, baina 2003an, egitarau zabala egiten hasi ziren.

**BERBALDI INTERESGARRIAK**
Astean, berbaldi interesgarriak egingo dituzte: astelehenean Gasteizkoak taldekoek *Kasko urdinen alde iluna* berbagai izango dute; martitzenean, Yurrek indigenekin bizi izandako esperientziak azalduko ditu erretiratuen egoitzan; eta egun berean, ESK-ko kide batek Mondragon Taldearen ereduaren gaineko hausnarketa mahai gainean jarriko du kultura etxean. Horrez gain, eguaztenean etorkinak integratzeko berbaldi-tailerra egingo dute kultura etxean; eguenean mugimendu zapatista izango dute berbagai; eta egubakoitzean, elikagaien erabilera egokia azalduko dute.

**FILMAK, JOKOAK ETA MUSIKA**
Bestalde, astelehenean *Los fantasmas de Abu Grahib* filma emango dute Nairan, eta eguaztenean, *Lucio* Inkernun. Eguenean eta egubakoitzean, hurrenez hurren, Julen Cobosen kontzertua eta Zapajokoak izango dira. Buka-tzeko, zapatuan jaia egingo dute, eta bazkarirako txartelak salgai daude Inkernun, Nairan, Urbaltzen Txikibarren eta Akerren.

INTERNET > BLOG KOMUNITATEA

# 'Eskohitza.com' sarean dago

Aitzorrotz kultura elkartearen ideiatik abiatuta, blog komunitatea sortu dute



Dagoeneko 17 bat lagunek dute bloga komunitate berri horretan. ESKOHITZA.COM

I.B. > ESKORIATZA
Eskoriatzako hainbat herritarrek *eskoriatza.com* blog komunitatea sortu eta sarean zintzilikatu dute. Ideia Aitzorrotz kultura elkarteko kideek izan zuten eta gonbidapena herritar guztiei zabaldu diete. Hala, dagoeneko 17 bat herritar dabiltza euren blogetan idazten edo argazkiak zein bideoak jartzen. Horietatik gehienak eskoriatzarrak dira, baina badira arrasatear eta aretxabaletarren bat, eta baita Suitzan, Tarragonan eta Guatemalan bizi diren eskoriatzarrak ere.

**EUSKARARI LEHENTASUNA**
Berez blogariek gura duten hizkuntzan idazteko aukera duten arren, erabiltzaile gehienek euskarari lehentasuna ematen diote. Are gehiago, blog komunitatea erabiltzaile guztien artean kudeatzen dutela jakinarazi digute. Hain zuzen ere, Aitzorrotz kultura elkarteko kideek aditzera eman dute komunitatearen helburua dela gura duten guztiek espresatzeko eta iritziak emateko aukera izatea; horretarako sortu dutela erreminta hori.

**LASTER AURKEZTU EGINGO DUTE**
Blogez gain, beste webgune batzuetara loturak, bideoak eta albisteak sartzen dituzte. Polikipoliki berrikuntzak egiteko asmoa dute, eta laster blog komunitatea aurkezteko ekitaldiren bat egingo dute.

JAIAK > ESALDI LEHIAKETA

# Jaietako esaldi aproposenak aukeratu ditu Udalak

Oraingo edizioan, bederatzigarrenean, 88 esaldi aurkeztu dituzte lehiaketara

I.B. > ESKORIATZA
Udaleko Kultura azpibatzordeak aukeratu ditu aurtengo San Pedrotan erabiliko dituzten esaldiak.

Esaldi onena, sari nagusia jaso duena, honako hau da: *Jaixek die gure pekatu. Aurtenguagatik, San Pedro, barkatu!*

Esaldi horren egilea Ikutixok/n taldea da, eta honako herritarrek osatzen dute: Camila Mejias, Iñigo Aldai, Igor Elkorobarrutia eta Dorleta Largok.

**AFARIA IRABAZI DUTE**
Aipatutako taldeak behin baino gehiagotan esku hartu du esaldi lehiaketan, eta askotan, gainera, irabazleak izan dira. Hortaz, herriko jaietan Eskoriatzako jatetxe baten afaria irabazi dute.

Irabazle atera den esaldi horrekin, gainera, San Pedrotan pankarta bat egingo dute, eta pegatinak ere banatuko dituzte. Pegatinak, baina, ez dira esaldi horrekin bakarrik egingo. Lehiaketan esku hartu dutenen artean beste hiru esaldi aukeratu dituzte pegatinak egiteko, eta horietako bi irabazleek egindakoak dira, gainera.

**PEGATINETARAKO, BESTE HIRU**
Honako hauek dira pegatinetarako aukeratu dituzten beste hiru esaldi: *Amanien letxe, sanpedrotan kalie etxe*; *Ez zaittez gorrittu, bilddur barik deittu*; eta *Dantza eta jai euskaraz blai!*

Pegatinetarako erabiliko duten azken esaldi hori Pagaratxu taldearena da, eta honako hauek osatzen dute: Ainara Udaondo, Asier Sologaiztoa, Ekaitz Aramendi eta Dorleta Sologaiztoak, hain zuzen ere.

Antolatzaileak pozik daude. Lehiaketaren bederatzigarren edizioa da, eta 88 esaldi aurkeztu dituzte lehiaketara.

**Xabier Epaizabal** > Sendagilea

# "Zerbitzu bera emango dugu anbulatorioan, baina nahi duenak euskaraz jaso dezake"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

**Familia medikua da Xabier Epaizabal beasaindarra. Lau urtez Donostiako Amara Berriko osasun etxean lan egin ostean, Antzuolako anbulatorioan plaza lortu eta bi aste daramatza lanean.**



Xabier Epaizabal familia medikua, Antzuolako anbulatorioan. IRATI AGIRREAZALDEGI

**Nolatan etorri zara Antzuolako anbulatoriora?**

Osakidetzako azken oposizioetan 300 plaza inguru atera dira, eta, Ordizian bizi naizenez, lehenengotariko aukeren artean ipini nuen Antzuola. Gainera, hizkuntza profila daukat eta Antzuolarako ezinbestekoa zen euskaraz jakitea. Lehenengo oposizioa da hau Osakidetzak profildun plazak atera dituena toki batzuetarako, herri euskaldunetarako eta sendagile bakarra dutenendako.

**Nolako harrera izan duzu?**

Uste dut jendea jakinaren gainen zegoela lehengo medikua joatekoa zela, eta ongi hartu naute. Jende irekia aurkitu dut.

**Zein dira gaixotasun ohikoak?**

Katarroak, infekzioak... eguneroko gaitzak, batik bat. Baita gaixo kronikoak ere; horiek kontrolatzeari eta prebentzioari ematen diogu garrantzi handien. Familia medikuok denetarik jakin behar dugu, baina beti dugu aukera espezialistarengana bidaltzeko gaixotasunaren arabera.

**Egunean zenbat jende pasatzen da kontsultatik?**

Ordutegia mantentzen dugu; 08:30etik 13:00ak ingurura arte. Batez beste egunean 25 gaixo hartzen ditut nik eta erizainak beste horrenbeste. Bestalde, astean behin bi orduz pediatra etortzen da, baina beharbada gutxi da.

**Aldaketarik izango da?**

Zerbitzua lehengoa izango da, baina nahi duenak euskaraz jaso ahal izango du. Anbulatorio berria da hurrengo aldaketa, hemendik hilabete batzuetara izango dena.

**KIROLA** > PILOTA

# Zapatuan hasiko da herriko txapelketako bigarren fasea

I.A. > ANTZUOLA

Olalde elkarteak antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa bigarren fasean sartuko da bihar, zapatua. Lau bikotek egin dute txapelketan aurrera, baina gainontzeko bikoteek ere partiduak jokatzen jarraituko dute. Partiduak ekainaren 14an, 21ean eta 28an jokatuko dituzte eta finala uztailaren 12an. Aurrera egin duten bikoteak auek dira: Aranburu-Irizar, Agirre-Zabalo, Agirre-Iturbe eta Larrea-Aranguren. Antolatzaileek Agirre-Iturbe eta Aranburu-Irizar jo dituzte faborito, baina, lesioen eraginez, baliteke ordezkoek jokatzea, eta horrek txapelketa alda lezake.

**PARTIDUAK**

**Ekainak 14, zapatua**

**09:00** Jauregi-Larrañaga/Aristi-Aranburu
**09:45** Aranburu-Irizar/Larrea-Aranguren
**10:30** Balerdi-Bideluze/Ormazabal-Iturbe
**11:15** Agirre-Zabalo/Agirre-Iturbe
**11:15** Lezeta-Aranburu/Guridi-Urtzelai

**KIROLA** > SASKIBALOIA

# Partiduak eta saskiratze lehiaketa saskibaloi jaian

Bihar, zapatua, egun osoz izango dira ekintzak eskolako patioan

I.A. > ANTZUOLA

Udaleko Kirol batzordean herriko txapelketak antolatzeko beharra antzeman eta frontenis txapelketa eta Olalderekin batera pilota txapelketa abiatu zituzten. Orain, saskibaloi jaia egingo dute, ekainaren 14an, zapatuan, egun osoz, eskolako patioan.

Partiduak 09:00etan hasiko dira eta finalak 18:30ean jokatuko dituzte. Neskek eta mutilek zortzi mailatan banatuta taldeka jardungo dute partiduetan, baita hiruko eta biko saskiratzeak egiten ere.

Jaiaren helburuak dira kirola egiteko ohitura bultzatzea; herrian saskibaloian jokatzeko zaletasuna piztea; eta herritarren arteko harremanak eta giroa suspertzea.

Saskibaloi jaiaren ostean, bizikletaren jaia eta herri lasterketa ere egin nahi dituzte.

# Kontxi Elortza, Esperientzia Eskolan


DEBEGESA

Debabarreneko Esperientzia Eskolako 17 ikasleek diploma jaso dute ikasturte amaierako ekitaldian, tartean Antzuolako Kontxi Elortzak (eskumatik laugarrena). Esperientzia Eskolak 50 urtetik gorakoei ikasteko eta gizartean parte hartzeko aukera ematen die, esperientziak elkartrukatuz.

> EUSKARA

## Tabernetako eta jatetxeetako langileendako euskara ikastaroa antolatu du Udalak

Antzuolako tabernetan lanean kanpotar asko dabilelako eta premia ikusi dutelako, tabernetako eta jatetxeetako langileendako euskara ikastaroa antolatu du Udalak. 60 orduko oinarrizko ikastaroa izango da, urritik abendura, astean sei orduz, hiru edo lau eguneten banatuta. Helburua da bezeroen eskariak ulertzeko eta oinarrizko elkarrizketetan euskaraz erantzuteko gaitasuna lortzea. Horretarako, ostalaritzan lan egiten dutenendako bereziki diseinatutako metodologia eta materiala erabiliko dituzte. Izena emateko ekainaren 30a baino lehen jo beharko da Udaleko Euskara Zerbitzura edo telefono zenbaki honetara deitu: 943 76 62 46.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**bere ustez**



Eduardo Zubiaurre

## Aniztasuna aukera bezala

Gure ingurua gero eta anitzagoa bihurtzen ari zaigula esateak ez du inor harritzen gaur egun. Edonora joan eta berehala ohartzen gara inguruko ezberdintasunetaz: jatorri, kultura eta erlijio askotariko pertsonak; kolore, zapore eta irudi desberdineko produktuak; prezio, kalitate eta mota askotariko zerbitzuak...

Badirudi garapena eta aniztasuna eskutik doazela. Zenbat eta hobeto, oparoago edo handiago bilakatu, are

**"Garapenean aurrera eginez gero, aniztasunera ere ohitu egin beharko dugu"**

eta aukera gehiago agertzen zaizkigu bizitzaren edozein arlotan. Beraz, garapenean aurrera eginez gero aniztasunera ere ohitu egin beharko dugu.

Egoera honi abantailak ikusi nahian, burura etorri zait duela gutxi aholkulari bati irakurtzen niona: giza talde batean aniztasun maila handia dagoenean egoera aldakorretara egokitzeko prestutasuna areagotu egiten dela. Hor, beraz ,mehatxutzat har ditzakegun gertaerak aukera bihurtzeko modua. Ezberdintasunarekin bizitzeko aukera ematen duen gizarteak etorkizun aldakor batean arrakasta izateko bermea eskaini dezake-eta.

112 SOS DEIAK



**PATINAJE IKASTAROA** Bi taldetan banatuta 17 lagunek dihardute eguaztenean hasitako ikastaroan. LARRAITZ ZEBERIO

**JAIAK** > EGITARAUA

# Galiar herrixka itxura hartuko du plazak jaietan

Jaien lehenengo egunean, galiarrez mozorrotzeko dei egin du Elgetako Udalak, eta arratsaldean plazan egingo diren jokoetan parte hartzeko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Umeak izango dira protagonista aurten herriko jaietan. Eguen arratsaldean galiar herrixka baten itxura hartuko du plazak eta haur jokoekin gozatzeko aukera izango dute. Barikuan puzgarriak izango dituzte jolaserako, goiz eta arratsaldez, eta domeka arratsaldean egingo den *playback* saioan parte hartzeko dei egiten die Udalak.

"Umeek asko gozatzen dute jaietan eta saiatu gara aurten ekintza gehiago ipintzen", adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak. Eguenean, Asterix, Obelix eta Panoramix Elgetan izango dira. Umeendako hainbat joko egingo dituzte; menhir altxaketa eta jaurtiketa, edabe magikoa prestatzeko osagaiak aurkitu... Galiar etxetxoak eta edabea prestatzeko pertza egongo dira plazan.

**HERRITARREN ESKUTIK**

Guraso elkartearen eta hainbat herritarren laguntzarekin egingo du Jai batzordeak galiar herrixka. "Gurasoek gertatu eta apainduko dute guztia. Jokoak ere gidatuko dituzte", jakinarazi du Uberak. "Uste dugu posiblea dela herritarren parte hartzearekin egindako jaiak egitea eta elgetarrei galiarrez mozorrotzeko deia luzatzen diegu".

**POLITIKA**

## Bi lagun kontratatu berri ditu Udalak

Aralarrek erantzuna eman dio Elgetako Abertzaleak taldeak egindako kritikari

**L.Z.** > ELGETA

Urtebetean oposizioa gehien kezkatu duen gaia belarraren egoera dela salatu du idatzi bidez Aralarrek. "Udaleko langileek bi bider moztu dute belarra eskola inguruan, kanposantuan, Maala parkean eta kiroldegian", adierazi dute. "Ez da aditua izan behar ikusteko eguraldiak eragina izan duela belartzan".

Udalak aurreratu du dagoeneko bi lagun kontratatu dituztela udako hainbat lan egiteko, tartean, belarrak mozteko.

> ERRETIRATUAK

### Urteko kuota domekan, hilak 15, kobratuko dute

Urteko kuota zortzi euro da eta ordainketa Ozkarbi elkartean egin beharko dute bazkide guztiek domekan, hilak 15, 11:00etatik 13:00etara.

Eguaztenean, bestalde, Karrantzara egingo du txangoa erretiratu talde batek. Kutxak antolatutako irteerarako autobusa bete egin da.

**OSPAKIZUNA** > I. ELGETAKO MOTOR JAIA

## Mota guztietako motorrak Elgetara erakartzea helburu

Gaurtik domekara, motorrekin loturiko hainbat ekintza izango dira herrian

**L.Z.** > ELGETA

Herritar talde baten ekimenez, I. Elgetako Motor Jaia egingo da aste bukaeran herrian. Gaur hasi eta domekara arte egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek Elgetako Udalaren laguntzarekin. "Motorrak gustatzen zaizkigu eta pentsatu genuen horrelako jai bat antolatzea", adierazi digu Geaxi Ezpeleta elgetarrak. "Hiru eguneko egitaraua gertatu dugu. Ikuskizunak, motorzaleen arteko jokoak, kontzertuak... hainbat gauza daude eta espero dugu guztia ondo ateratzea".

Zapatu gauerako rock-and-roll kontzertua iragarri dute. Dune Buggy, The Fever eta Fision Boyz taldeak arituko dira Elgetan.

**GREBAREN ERAGINAREN BELDUR**

Aurtengoa lehenengo edizioa izanik, hainbat gonbidapen banatu dituzte motorzaleen artean. "Jende ugari da etortzekoa, baina ez dakigu ze eragin izango duen garraiolarien grebak gasolindegietan sortu dituen arazoak. Burgostik Elgetara etortzeko hiru bat aldiz bete behar da depositua, eta erregairik ez badago ezingo dira iritsi".

Guztia prest dago Elgetan, etxeko eta kanpoko motorzaleak jasotzeko.



LARRAITZ ZEBERIO

## Quebrantahuesos probara, laster

Ekainaren 21ean, zapatuan, egingo dute aurten Quebrantahuesos proba ezaguna Sabiñanigon. Elgetatik, jakin dugunez, hamar txirrindulari joango dira: Alain Elorriaga, Oskar Askasibar, Ibai Etxaniz, Gari Arrazola, Jabier Larrañaga, Joseba Muxika, Etor Sarasua, Eñaut Arantzeta eta Oier Billa. Argazkian Xabier Aranguren eta Unai Alkorta falta dira.



Haurtzaindegi ondoan, ume-kotxeendako txabolatxoan ere kalte ugari egin dituzte. JONE INUNTZIAGA

**UDALA** > KALTEAK

# Herriko zenbait txokotan kalteak egin dituzte

Aramaioko Udala kezkatuta dago: herriko zenbait txoko kaltetuta agertu dira azkenaldian, eta arduratsuak izateko eskatu die ume eta gurasoei

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak jakinarazi du herriko zenbait gazte arazoak eragiten dabiltzala azken hilabeteetan. Kontua da herriko zenbait lekutan kalteak egiten dabiltzala. Udaletxepean dauden postontzietan, aldameneko iturritik hartutako ura botatzen dute, eta gutun guztiak hondatuta gelditzen dira. Kultura etxeko parkean, erreka ondoan, joan den urtean jarritako baranda berria ere apurtuta agertu zen orain dela aste batzuk. Parke berean, lorazainek erabiltzen duten txabolako leihoak ere apurtu egin dituzte. Azkenik, haurtzaindegi aldamenean ume-kotxeak gordetzeko eraiki zuten txabolatxoan ere kalte ugari egin dituzte.

Udala haserre dago gertakari horien aurrean eta umeei arduratsuagoak izateko eskatu die, baita gurasoei ere. "Ardura handiagoa izatea eskatzen dugu. Azken finean, kalte horiek guztiak denok ordaintzen ditugu, eta beste gauza batzuetara bideratzea pentsatzen genuen dirua kalte horiek konpontzeko erabili behar izan dugu", azaldu du alkateak. Udal ordezkariak kezkatuta ere badaude umeek min har dezaketelako; jakin dute eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzetako lanetan ere ibili direla.

**KUTURA** > JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

## 2008ko jaiek badaukate kartela dagoeneko

Belen Agirre aramaioarrak irabazi du helduen kategorian eta Maider Gardokik gaztetxoenean

**A.B.** > ARAMAIO

Herriko jaiak gero eta gertuago daude eta Jai batzordea burubelarri dabil lanean guztia prestatzen. Jaietako kartel lehiaketako irabazleen izenak ere eman dituzte ezagutzera aste honetan. Belen Agirreren lana da aurtengo jaietako egitasmoaren azalerako aukeratu duten marrazkia. Gaztetxoen kategorian, berriz, Maider Gardokik irabazi du saria. Haren marrazkia egitarauaren barruan joango da, zerrendan ondoren gelditu diren beste hiru gazteren marrazkiekin batera.

Aurtengoa, baina, ez da Belen Agirrek irabazten duen lehenengo kartel leihaketa. Izan ere, orain dela bost urteko jaietako kartela ere hark egindakoa izan zen. Agirre irakaslea da, baina denbora librean ordenagailuan diseinu lanak egitea gustatzen zaio. "Ez naiz profesionala. Freehand eta Photoshop programak erabili ditut kartela egiteko. Nire lanagatik noizean behin erabili behar izaten ditut programok, baina zaletasuna da gehiago", azaldu digu Belen Agirrek.

**PARTE-HARTZE TXIKIA**

Guztira 43 lan aurkeztu dira aurten lehiaketara. Jai batzordeak azaldu du, baina, helduen kategorian oso jende gutxik hartu duela parte. Horregatik, datorren urterako jendea animatu nahi dute lehiaketan parte hartzera.

Gaztetxoak, ordea, zintzoagoak izan dira eta lan ugari aurkeztu dituzte. Taldeka ere aurkeztu dituzte marrazkiak. Eskolako 3, 4 eta 5 urteko gelek, esate baterako, taldean egin dute kartela.




2008ko jaietako kartel lehiaketako irabazlea. BELEN ARREGI

> UDALA

### Administrazio orokorreko teknikari posturako proba

Administrazio orokorreko teknikari postua lortzeko azterketa bertan behera gelditu zen iaz urrian, epaimahaia osatzeko arazoak izan zituztelako. Edozelan ere, dagoeneko eratu dute berria eta azterketa eguna ere finkatu dute. Ekainaren 20an izango da proba, Gasteizko UNEDen egoitzan (Pedro Asua kalea 2). Azterketa egin gura dutenek UNEDen agertu beharko dute 09:00etarako, eta nortasun agiria aurkeztu. Guztira, 48 pertsonak eman zuten izena azterketa horretarako.

> TAILERRA

### Buruhandiak nola egin ikasiko dute zapatuan gazteek

Aurtengo jaietako buruhandiak herrian egindakoak izatea nahi du Jai batzordeak. Hori horrela, gazte lokalekoei proposamena egin diete eurek egin ditzaten buruhandiak. Gazteek interesa azaldu dute eta Udalak buruhandiak egiten ikasteko tailerra antolatu die. Zapatuan izango da hori, 11:00etan, Aramaioko kultura etxean. Arrasateko Txatxilipurdi elkarteko kide bat etorriko da Aramaiora tailerra ematera. Izenik eman ez arren, interesa duen edonor gertura daiteke kultura etxera.

**HERRI KIROLAK** > UEMA

## Uemaren urteko batzarreko herriko kirolen proban zortzi aramaioar izango dira bihar

Ekainaren 2an herri kirolen 'Xiba' lehiaketan ere izan ziren Gasteizen, baina ez zuten lortu finalerako sailkatzerik

**A.B.** > ARAMAIO

Uemak urteko batzarra egingo du bihar, zapatua, Azpeitian. Jaia ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, herri kirolen proba egingo dute. Aramaioko zortzi gaztek hartuko dute parte proba horretan: lau neska eta lau mutilek: Lierni Altuna, Araitz Garai, Naiara Unamuno, Idoia Beitia, Mikel Berasaluze, Andoni Elejalde, Jokin Balantzategi eta Jon Errastik.

11:30ean hasiko dira herri kirolak eta bi ordu inguruko saioa izango da. Sokatira, txingudia, lokotxak eta egur pila dira egin beharko dituzten probetako batzuk.

**'XIBA' LEHIAKETA**

Aramaioko zortzikoteak Ikastolen Konfederazioak *Gara* egunkariarekin batera antolatutako *Xiba* herri kirolen lehiaketan ere parte hartu berri du. Ekainaren 2an Gasteizen izan ziren, Arabako kanporaketan. Lan ona egin zuten, baina ez zuten lortu finalerako sailkatzerik. *Xiba* lehiaketaren finala ekainaren 30ean izango da. Urtero moduan, Zuberoan egingo da, Euskal Herria Zuzenean jaialdiarekin batera.

Eusebio Villar > Leintz Gatzagako alkatea

# "Bidegorriaren proiektuak ez digu inolako onurarik ekarriko"

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

**Urtebete pasatu da alkate kargua hartu zuenetik, eta oso bizkor pasatu dela dio. Eguneroko lanak jan egiten du, baina hemendik aurrera ordu gehiago pasatuko ditu udaletxean. Astelehen goizean, bidegorriaren proiektua aztertzen topatu genuen.**



Eusebio Villar alkatea bidegorriaren proiektua aurrean duela astelehen goizean. MIRARI ALTUBE

**Orain arte, akaso, aurreko agintaldikoek egindako lanei eman diezue jarraipena, baina aurtengo aurrekontua zeuok egin duzue. Igarri diozue horri?**

Oso gutxi; izan ere, diru kontuak zeresan handia dauka. Lanak egiteko 60.000 euro bakarrik izanez gero, ezer egiteko aukera gutxi dago.

**Orain, 1.000 biztanletik beherako herriei diru gehiago iritsiko zaizuela esan dute.**

Bai, Landa Garapeneko proiektua da, eta hemendik hilabetera abian egongo da. Egia esan, apustu handia da, konturatu direlako herri txikiok atzera geratzen gabiltzala. Herri handiak aurrera doazen heinean, zerbitzu alorrean esaterako, txikiok atzera egin dugu.

**Eta badakizue zenbat diru ailegatuko den Gatzagara?**

Bueno, proiektuak aurkeztu behar dira lehenengo, dirua lortzeko gero. Eta guk ideia asko ditugu, baina proiektuak egin barik; izan ere, dirutza da proiektua bera egitea, eta gero gauzatuko den ziurtasuna behar dugu diru hori gastatzeko.

**Baina proiektu bat badaukazue esku artean, Arlabango plan berezia, ezta?**

Bueno, eginda ez dago. Hiru arazo ditu proiektu horrek: bidegorria, ura eta azpiegitura orokorrak: argindarra… Hortaz, zertarako onartuko dugu arazoak sortuko zaizkigula jakinik? Eta Udalak ezingo lioke aurre egin uraren eta zerbitzuen arazoari.

**Hortaz, Udalarekin batera Aldundiak ere hartu beharko luke parte, ezta?**

Bai. Urarekin arazo handia daukagu, iturburu bat lehortu zitzaigun autobideko lanak egiterakoan, eta trenaren lanekin ez dakigu zer gertatuko den. Arazoak hor jarraitzen du, eta Aldundiak ez digu konpondu. Orain, agian, Landa Garapenak abian jarritako laguntzari esker bideratuko dugu, baina aurretik egon behar zuen konponduta.

**Eta bidegorriaren arazoa?**

Arazo latza da gero, eta herriari inolako onurarik ez dio ekarriko. Gure Ametsa jatetxeko ugazaba, esaterako, bidegorriaren proiektuaren zain dago, jatetxea handitu edo ez erabakitzeko. Eta herritarrendako ere ez da izango bidegorria; eskoriatzarrendako, aretxabaletarrendako eta arrasatearrendako bai, baina gatzagarrek automobila hartu beharko dute bertara joateko. Gainera, astean behin garbitasun lanak egiteko langile bat bidali behar dugu. Antzinako trenbidetik egingo dutela esaten digute, baina dagoeneko ez dago trenbiderik; orain, baserrietara doazen bideak dira. Hortaz, zer gertatuko da bideekin? Eta zerbitzuekin? Ez dute aurreikusi ez komunik, ez aparkalekurik kanpotik datozenendako.

**"Arlabango planak hiru arazo ditu: bidegorria, ura eta azpiegitura orokorrak"**

**"Bidegorria trenbidetik egingo dutela diote, baina orain baserrietara doazen bideak dira"**

**"Azpiegitura lanak ondo doaz, eta uztailarekin batera bukatuko dituztela uste dugu"**

**"Autobidea zabaltzerakoan ere, autoak ez dira gutxituko gure errepidean"**

**Arazo guztiak konponduz gero, Arlabango plana ona izango litzatekeela uste duzu?**

Gatzagak zerbitzuen aldeko apustua dauka eginda; hau da, zerbitzuak emango dituen herria izan behar duela. Eta horretarako herrian ez dugu tokirik, Gatzagain da aukera bakarra. Egia da herria hilda gera daitekeela, baina ez dugu besterik.

**Azpiegitura lanak ondo doaz?**

Bai, oso ondo. Uztailaren bukaerarako bukatuko dituztela uste dut, eta gasa ere laster iritsiko da. Hirugarren fasea geratuko litzateke gero, zazpi etxe, baina diru asko behar du horrek, eta ez dakit noiz egin ahal izango den.

**Eta berogailua jartzeko asmoa duzue eskolan eta museoan.**

Bai, eskolakoa aurten izango da. Baina gatz museokoa aurrerago egingo dugu, beste lan batzuekin batera.

**Autobidea zabaltzerakoan herria isolatuta geratuko den beldurrik ez duzue?**

Ez. Pentsa zenbat automobil pasatzen diren, eta oso gutxi geratzen dira. Egunero pasatzen diren askok ezagutu ere ez dute egiten herria. Gainera, seguru nago automobilak ez direla gutxituko gure errepidean, bailarako jendeak berdin-berdin erabiliko du Gasteizera joateko.

**Komisio bat osatu gura zenuten herritarrekin; egin duzue?**

Bai, elkarteetako ordezkariekin eta gura duten herritar guztiekin elkartzen gara udal ordezkariok; baserritarrak eta tabernariak sartzea geratzen zaigu komisio horretan. Azken hilabeteotan ez dugu batzarrik egin, baina datorren asterako deituko dut.

UDALEKUAK

## Bikuñara joateko izenematea, zabalik

Zaldi gainean ibiltzeko lehenbailehen eman behar da izena

M.A. >LEINTZ GATZAGA

Uztaileko udalekuen barruan Bikuñako zalditegira (Araba) irteera antolatu du Gurelek, uztailaren 12rako. Udalekuetako ekintza izan arren zapatuan izango da, eta umeek gurasoekin joan beharko dute Bikuñara. Gainera, zaldiak erreserbatu egin behar dituzte zaldi gainean ibiltzea gura dutenendako; horregatik, lehenbailehen eman behar da izena. Interesatuak Labidea dendatik pasa daitezela.

Zalditegira irteera zapatuan egingo dutenez umeek, aste barrurako beste ekintza bat antolatu dute Gureleko kideek: Ariznabarrako rokodromora (Gasteiz) irteera. Gaztetxoendako izango da hori, eta umeak, bitartean, igerilekuan ibiliko dira. Gainera, Gamarrako igerilekura joango dira eta Gaztainuzketara gaua pasatzera.

> ZERGA

### Ondasun higiezinen errolda ikusgai dago udaletxean

Hiri eta landa izaerako ondasun higiezinen zergaren urteko errolda dago ikusgai udaletxean. Herritarrek 15 laneguneko epea daukate ordaindu beharrekoa kontsultatzeko, eta konforme egon ezean erreklamazioa aurkezteko. Epea pasatutakoan urteko zerga kobratuko die Aldundiak ordainagiria helbideratuta daukatenei, eta gainerakoek Bergaran dagoen bulegoan ordaindu beharko dute.

> JAIAK

### Jaietako txosnan egoteko izenematea zabalik dago

Iraileko lehen aste bukaeran ospatuko dituzte Andramari jaiak, baina dagoeneko antolaketa lanetan dabil Udala. Hala, urtero San Migel plazan jartzen duten txosnan egoteko jendea behar du, eta deialdia egin die herritarrei izena eman dezaten. Ekainaren 24a bitartean eman dezakete izena interesatuek, udaletxean.

> MENDIA
### Gauerdian hasiko dute Hiru Handiak proba, Zalduondon

Urtero moduan, aurten ere debagoiendar mordoa animatu da Hiru Handiak mendi zeharkaldia egitera; Aizkorri, Anboto eta Gorbeia mendiak batzen dituena.

Gaur hasiko dute 100 kilometroko martxa (00:00), eta bihar arratsalde-gauean iritsiko dira Otxandiora.

> TRIATLOIA
### Ibarreko atletek bi hitzordu izango dituzte asteburuan

Ibarreko triatloilariek bi hitzordu izango dituzte asteburuan: batetik, bihar egingo dute Zarauzko triatloia, estatu mailako ezagunenetakoa –14:45ean emakumezkoak eta 15:00etan gizonezkoak–.

Bestetik, domekan egingo dute Donostian Gipuzkoako Sprint Txapelketa (10:00).

> GIMNASIA ERRITMIKOA
### Dragoiko gimnasten erakustaldia hilaren 18an izango da

Arrasateko Dragoi gimnasia taldekoek gaur egin behar zuten herritarren aurrean gimnasia erakustaldia, baina datorren eguaztenera, hilak 18, atzeratu dute.

Horrenbestez, Dragoiko neskek datorren eguaztenean egingo dute erakustaldi hori, Seber Altuben.

> SQUASHA
### Alberto Ferreiro da Debagoieneko txapelduna

Joan den asteburuan jokatu zuten Arrasaten Debagoieneko Squash Txapelketa absolutua, eta Alberto Ferreiro izan zen onena. Ferreirok Enrique Lopez izan zuen finalean kontrario (3-0).

Gazte mailan, berriz, Igor Elortzak eta Igor Hernandezek jokatu zuten finala (1-2).

> GIMNASIA ERRITMIKOA
### Kadete eta gazte mailetan Ariznoakoak Euskadiko txapeldun

Joan den astean Gasteizen egin zuten Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa. B mailako kadeteek urrea jantzi zuten uztai eta mazo modalitatean. Eta, gazte mailako taldeak ere beste horrenbeste lortu zuen uztai eta zintekin egindako saioan. A mailako kadeteek, berriz, brontzea jantzi zuten.

**MENDIKO BIZIKLETA** > EUSKADIKO OPEN SPIUK TXAPELKETA

# Bihar, 16:30ean, Euskadiko Openeko proba Arrasaten

Aramaiori errelebua hartu eta Arrasaten egingo dute, bihar, Euskadiko Openaren barruan mendiko bizikleta lasterketa; bihar ere gura beste lokatza izango dute

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Biharko lasterketa Euskadiko Openeko seigarren proba izatearekin batera Gipuzkoako Txapelketa ere izango da: "Sari gehiago banatuko ditugu, eta, neurri batean, horrek garestitu du lasterketaren aurrekontua. Urtero moduan, aurten ere izerdia bota dugu proba antolatzeko beharrezkoak ditugun 3.000 euro pasatxoak lortzeko; alde horretatik, eskerrak probako babesleei", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen baina bihar bizikleta gainean egongo den Felix Zugastik.

**LANAK ZIRKUITUAN**

Ederrakoek aurten antolatu duten lasterketak ibilbideari dagokionez, ez du iazkoarekin aldaketa nabarmenik. Hori bai, aurten gogotik egin behar izan dute lan zirkuitua txukuntzeko: "Pista horietatik inor ez da ibiltzen, eta belarra oso hazita zegoen". Horrekin batera, harriak bidetik kendu, traba egiten zuten pinu enborrak alboratu eta azken egun hauetan arekak egiten ere ibili dira: "Ikutixo inguruan lokatz handia egongo da. Han dagoen erreka ere hazita dago, eta lokatz gutxiago batzeko arekak egiten ibili gara, ura errekara errazago joan dadin".

Hala, zirkuituaren ezaugarrien gainean ere egin du berba Zugastik: "Euri mordoa bota du, baina uste dut ibilbide ia dena bizikleta gainean egiteko moduan egongo dela. Izan ere, bizikletak eskuan aldapa gora korrika igo behar izatea moralki gogorra izaten da, inork ez du horrela ibili gura izaten". Jaitsieran, baina, kontuz ibiltzeko tramuak daudela onartu du Ederrakoak: "Bai, badaude zati teknikoak, bizikletan goazenendako entretenigarriak eta ikusleendako ikusgarriak izango direnak. Egia da lokatzarekin zailagoa dela tramu horiek behar den moduan jaistea. Hala, proba hasi aurretik jendeari esango diogu lehenengo jaitsiera kontu apur batekin egiteko. Hortik aurrera, bakoitzak jakingo du zenbat arriskatu".

**MENDIKO BOTEKIN**

Ikusleendako tramu bat aukeratzeko eskatzerakoan, Zugastik Ikutixo aldera egingo duten jaitsierako tramua aukeratu du: "Hori da leku politena, duda barik, basoa delako eta malda ederrak daudelako. Alde ona dago lasterketa hor ikustearen edo Ikerlaneko parkingean ikustearen artean; hori bai, Ikutixora mendiko botekin joan behar da".

Bistan dago, horrenbestez, joan den astean Aramaion moduan biharkoa ere proba gogorra izango dela, zirkuituaren egoera ez delako aproposena izango. Horrelako aurreikuspenen aurrean, bizikletak zelan prestatzen dituzten galdetu diogu antolatzaileari: "Lokatzetan ibiltzeko gurpil-azalak jartzen dizkiogu bizikletari, eta aldagailuetako transmisioak lana ondo egiten duela begiztatzen dugu, lokatzarekin bizikletak izugarri sufritzen duelako eta bizikleta berehala hasten delako arazoak ematen. Bestalde, frenoetako pastillak ere egoera onean behar dute. Zirkuituan zehar ur asko baldin badago, posible da estreinatu berri dagoen bizikleta bat freno barik geratzea, pastillak erabat gastatzea".

**APEZETXEA FABORITO**

Joan den astean bigarren helmugaratu bazen ere –Iñaki Lejarretaren parte-hartzearekin, gainontzekoek ez zuten aukera handirik–, Asier Apezetxea da biharko lasterketarako faboritoa. Openean hura dago lider, eta Aramaioko lasterketa amaitutakoan onartu zuen Arrasatera ere irabazteko asmoz zetorrela, orain momentuan gorputzaldi onean

ESANAK

**"Euskadiko Open barruan egotearekin batera, Arrasaten Gipuzkoako Txapelketa egongo da jokoan"**

**"Igoeran ez dugu uste lokatz askorik egongo denik, zona horretan lurra gogorra delako; jaitsieran bai, lokatz handia egongo da"**

**Felix Zugasti** > Antolatzailea



Ederra taldeko Igor Baz Ikutixorako jaitsiera egiten,

DEBAGOIENEKO BI TALDEAK



**Ederra taldea**

Ederra mendiko bizikletako taldea, Lizarralde Kirolak taldearen moduan, Dorletako Ama elkartearen barruan dago. Elite mailan lehiatzen dabiltzan ziklistek osatzen dute talde hori. Eurek antolatu dute proba.



**Lizarralde Kirolak taldea**

Lizarralde Kirolak taldea, berriz, gazte mailako ziklistek osatzen dute, eta talde hori berriagoa da. Taldekide horiek errepidean edo bizikletako beste modalitate batzuetan –trialsina– ere lehiatzen dira.



ikusleen begiradapean, iazko lasterketan. XABIER URTZELAI

dagoelako. Nafarrak izango dituen kontrarioen artean Unai Yusek baieztatu du proban egongo dela, baina hura ziklokros denboraldian egoten da benetan indartsu, orain ez dago onenean, eta domekan Berrizen egingo duten nazioarteko lasterketan egon gura du.

Hasieran aurreratu moduan, bihar 16:30ean hasiko da Arrasateko lasterketa. Elite, master eta 23 urtez azpiko kategoriatako ziklistak irtengo dira lehenengo, eta bost minutu geroago irtengo dira emakumezkoak, juniorrak, kadeteak, master 40 kategoriakoak eta beteranoak: "Lehen bi lasterketa egiten genituen, baina asko luzatzen zen dena, eta orain lau edo bost minutuko aldea baino ez da egoten bi txanden artean. Horrela, ikusleendako lasterketa bera ere ikusgarriagoa izaten da".

IBILBIDEAREN PROFILA

## Sei kilometro pasatxoko ibilbidea

Ederrako taldekideek Ikutixo aldean egin dute azken urteotan mendiko bizikleta irteera, Ikerlaneko parkingetik hasita. Lehenengo kilometroetan Olandixora igo eta Mururako bideari helduko diote, gero Ikutixoraino jaisteko. Euriaren eraginez, jaitsiera erabat lokaztuta egongo da, eta hori da zirkuituko tramu teknikoena.

Baina ibilbide horrek baditu hainbat gauza on: igoerak ez dira itogarriak, eta gainera, lurra gogor dago hor. Hau da, igoeran ez da lokatz askorik egongo.




ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko irabazleak

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

ZU IZAN ZARA IRABAZLEA, ZORIONAK!

CANON KAMERA
EROSKI zurekin
Irabazlea:
MAITE MUÑOZ ARRIETA (Bergara)

KAMISETA+POLTSA
skunkfunk
Irabazlea:
KRISTINA ATXA GALLASTEGI (Bergara)

ZIRA+KAMISETA
EKFB Euskal Selekzioa
Irabazlea:
MARIJO EROSTARBE GARITANO (Oñati)

KAMISETA+URTEBETERAKO HARPIDETZA +ALDIZKARI SORTA
EUSKAL HERRIA
Irabazlea:
PATXI CABO FERNANDEZ (Antzuola)

SARI NAGUSIKO IRABAZLEA:
ANNE LOPEZ ZUBIA
(Bergara)
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEAN
BI PERTSONARENDAKO BAZKARIA



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

**PILOTA** > DEBARRO TXAPELKETA

# Ibarreko pilotarien artean banatuko dituzte Debarro txapelketako sariak

Partiduak domeka goizean izango dira; kadete mailakoa 10:30ean hasiko da eta gazteek eta seniorrek ondoren jokatuko dute


Uarkapen jokatutako finalerdia: Arrasate eta Antzuola. JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Domekan jokatuko diren Debarroko txapelketako finaletan talde guztiak ibarrekoak izango dira. Nagusien mailan, Antzuola eta Elgeta lehiatuko dira nor baino nor gehiago; gazteen mailan, Arrasatek eta Eskoriatzak jokatuko dute finala; eta kadete mailan, Aretxabaletak eta Eskoriatzak. Finalak 10:30ean hasiko dira, Arrasateko Uarkape pilotalekuan.

**HIRUROK SARIA, GOGORRA**

Senior mailako finala Hirurok saria izango da. Finalaz berba eginda, "gogorra" izango dela esan dute bi taldeetako arduradunek. "Guk bezperan beste partidu bat daukagu; hortaz, finala euren alde dagoela uste dut", esan du Juan Luis Uberak, Elgetako arduradunak. Ligaxkan lan ona egin zutela gogoratu du Uberak: "Taldeko lehenengoak geratu ginen, Bergara, Eskoriatza eta Antzuolaren aurretik. Gero, finalerdian Elgoibar utzi genuen atzean". Felix Agirre Antzuolako arduradunak, ostera, zail ikusten du finala irabaztea. Hala ere, pozik dago pilotariek Debarro txapelketan egin duten lanarekin eta finalera iristea espero zutela dio.

**GAZTE MAILA**

"Gustura gaude, etxean jokatu den txapelketan finalera iritsi garelako", dio Mauri Zubillaga Arrasateko arduradunak. "Agiriano ondo dabil; hortaz, zaila izango da Eskoriatzarren aurkako lehia", dio. Eskoriatzako Joseba Iñurrategik, ostera, Bolinaga "arriskutsua" dela dio: kontuan hartzeko pilotaria. Gaineratu du beste elkarteek ez bezala Eskoriatzak bi mailetan –gazte eta kadete– sartu dituela pilotariak finalean.

"Ligan, Aretxabaleta baino gehiago izan ginen; hortaz, finala irabazteko aukerak baditugu", esan du Eskoriatza taldeko Iñurrategik, finalaz galdetuta. Jose Ramon Urrutia UDA pilota saileko arduradunak dio "zaila" ikusten duela Eskoriatzari irabaztea. Gaineratu du ligan gehiago izan direla eskoriatzarrak. Hala ere, finaleko emaitza kontuan hartu barik, pozik dago Urrutia pilotariek egin duten lanarekin.

**ELGETAKO LAU T'ERDIKOA**

Elgetako ETB kantxa sarian aurrera jarraitzen duen ibarreko pilotari bakarra Aitor Mendizabal da. Egungo txapeldunak hilaren 20an jokatuko du finallaurdena Renobalesen aurka.

### Finaleko taldeak eta pilotariak

**SENIOR MAILA**

**Antzuola**
> Aitor Mendizabal
> Xabier Biteri

**Elgeta**
> Xabi Andreu
> Iñigo Irureta
> Aitor Ubera

**GAZTE MAILA**

**Arrasate**
> Ibai Bolinaga
> Iker Agirregabiria

**Eskoriatza**
> Alex Oiartzabal
> Xabi Agiriano

**KADETE MAILA**

**Aretxabaleta**
> Jon Etxeberria
> Oier Mondragon
> Beñat Urrutia

**Eskoriatza**
> Oier Urrutia
> Eneko Zubizarreta

**ESKUBALOIA** > KORPUS TXAPELKETA

# Infantil mailako jokalari onenak Zubikoan izango dira

Bihar goiz eta arratsaldez jokatuko dute Zubikoa kiroldegian II. korpus Txapelketa; guztira 150 neska-mutikok parte hartuko dute

A.E. > OÑATI

Infantil mailako eskubaloi jokalari onenek parte hartuko dute bihar Zubikoan jokatuko den II. korpus Eskubaloi Txapelketan. Goiz eta arratsaldez izango dira partiduak; guztira zortzi selekzio ibiliko dira nor baino nor gehiago. Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean izango dira partiduak.

**SELEKZIOAK**

Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Euskadiko promesak izango dira parte hartuko duten selekzioak; bai nesketan eta baita mutiletan ere. Ibarreko sei jokalari ibiliko dira jokoan, denak oñatiarrak: Aitor Billar eta Ander Varela mutiletan eta Alazne Aierbe, Leire Ugarte, Igone Anduaga eta Lore Iñurritegi nesketan.

09:30ean neskek hasiko dute txapelketa: Gipuzkoa eta Euskadik jokatuko dute. Ondoren mutilen txanda etorriko da. Beste finalerdiak, bai nesketan eta baitan mutiletan ere, Bizkaiak eta Nafarroak jokatuko dute.

Hirugarren eta laugarren posturako lehia 15:30ean hasiko da eta finalak 17:30ean –neskena– eta 18:30ean –mutilena– izango dira.

**SARI BANAKETA**

Sari banaketa 20:00etan izango da, plazako kioskoan. Bestalde, Aloña Mendik gonbidatuta, jokalari guztiek Pago Uso elkartean bazkalduko dute, bi txandatan banatuta. Antolatzaileak gustura daude, eta txapelketa indartzea espero dute.


Iazko txapelketako jokalariak, Oñatiko plazan. ALOÑA MENDI




**> MUNDUMIRA**
Munduko kulturen jaiaren balorazio ona egin dute udalek > 45



**> IPHONE**
iPhone-aren bigarren bertsioa aurkeztu dute AEBetan. > 51

**> ELI BLANCO**
Goi mailako teknikaria da mekanizazio bidezko produkzioan. Aretxabaletarra da eta 27 urte ditu. Gustuko ditu esku-jokoak egitea, mendia eta rallysprinta.
> 50



# Oñati Abesbatzak omenaldia egingo dio Aita Malleari



## Datorren domekan izango da, hilaren 28an

AZALA: ALEX AZKARATE

Haren jaiotza dataren mendeurrena oroitzeko omenaldia egingo dio Oñati Abesbatzak. Koroa maite zuen Aita Malleak; hura da, besteak beste, Lagun Onak abesbatzaren aita

**JOKIN BEREZIARTUA** > OÑATI

Bizirik balego, Aita Malleak 100 urte beteko lituzke ekainaren 21ean. Arrazoi horregatik, haren bizitza eta abesbatzari egindako ekarpena gogoratzeko omenaldi xumea egingo dio Oñati Abesbatzak, ekainaren 28an. Aita Luis Mallearen busto bat jarriko dute jaioterrian, Munitibarren (Bizkaia), hain zuzen. Gainera, haren jaiotetxean oroigarri bat jarriko dute. Omenduaz gain, etxe berean jaiotako beste bi agustindarren izenak ere agertuko dira plakan: haren senide Pablo Onaindi eta Antonio Mallearen izenak, hain zuzen. Bukatzeko, Oñati Abesbatzak kontzertua emango du haren omenez, Santa Zezilian.

**BATETIK BESTERA IBILITAKOA**

Bizkaiko Munitibar herrian jaio arren, oso gazte zela etorri zen Oñatira, agustindarrengana. Hori, begian izan zuen istripuaren ondoren izan zen. Garai hartan zaila zen Elizak ezintasunak zituzten pertsonak onartzea. Aita Malleak, baina, osaba Pablo Onaindiren ezinbesteko laguntza jaso zuen agustindarren artean onartua izateko.

Munitibarretik Oñatira, eta Oñatitik Burgosera. Burgosen, Oñatin hasitako musika ikasketekin jarraitu zuen, Jose Mari Beobide eta Antonio Jose musikarien ikasle. Bertan apaiztu zen, 1931. urtean, eta Buenos Airesera egin zuen alde, eta han denbora luzez finkatu zen.

**30 URTE ARGENTINAN**

Argentinako hiriburuan hasi zen lehenengo aldiz koruko zuzendari lanetan. 1935etik organoa jo eta zuzendari gisa aritu bazen ere, 1939an hasi zen musika munduan ezagun egiten.

1939ko urtarrilean jaio zen Lagun Onak abesbatza. Hasierako talde haren osaera, baina, ez zen gerora izango zen berbera. Lehen talde hura Espainiako gerrak eragindako euskal errefuxiatuek osatzen zuten. Hala ere,



1969. urtean ateratako argazkia. Ezkerretik eskumara: Madina, Pepe, Angelita, Ormandi, Celedonio, Oleaga eta Mallea. XABIER UGARTE

## Aita Mallearen musika lanak

**EUSKARATUAK**

**Obra handiak**

> *Mesias*. (Oratorio osoa) G. F. Haendel.
> *Elias*. (Oratorio osoa). F. Mendelssohn.
> *Paulus*. (Oratorio osoa) F. Mendelssohn.
> *Ein Deutsches Réquiem* (lan osoa) J. Brahms.

**Obra laburrak**

> *150. salmoa*. (*Gores ezazue* kanta) C. Franck.
> *Redemption*. (*Lege berri aurrean* kanta) C. Franck.
> *J.Macabeo* (*Orratx dator garaituna* kanta) G. F. Haendel.
> *J.Macabeo* (*Aleluya eta Amen* kantak) G. F. Haendel.
> *140. cantata* (*Aintza eman* kanta) J. S. Bach.

**Eguberri kantak**

> *Aur maitagarri ederra*. J. Stainer.
> *Seaska baten estaña*. F. Gevaert.
> *Gau erdian*. V. Goikoetxea.
> *Aurtxo eder ori*. P. Aranaz.

**ERDARATUAK**

> *Mesias*. G. F. Haendel.
> *Elias*. F. Mendelssohn.
> *Lobgesang*. F. Mendelssohn.
> *La Creación*. Haydn.
> *Christ lag"*. J. S. Bach.

**BESTE EGOKITZAPENAK**

> *Laudate Domino*. Gounoud.
> *Lorea* . Erauskin.
> *Marcha turca*. Mozart.
> *Ator, ator*. Mallearen bertsioa.
> *Kaiku*. Mallearen bertsioa.
> *Agur Jaunak*. Mallearen bertsioa.

# Merezitako omenaldia egingo diote Aita Luis Malleari

(43. orrialdetik dator)

talde hark eraldaketa izan zuen urte hartan bertan: Aita Malleak parrokiako korua eta Lagun Onak abesbatza batu zituen. Ordutik (1939) eta AEBetara joan zen arte (1967), Lagun Onak abesbatza mistoa haren zuzendaritzapean ibili zen, kontzertu ezberdinetan errepertorio eusko-argentinar folkloriko zabala eskainiz. AEBetan ere izan zen hamar urtez, New Yorkeko Bronx auzo mitikoan. Han ere jo eta ke ibili zen musika arloan.

Oñatira, azkenik, 1977. urtean bueltatu zen eta agustindarren elizako organo jolea izan zen 2002ra arte. Urtebetera, 2003ko ekainaren 13an hain zuzen, hil zen Aita Luis Mallea, 94 urte zituela. Azken urteetan ezagutu zuen Xabier Ugartek, Oñati Abesbatzako kideak. Ugartek "elizgizon, musikari eta euskaldun" moduan gogoratzen du Aita Mallea.

**LAGUN ONAK ABESBATZA**

Munduan zehar hamaika txoko ezagutu bazituen ere, Buenos Airesko komentua izan zen, ezbairik gabe, Aita Mallearen bigarren etxea. Ez da gutxiagorako, Argentinako hiriburuan 30 urte pasa zituen-eta. Bertan sortu zuen Lagun Onak abesbatza. Ekarpen handia izan zen, eta ez bakarrik musikarentzako. Izan ere, koru hura euskaldunen ikur eta topaleku bihurtu zen, Espainiako gerraren erruz hainbat euskaldunek Buenos Airesen amaitu baituzten, errefuxiatu. Azken horregatik eta, noski, eskaini zituzten kontzertu bikainengatik, da hain ezaguna Lagun Onak abesbatza.

**Oñati Abesbatzak Aita Mallea zein musikari agustindar entzutetsuenen bilduma kaleratuko du, CD baten. Lan sorta hori Oñatiko eta Euskal Herriko abesbatzen artean banatzea da asmoa**

**MOLDAKETA ETA ITZULPENA**

Aita Luis Mallearentzat, fedeaz gain, abesbatza izan zen bere bizitzako ardatza. Denbora batez finkatu zen edozein herrialdetan saiatu zen koruren bat sortzen. Hala ere, musika munduari egindako ekarpena ez zen abesbatzak sortzera mugatu.

Musikari oso ona zen Aita Luis Mallea. Ez zuen pieza berri askorik sortu, baina Oñati Abesbatzako partaide Xabier Ugartek dioenez, "kantu berriak konposatu baino gehiago, ezagunak ziren piezak moldatzen aditua zen". Moldaketetan, esate baterako, bi ahotseko kantuak lau ahotsera egokitzen zituen. Eta ez hori bakarrik, kantuak euskarara edota erdarara itzultzen ere abila zen apaiz bizkaitarra. Haren itzulpen sonatuenetakoak, besteak beste, Andelen *Mesias* eta Haydnen *La Creacion* obrenak izan dira. Hori guztia gutxi balitz, Gabon kantuak ere egokitu zituen.

**AITA MADINAREN LAGUN MINA**

Aita Malleak ezin hobeto ezagutu zuen munduari begira entzutetsuena izan den konpositore oñatiarra. Aita Madinaz ari gara, *Aita Gurea*-ren egileaz, hain zuzen. Ezin da ahaztu euskal koruetan gehien interpretatu diren obretako bat dela *Aita Gurea*. Bi elizgizonek 1920. urtean ezagutu zuten elkar, Latina eta Humanitateak ikasten zebiltzala. Bai Buenos Airesen bai New Yorken elkarrekin izan ziren eta euren arteko harremana oso ona izan zen.

**AGUSTINDARREN LANEN BILDUMA**

Agustindarren musika ekarpena betikotzeko asmoz, Oñati Abesbatza proiektu berri baten murgilduta dago. Xabier Ugartek jakinarazi duenez, agustindarren musika lanak eta partiturak batu, eta CD baten argitaratuko dituzte.

Hala, agustindarren musika lanen zati handi bat CD bakar baten jasotzeko aukera izango da. Lan hori, batez ere, elizako eta Gabonetako kantuz osatuta egongo da, eta musika lanok Aita Luis Mallea, Aita Fernando Urkia, Aita Madina eta Aita Jose Mari Ugarterenak dira. Musikari agustindar entzutetsuenen obrak ezagutaraztea da helburua, eta horretarako, bilduma hori Oñatiko eta Euskal Herriko abesbatzen artean banatuko dute.

## Lagun Onak abesbatza famatu egin zen Argentinan

1939. urtean sortu zuen Aita Luis Malleak Lagun Onak abesbatza. Lehen hilabeteetan euskal errefuxiatuek bakarrik osatzen zuten taldea, baina gero parrokiako argentinarrak batu zitzaizkien. Koruak hainbat kontzertu eman zituen Aita Mallearen zuzendaritzapean. Taldea ospetsu egin zen: bai Euskal Herrian, kanpoan zegoen koru euskalduna zelako, zein Argentinan, koruan euskaldunak zeuden-eta.



Irudian, Lagun Onak abesbatzaren emanaldi bat. XABIER UGARTE

**MUNDUMIRA** > BALORAZIOA

# Aurreko ekitaldietako "marka guztiak hautsi" dira Bergarako Mundumiran

Lehen aldiz egindako mendi bizikleta martxa, musika emanaldiak eta monje tibetarrek eskainitako saioaren arrakasta nabarmendu ditu Mankomunitateak



**ALPHA BLONDY** Erantzun bikaina jaso zuen Alpha Blondyren kontzertuak. JOSETXO ARANTZABAL

DATUA

**150.000**

**EURO**

Debagoieneko Mankomunitateak 150.000 euroko aurrekontua du Mundumira jaialdia antolatzeko: %27 erakunde publikoek jartzen dute, %34 erakunde pribatuek eta %39 Mankomunitateak.

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak amaitu berri den Mundumira jaialdiaren balorazio "erabat positiboa" egin du asteon. Aurreko ekitaldietako "marka guztiak hautsi" direla eta "izugarrizko jendetzak" parte hartu duela dio.

Ekimen arrakastatsuenak aipatu ditu antolatzaileak. Berritasunen artean, mendi bizikleta martxa nabarmendu du: "Aurreko ekitaldietan ez da horrelakorik egin, eta aurten arrakasta izugarria izan du". Jaialdiaren beste arrakastetako bat Oreka TX taldeak eskainitako emanaldiak izan dira. Egindako emanaldi guztiak jendez gainezka izan dira. Horretaz aparte, hitzaldiek, diaporama emankizunek eta monje tibetarrek egindako saioek ere jende asko erakarri dute.

**DERVICHES DEL CAIRO**

Mankomunitateak gogorarazi du aurten kalitate handiko musika taldeak etorri direla, hala nola Alpha Blondy eta Tasha's Word. Baina, era berean, adierazi du Egiptoko Kairoko derbitxeak taldeko artistek euren herrialdeko pasaportearekin arazoak izan dituztela eta ezin izan dutela jo.

Mankomunitateko Kultura teknikari Ana Erizek azaldu du aurtengo edizioa antolatzea 150.000 euro kostatu dela. Erakunde publikoek %27 jarri dute: Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza eta Gipuzkoako Kultura eta Turismo sailak. Erakunde pribatuek, berriz, %34 bideratu dute: Ulma, Kutxa, Ternua, Garaia, Fagor eta Euskaltel, besteak beste. Gainontzekoa Mankomunitateak jarri du.

Mankomunitateko Turismo arduradun Oxel Erostarbek aipatu du bailarak bi erronka dituela turismo arloan: "Gure eskaintza turistikoa naturako turismoan txertatzea eta mota honetako Euskal Herriko azoka garrantzitsuena Mundumira izatea. Bidea egiten ari gara, turismo arloa finkatzen eta Mundumirak lagundu egiten du horretan; bitartekoa da, bailara ezagutzera emateko".

**TRESNA ERAGINKORRA**

Erostarberen ustetan, Mundumira "finkatzen ari gara eta neurtu egin behar ditugu horrek Debagoienerako dakartzan onurak". Hala, gaineratu du ezin dela mugatu urtero herriz herri egiten den jaialdia izatera edo hiru egunetan Debagoiena munduko kulturen bilgune izatera. Hala, ohartarazi du "jaialdia ditugun erronken aurretik ipintzeko arriskua" dagoela eta Mundumira haziko dela bailaran "turismoa indartzeko tresna eraginkorra baldin bada".

Debagoieneko herrietako kultura teknikariek ere Mundumiraren gainean duten iritzia eman gura izan dute. Bergarako Kultura teknikari Maider Osaren ustez, jaialdia finkatuta dago. "Urtez urte indartuz joan den jaialdia da. Programazio aldetik, hasieran indartsu hasi bazen ere, urteekin eskaintza indartzen joan da. Partaidetza aldetik, bestalde, ikusi besterik ez dago aurten kaleetan pilatu den jendetza". Osaren ustetan, jaialdiak "asko ematen" dio bailarari. "Jendea oso gustura dago eta adin guztietako jendea gerturatzen da. Publiko askorengana iristen den jaialdia da".

Arrasateko Kultura teknikari Jon Garai iritzi berekoa da. Jaialdia egin den herrietan "oso harrera ona" eduki duela eta "estimuz" hartu dutela uste du. Apurka finkatzen doala eta dagoeneko bailarako kultura arloan, "lekua hartu" duen jaialdian bilakatu dela adierazi du.



**OREKA TX** Jendez gainezka izan ziren Oreka TX taldearen emanaldiak. J.A.

**ZINEMA** > MUGARIK GABEKO ZINEMALDIA

# Elkarhezitzen taldea gustura dago zinemaldiak orain arte izandako erantzunarekin

Mugarik Gabeko Zinemaldiak aurrera jarraitzen du: gaur Eskoriatzan hezkuntzaz jardungo dute eta Arrasaten, berriz, immigrazioaz

**M.B.** > ARRASATE

Mugarik Gabeko Zinemaldiak aurrera jarraitzen du bailaran. Astelehenean ekin zioten horri eta zapatuan, hilak 14, amaituko da. Egunotan Elkarhezitzen lantaldeak antolatutako hainbat film eta film labur ikus daitezke oraindik Arrasaten eta Eskoriatzan. Gaur, egubakoitza, *Alamitou* film laburra eta *Puente sobre el Wadi* filma botako dituzte Eskoriatzako Ibarraundi museoan, 19:00etan. Hain zuzen ere, hezkuntzaren gaiaz jarduten dute emanaldi horietan.

Arrasaten, berriz, immigrazioa landuko dute gaur Kulturaten, 20:00etan. Hasieran, Arrasateko immigrazioaren gaineko azterketaren aurkezpena egingo dute eta jarraian, *El viaje de Said* film laburra eta *I for India* filma ikusi ahal izango dira.

Bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokiak hartuko du Mugarik Gabeko Zinemaldia. Bidezko merkataritza izango da egun horretan gai nagusia. Interesa duenak *Strike 2* film laburra eta *Oro negro* filma ikusi ahal izango ditu. Zinemaldia itxi aurretik, Etiopiako kafea dastatzeko aukera izango dute Amaiara hurbiltzen direnek.

**ANTOLATZAILEAK, POZIK**

Elkarhezitzen lantaldeko kide Otavio Mattiazzo "oso pozik" dago zinemaldiak orain arte jaso duen erantzunarekin. Emanaldi arrakastatsuena Alberto Iñurrategi aretxabaletarrak aurkeztutako dokumentalaren gainekoa izan zen. Zinemaldia hasi aurretik izan zen hori: ekainaren 3an, hain zuzen ere. Mattiazzoren arabera, 500 pertsona inguru bildu ziren Amaia antzokian emanaldi hura ikusteko. "Zinemaldian sartu nahi genuen, baina Alberto Iñurrategik ezin zuen, Pakistanera joan behar zuelako. Gauzak horrela, aurretik egitea erabaki genuen", dio.

Astelehenean, ekainak 9, egindako inaugurazio ekitaldian, berriz, 86 lagun izan ziren Amaian: "Astelehena izateko oso kopuru polita da hori. Arrakastatsua izan zen". Diktaduraren gaineko emanaldiak ikusi ahal izan zituzten han. Arturo Ruiz Serranoren *Paseo* film laburra jendearen gustukoa izan zen. Martitzenean, berriz, lehenengo mahai-ingurua egin zen Kulturaten, isolamenduaren gainean; hain zuzen, 54 lagun izan ziren.

Esan bezala, oraindik hiru emanaldi falta dira ikusteko Arrasaten eta Eskoriatzan.



Elgetako **Izaro Arrazola** eta **Asier Osoro** ekainaren 7an ezkondu ziren Zarauzko parrokian. Otzarreta jatetxean egin zuten bazkaria eta orain bidaian dira Estatu Batuetan eta Kanadan. Zorionak eta ondo ibili, bikote! Etxekoen eta familiakoen partetik.



**Sergio Romero** eskoriatzarra eta **Usue Ugarte** oñatiarra bihar, zapatua, ezkonduko dira Oñatiko San Lorentzo ermitan. Zorionak, bien koadrilen eta familiakoen partetik. Pozik bizi zaiteztela urte askoan!



**Felix Txintxurreta** eta **Begoña Bedia** ekainaren 12an ezkondu ziren orain dela 40 urte. Zapatuan, familia osoarekin, Bedoñan ospatuko dute. Zuen seme-alaba eta Ikerren partetik, zorionak eta horrela segi!



**Veronica Sanchez** arrasatearra eta **Patxi Torres** zarauztarra bihar ezkonduko dira Musakolako San Isidro elizan. Bazkaria Zarauzko Kulixka jatetxean egingo dute, eta Karibera eta Maia Erriberara egingo dute bidaia. Zorionak, koadrilakoen partetik!


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 25 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 25 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 25 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle.**




## bono fotoa



## Gure bailarako zein herri ageri da argazkian?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta


Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..............................

IZEN-DEITURAK..............................
TELEFONOA..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Super BMn beti eskaintzarik onenak!


**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko **Jesus Mari Ezkurra**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Gernikan.**

## hildakoak

- **Nicanor Arazkonaga Alberdi.** Bergaran, ekainaren 6an. 95 urte.
- **Benigno Martinez Aparacio.** Aretxabaletan, ekainaren 6an. 76 urte.
- **Xabier Iltzarbe Rekarte.** Bergaran, ekainaren 8an. 78 urte.
- **Pedro Mendialdua Larrañaga.** Aramaion, ekainaren 8an. 80 urte.
- **Elena Zubiagirre Uriarte.** Oñatin, ekainaren 9an. 80 urte.
- **Joakin Iria Orue.** Arrasaten, ekainaren 9an. 71 urte.
- **Estefania Garro Albistegi.** Arrasaten, ekainaren 9 an. 78 urte.
- **Antonio Cid Cid.** Oñatin, ekainaren 9an. 92 urte.
- **Simon Mendieta Madinabeitia.** Arrasaten, ekainaren 10ean. 91 urte.
- **Jesus Maria Arregi Albisua.** Arrasaten, ekainaren 10ean. 70 urte.
- **Juliana Madariaga Larrañaga.** Bergaran, ekainaren 11n. 99 urte.

OROIGARRIA

## Mariaje Perez Etxarri

2007ko ekainaren 30ean hil zen, 49 urte zituela.

*Gure bihotzen taupaden hotsez zure grazia dugu kantatzen*

Agurtzane, Roman, Xabi eta Jon.
Bergaran, 2008ko ekainaren 13an.

OROIGARRIA

## Mariaje Perez Etxarri

2007ko ekainaren 30ean hil zen, 49 urte zituela.

*Inoiz ez zaitugu ahaztuko*

Debagoieneko ospitaleko lankideak.
Arrasaten, 2008ko ekainaren 13an.

OROIGARRIA

## Joakin Iria Orue

Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 9an, 71 urte zituela.



*Nahiz eta urak dakarrena urak daroan beti izango zara gure gogoan*

Zure ilobak.
Arrasaten, 2008ko ekainaren 13an.

OROIGARRIA

## Pedro Mendialdua Larrañaga

"Manzano"

Aramaion hil zen 2008ko ekainaren 8an, 80 urte zituela.



*Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko*

Zure familia.
Aramaion, 2008ko ekainaren 13an.

1. URTEURRENA

## Mariaje Perez Etxarri

2007ko ekainaren 30ean hil zen, 49 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 15ean,
12:30ean
Bergarako San Pedro elizan.

Zure lagunak.
Bergaran, 2008ko ekainaren 13an.

1. URTEURRENA

## Jose Maria Erle Lizarralde



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, ekainaren 14an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren Parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Maria Urrutia Otxoa



Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 15ean,
11:30ean
Aretxabaletako Jasokunde Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Kandido Aranguren Kortabarria

Manuela Arangurenen alarguna



Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 15ean,
11:30ean
Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

3. URTEURRENA

## Dorleta Villar Antxia

Hirugarren urteurreneko meza
domekan, ekainaren 15ean,
12:30ean
Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

2. URTEURRENA

## Ixabel Altuna Letamendi



Bigarren urteurreneko meza zapatuan,
ekainaren 14an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren Parrokian.
—
*Zure izaera gozoaren oroipena jarraibide on izango da guretzat betirako.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Xabier Ilzarbe Rekarte

2008ko ekainaren 8an hil zen, 78 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko ekainaren 13an

ESKER ONA

## Nicanor Arazkonaga Alberdi

Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 6an, 95 urte zituela



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko ekainaren 13an.

ESKER ONA

## Miguel Mendieta Madinabeitia

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 28an, 81 urte zituela

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko ekainaren 13an.

Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza berria salgai garaje itxiarekin. Herri erdi-erdian. Oso eguzkitsua. 12 m² ko terrazarekin. Erdi jantzia eta egoera onean. 671 66 01 69.

**Aramaio.** Etxebizitza salgai Nardeaga kalean. 945 44 51 01

**Aretxabaleta.** 72 m²ko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Bergara.** 70 m²ko etxebizitza salgai San Lorentzon. Berriztatua eta guztiz jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 943 53 22 19

**Bergara.** 80 m². Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Balkoi handia. Dena kanpoaldera. Berogailu eta igogailuarekin. 652 76 86 68

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Ia berria. Hiru logela, bi bainu, sukaldea, egongela, jangela. Jantzita. Oso eguzkitsua. 205.000 euro. 664 79 64 97

**Oñati.** 105 m²ko duplexa salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 330.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39

**Oñati.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai Moyua kalean. Hiru logela, ganbara, sukaldea, egongela eta komuna. Berritua. 228.384 euro. 655 90 97 72

**Oñati.** Apartamentu berria salgai herri erdi-erdian. Garaje eta guzti. Ordainketarako erraztasunak. 665 71 42 69

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. 210.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza errentan. Unibertsitate ondoan. 652 73 14 78.

**Granada**ko Alpujarran natura ingurune paregabean zortzi lagunendako etxea errentan. Terraza handia ikuspegi ederraz. Prezio interesgarria. Argazkiak *www.blogak.com/losmonteros* blogean. Harremanetarako: *jasonemendizabal@euskalnet.net* edo. 943 79 42 33.

**Jaca.** Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa, bi igerilekurekin (nagusia eta umeentzat) eta bi tenis pistarekin. Inguruan umeendako jolastokia. 665 73 95 65

**Oñati**. Bi logelako apartamentua ematen da errentan. Deitu 21:30 eta 23:00 artean. 699 78 47 49.

**Oñati**. Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, ikasturtean zehar bakarrik. 660 40 06 75.

**Peñiscola** (Castello). Lau edo sei pertsonarentzako moduko apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

**Torrevieja**. Apartamentua errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik hur. Bi logela, terraza, solariuma, garaje itxia eta elkarteko igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu 616 05 97 92 zenbakira.

**Bartzelona.** Datorren ikasturterako neskak behar dira etxea osatzeko Bartzelonan. 615 00 49 70.

**Debagoiena.** Etxebizitza partekatuko nuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Belorrieta auzoan garajea dago salgai. Deitu 617 30 50 69 telefonora.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Masterreka edo Santa Marina inguruan. 669 63 93 29.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko: garbitasun lanak egin eta paseatzera ateratzeko. Edo arratsaldeetan umeak zaintzeko. 943 53 33 92.

**BERGARA**

**Depor tabernak zerbitzari eta sukaldariak behar ditu. 629 26 88 51**

**BERGARA**

**Zapelaitz taberna errentan ematen da 943 76 12 86**

**ARRASATE**

**Esperientziadun ile-apaintzailea behar da egun osoz lan egiteko 615 79 05 75**

**ARAMAIO**

**Jatetxe batek asteburuetarako zerbitzaria behar du 690 85 52 25**

**ARRASATE**

**Sukaldari laguntzailea behar da. Autoa beharrezkoa 669 30 26 86**

**ARETXABALETA**

**Sukaldaria behar da plater konbinatuak, ogitartekoak eta pintxoak egiteko 647 05 42 75**

**Arrasate**. Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo tabernetan orduka lan egiteko. Deitu 659 34 68 05 zenbakira.

**Bergara.** Emakume bat prest pertsona nagusiak edo umeak orduka zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 664 74 82 07.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 676 87 64 08.

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. Jose. 680 75 14 88.

**Debagoiena.** Ikasketak dituen emakume esperientziaduna pertsona nagusi edo gaixoak zaintzeko, edo etxeko garbiketak egiteko gertu. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Emakume** euskalduna astean hiru egunez lan egiteko gertu (bi edo hiru orduz). Abuztua barne. Rosi. 943 77 16 01.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Uztailean eskola bereziak. Maila guztiak. Deitu 630 71 35 83 telefonora.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana** Sea Dinghy 2, 2.8 JTDI. 2002koa. 125 ZP, aire girotua, toldoa, bizikletak eramatekoa (3), literak. Sei bidaiariarentzat. IAT 2008ko apirilean. Bateria eta gurpil berriak. 92.000 km. 24.000 euro. 605 70 45 50.

**DEBAGOIENA**

**Autokarabana berria errentan ematen da 943 71 25 30**

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak** oparitzen ditut. Gris naparrak (marratuak). Amaia. 943 76 21 71.

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra** galdu da Antzuola eta Oñati artean. Tekel arrazakoa eta txikia. 'Siro' du izena. Marroi ilun eta beltza da. Mikrotxipa dauka. 676 99 74 00.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Autorako** bozgorailuak salgai. 50 euro. 617 13 17 51.

**Baxu anplifikadorea** salgai. HH burua 100 watt, Bassamp VS modeloa. Egoera onean. 180 euro. 607 21 19 69.

**Brain Trainning** berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

**Habia-ohea,** zur-latazko somierra eta bi koltxoi salgai. 150 euro. 656 41 00 08.

**Kutxa gotorra** salgai. 0,70 x 0,70 xx 1,15 neurrikoa. Egoera onean. 750 euro. 656 73 44 72.

**Ordenagailua** salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13.

**Sehaska** salgai. Egurrezkoa. Koltxoi eta guzti. 90 euro. 605 74 55 65.

**Snowboad** botak (Burton Hail, 10 zenbakia, egoera onean) eta fijazioak (Technine, gama altua, erabili barik) salgai. Dena batera 150 euro eta banatuta, 80 euro bakoitzak. 680 44 91 51.

**Taladroa.** Mahaiko taladroa saltzen da. Egoera onean dago. Interesatzen bazaizu deitu eta ikusi. 400 euro (negoziagarria). 679 10 95 23.

**Trikitia** salgai. Zero Sette Antico modeloa. Sol-do tonua. Prezio interesgarria. 608 12 38 15.

**Umearentzako karroa** salgai, Trio Chicco markakoa. Kotxe kapota, aulkitxoa eta kotxearendako aulkia, 40 € hirurak. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

### 806. GALDU

**Betaurrekoak.** Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Arrasaten maiatzaren 18 inguruan. Funda berde baten barruan zeuden. 943 79 62 28.

**Bergara**. Umearen jaka bakeroa galdu dut Poligonoan. 669 63 93 29

**Patinetea** galdu nuen Aretxabaletako Arlutz osteko kantxan, ekainaren 7an. Beltza da. 'Unai F.' izena dauka. 666 13 30 57.

**Umearen motorra** utzi nuen, ahaztuta, Aretxabaletako Gernika plazan. 'Naroa' izena dauka atzean jarrita. 943 53 30 39.

### 807. AURKITU

**Betaurrekoak** aurkitu nituen Aiba mendi martxan, Zabalaundi inguruan. Tolestu egiten dira. Arrasateko BAZ bulegoan daude. 943 25 20 00.

**BERGARAKO UDALA**

**Bergarako Udala, Udaleko Obra eta Zerbitzuetako pioi espezialista bat kontratu finkoarekin eta aldi baterako arkitekto teknikoa kontratatzera doa lehiaketa-oposizio bidez.**

**Lehiakideen baldintzak:**
Oinarrietan jasotakoak eta, besteak beste, ondorengoak.

**- Pioi espezialista**
a) 16 urte beteta izatea.
b) Eskolaratze ziurtagiria edo baliokidea.
c) B motako gida baimena edo baliokidea.

**- Aldi baterako arkitekto teknikoa**
a) 16 urte beteta izatea.
b) Arkitekto Teknikoaren titulazioa.
c) 4.H.E derrigorrezkoa.

**Instantziak aurkezteko epearen amaiera**
- Pioi espezialista: uztailak 2a.
- Arkitekto teknikoa: ekainak 30a.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta *www.bergara.net* webgunean.

*Bergara, 2008ko ekainaren 10a.*
*ALKATEAK*

BERGARAKO UDALA

*Enbasatzeko soluzio berritzaileak diseinatzen liderra den enpresak behar du:*

**■ ROBOTIKAKO APLIKAZIOETAKO ATZAPARRAK GARATZEN ESPERIENTZIA HANDIA DUEN PROIEKTUGILE MEKANIKOA**

-Atzaparrak garatzen, gutxienez, 3 urteko esperientzia.

-Packagingeko robotikako aplikazioetan esperientzia izatea baloratuko da, bereziki elikaduraren arloan.

-Ingelesa menperatzea.

**■ ROBOTIKA ETA IKUSPEN ARTIFIZIALEKO APLIKAZIOETARAKO PRODUCT MANAGERRA**

-Gutxienez 3-5 urteko esperientzia robotikako aplikazioetan, bereziki enbasatzeko makinen zamalanetan, batez ere elikaduraren arloan.

-Taldeak gestionatzen eta salmentarako laguntza ematen esperientziaduna.

-Ingelesa menperatzea.

-Nazioarte mailan bidaiatzeko prestasuna izatea.



ULMA Packaging

Eskaintzen dugu: garapen profesionalerako aukerak dituen enpresa talde sendoan lanean berehala hastea. Ordainsaria esperientzia eta erakutsitako balioaren arabera adostea. CVa ULMA Packaging, Giza Baliabideetako Saila. 145 P.Ku., 20560 Oñati

# ETXE AGENTZIAK

KOROSTI INMOBILIARIA

**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m². Gazteentzat.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Fraiskozuri 102 m². Bi balkoi.
- Ibargarai 106 m². Duplexa.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedro eta Zubiaurren.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Arrasate:**
- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

DEBA **GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Rekalde, 100 m², oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

# ZAHARRAK BERRI SAIOA

zahaRRak BERRI

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN **20:15**ean
EGUENETAN **13:15**ean

## Aste honetan:



**NOIZ: Ekainak 18 eta 19**

**NOR: Irene Zenitagoia**

Gorosti loradenda

**GAIA: Larrosa liofilizatua**

URREZKO ZERBITZUA

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara
**SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34**

Goitb
Goiena Telebista

***Ikustekoa!***

Babeslea:
kutxa

**Eli Blanco** > Goi mailako teknikaria mekanizazio bidezko produkzioan

# "Eskujokoak baino errazagoa da tornuan piezak milimetroan egitea"

Eli Blancok, berandu izan bazen ere eta "etorkizun hobea izateko", goi mailako modulu bat ikasten hasi zen duela urte bi, eta lortutako emaitzarekin "oso pozik" dago. Lanaz gain, baditu bere zaletasunak; besteak beste, eskujokoak egitea eta rallysprintak ikustea. Azken hori "zirraragarria" iruditzen zaiolako, nahiz eta "beldur pixka bat" ere pasatzen duen.

JASONE ZABALA > ARETXABALETA

**Eli Blanco aretxabaletarrak 27 urte dauzka, eta mekanizazio bidezko produkzioan goi mailako teknikaria da. Kurtso amaierako praktikak egiten ibili da hiru hilabetez Portugalen.**



**Mekanizazio bidezko produkzioan goi mailako teknikaria zara. Gustatzen zaizun mundua da?**

Egia esan, 18 urterekin lanean hasi nintzen, eta garai hartan ondo nenbilen muntaia katean edo antzerako lanetan, baina urte batzuk pasa eta gero, konturatu nintzen ez nuela nahi horrelako lanpostu bat izan nire bizitza guztirako, eta, noski, nituen ikasketekin ezin nuen beste lan hoberik eduki. Horrela, lanean nenbilela lankide batek goi mailako sarrera proba egiteko esan zidan. Hasieran pentsatzen nuen ez nintzela gai hori gainditzeko, baina lortu nuen. Gainditu ondoren, lantegian bertan galdetu nuen gaur egun lan munduan zein ikasketak zuten irteera ona, eta mekanizazioak zuela esan zidaten; beraz, hori ikastea erabaki nuen. Hasieran ez nekien nire gustukoa izango zen edo ez, baina goi mailako modulua egiten aritu naizen bi urte hauetan ikusi dut benetan gustuko dudala.

**Askok diote gizonen ikasketak direla zuk burututakoak. Ados zaude?**

Ez dut uste bakarrik gizonezkoendako ikasketak direnik. Bizi garen garai hauetan, oraindik ere entzuten da neskak izateagatik horrelako lanpostuetan mutilak baino zailagoa daukagula, baina erakutsiko diegu askori oker dabiltzala baieztapen horrekin! [Barre]

**Gainera, azken hiru hilabeteak Portugalen egon zara kurtso amaierako praktikak egiten. Nolakoa izan da esperientzia?**

Nire bizitzako esperientziarik politena izan da. Jende asko ezagutu dut. Portugalen egonda gehienek portugaldarrak izan beharko lukete, baina ez da horrela izan: gehienak euskaldunak ziren, eta oso ondo pasa dugu. Astean zehar mekanizazio lantegi batean egiten genuen lan. Aisialdirako denbora ere izaten genuen. Asteburuetan parrandaren bat edo beste egin, Lisboa ezagutu eta bidaiak ere egin ditugu, Algarveko hiru edo lau herritan eta Oporto aldeko beste lau edo bost herritan, benetan oso ondo pasa dugu. Etxean hiru pertsona geunden: portugaldar bat, Bergarako neska bat eta hirurok. Ni Erasmusetik joan naiz hara, eta edozeinek halako aukerarik izanez gero atzerrira joateko animatzen dut.

**Zer da errazagoa, eskujokoak (malabarismoak) egitea lurrera jausi gabe ala tornuan piezak milimetroan egitea?**

Ikasketak hasi nituenean galdetu izan bazenit, eskujokoak egitea errazagoa dela erantzungo nizukeen; baina bi urte pasa eta gero, errazagoa da orain niretzat tornuan piezak milimetrotan egitea, nahiz eta oraindik esperientzia falta zaidan.

**Herriko dantza taldean ere ibilitakoa zara, bai ikasle moduan eta baita irakasle moduan?**

Ikasle moduan 3 edo 4 urterekin hasi nintzen eta 17 edo 18 urterekin utzi nuen, taldea desagertu egin zelako. Irakasle lanetan ere aritu naiz, herriko kintoei dantza erakusten; kostata, baina saiatzen ziren.

**Emakumeetan oso ohikoa ez den zaletasun bat ere badaukazu: rallysprintak ikustera joatea, hain zuzen ere. Nondik zaletasuna?**

Zuzenean ikustea zirraragarria iruditzen zait; beldur apur bat ere pasatzen dut, baina... Lasterketa bakoitzean sortzen den giroa oso alaia eta jatorra izaten da. Bestalde, lasterketak telebistatik ikustea ez dut hain gustuko, ez daukate emozio bera.

**Bidaiatzea ere gustuko duzu. Pentsatu duzu oporretara nora joango zaren?**

Orain arte ez zitzaidan bidaiatzea askorik gustatzen. Portugalen ere hori ikasi dut, bidaiatzea oso polita dela, alegia. Orain arte atzerrira joateak beldurra ematen zidan. Hala eta guztiz ere, uste dut aurtengo udan, lana dela-eta, opor barik geldituko naizela.

**Etorkizunean nola ikusten duzu zure burua?**

Ez dut etorkizunean pentsatzen. Bizitza momentuan bizi behar da. Urte batzuetara, baina, familia osatzea espero dut, eta zoriontsu izatea, gehienon moduan.



JASONE ZABALA

### PERTSONALA

**Herria:** Aretxabaleta. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Goi mailako teknikaria mekanizazio bidezko produkzioan. **Zaletasunak:** Eskujokoak egitea, mendia eta rallysprinta. **Gorrotatzen duzu zerbait?** Usain txarra. **Gomendatzeko moduko film bat:** *Fuera de carta*. **Betetzeko daukazun amets bat:** Mundu osoa ezagutu. **Musikari bat:** Piperrak taldea. **Rallysprint lasterketa onena non?:** Fiton, Asturiasen. **Bidaiatzeko toki bat:** Edozein. **Zer eramango zenuke ezer ez dagoen uharte batera?** Mutil laguna.

**TELEFONIA** > APPLE IPHONE

# iPhone-aren bigarren bertsioak 3G teknologia eta GPSa izango ditu

Telefono berria hedatzeko itunak sinatu dituzte 70 herrialdetara heltzeko, urtea amaitu aurretik

Uztailaren 11n ipiniko dute salgai Hego Euskal Herriko Telefonica eta Apple dendetan



Sakelakoak teklarik ez du, ukitzeko pantailarekin maneiatzen da. IMANOL SORIANO

**IMANOL SORIANO** > BERGARA
Sakelako telefonian iraultza ekarri zuen iPhone-ak. Urtebete bete ondoren, Apple-ek bigarren bertsioa aurkeztu zuen astelehenean San Frantziskoko (AEB) Mascoce Center erakustazokan egin zen mundu osoko garatzaileen bilkuran (WWDC08).

**DISEINUA ETA TAMAINA**
Aurreko modeloarekiko ezberdintzen dituen ezaugarriak ditu modelo berriak. Oraingo modeloaren atzeko aldea kolore bakarrekoa da eta bi kolore artean aukera daiteke, edukieraren arabera: beltza eta zuria.

Aurreko modeloak baino bi gramo gutxiagoko pisua badu ere, ez da gauza bera gertatzen tamainarekin: zertxobait handiagoa da. 115,5 mm altueran (lehen, 115 mm), 62,1 mm zabaleran ( lehen, 61 mm) eta 12.3 mm lodieran (11,6 mm, lehengoak).

**3G ETA GPS**
iPhone berriak 3G teknologia barneratuta du. Horrekin, hirukoiztu egin da azkartasuna. Hori gutxi balitz, 3G erabiltzen duten beste sakelako batzuekin alderatuz gero, %35 azkarragoa da. Bost segundo behar ditu e-posta jaisteko. Wi-fi sareekin antzerako abiadura lor daiteke.

GPSari dagokionez, kokalekua aurkitzen du GPS edo telefono dorreetatik zein wi-fi errepikatzaileetako datuen bidez. Gainera, hitz bilaketa eginez gero, inguruko saltokiak aurkitu eta mapan kokatzen ditu.

**MUNDU OSORA HEDATU**
Telefonoa mundu osora hedatu nahi dutela adierazi zuen Steve-Jobs Apple Inc. enpresako buruak: "Mundu guztiak nahi du iPhone bat eta eskuragarriagoa egin behar dugu". Horretarako, 70 herrialdetako telefono konpainiekin itunak sinatu dituztela iragarri zuen. Uztailaren 11n iPhone-a 22 herrialdetan eskuragarri egongo da; gainerako herrialdeetan, urtea amaitu aurretik.

**SALNEURRI MERKEAGOA**
Aurrekoa baino merkeagoa izango da. AEBetan 3G iPhone-aren salneurria 8 GB-ko modeloarendako 199 dolar (128 euro) izango da eta 16 GB-koarendako 299 dolar (192,5 euro).

**HEGO EUSKAL HERRIAN SALGAI**
Hilabeteetako zurrumurruen ondoren, Telefonicak Apple-ekin kontratua sinatu zuela baieztatu zuen pasa den astean prentsa ohar bidez. Asteon, oraingoan ere prentsa ohar bidez, Movistaren webgunean orri berezia (*movistar.es/iphone*) estreinatu dute iPhone-aren informazioa jaso nahi dutenendako. Salneurria eta izango duen tarifa oraindik ez dute adierazi.

## teknologia berriak

> KAMERA

### Abenturazaleendako bideokamerak kaleratuko ditu udan Oregon Scientific etxeak

Oregon Scientific etxeak ATC5K eta ATC3K kamerak merkaturatuko ditu aurki. Modelo berrien prestakuntzak arrisku kirolak gustuko dituztenendako dira aproposak, edozein tokitan ipin daitezkeelako: kaskoan, bizikletan... Grabazio bereizmena VGA izango da. 5K modeloarekin 53 gradutan gertatzen dena jaso dezake eta 1,5 hazbeteko LCD pantaila oso txikia du. AA pilak erabiltzen dituzte, lau GB-ra arteko SD txartelak.

Salneurria: 95 eta 126 euro.



3K modeloak 48 graduko ikuspen angelua du eta kalitate hobeko CMOS sentsorea.

> ARGAZKILARITZA

### BenQ T850: munduko argazki kamera digital konpakturik finena kalean da

Zortzi megapixeleko kamera digital konpaktu berria merkaturatu du BenQ etxeak.

Argazki kamera horren ezaugarririk bitxiena da bere fintasuna, horri eman baitiote garrantzia fabrikatzaileek.

Gehienezko ISO 1600eko sentikortasuna duen zoom optikoa dauka eta hiru hazbeteko LCD ukipen pantaila, hainbat mugimendu ezagutzeko gai dena kamerari aginduak emateko; eta SDHC txartelendako *slot*-a ere badu.



14,9 mm-ko lodiera baino ez du alderik finenean eta 120 gramo pisatzen du.

> AUDIOA

### Haririk gabeko bozgorailua, uretarako aproposa, egin du Neiman Marcusek

Udarako, igerilekuetarako edo hondartzarako aparailu interesgarria kaleratu du Neiman Marcusek: haririk gabeko bozgorailua, ura jasaten duena. Esfera itxura du eta uretan flotatzeko gai da. Minutu gutxi batzuetan ur azpira sartuz gero ere ez zaio ezer pasatzen. Haririk gabeko hargailua ere badu esferan bertan eta horretaz gain, audio erreproduzitzailea edo ipod-a ipintzeko transmisorea ere badu. 10 bozgorailu batera jasateko gai da, gainera.

Salneurria: 96 euro.



Bolumenaren araberakoa den arren, segidan erabilita sei ordura arteko iraupena izan dezakete pilek.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten
www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net

Goiena.net



## berriak

> PILOTA TXAPELKETA

### Debarroko Pilota Txapelketa eskainiko dute GOITBn

Datorren asteko *Jaiak* saioan, domekan Arrasaten jokatuko den Debarroko Pilota Txapelketa eskainiko dute GOITBn. Uarkape frontoian izango dira partiduak; hiru guztira, kadete, gazte eta senior mailetakoak. Pilotari guztiak izango dira debagoiendarrak: kadeteetan aretxabaletarrak eta eskoriatzarrak arituko dira; gazte mailan eskoriatzarrak eta arrasatearrak; eta nagusietan antzuolarrak eta elgetarrak.

> 'EUSKALDUNAK HIZKETAN'

### Familia harremanak gogoratuko dituzte datorren astean

*Euskaldunak hizketan* saioaren hainbat atal eskaini dituzte dagoeneko Goiena Telebistan. Garai bateko hainbat gai landu dituzte orain artean, eta datorren astean ere, garai hartako beste alderdi bat ekarriko dute gogora: hain zuzen ere, familia harremanak, eta baita gizonen eta emakumeen arteko harremanak ere. Urte haietako harremanen eta oraingoen arteko desberdintasunak, beraz, GOITBn.

> ARRASATE IRRATIA

### San Juan jaiak izango dira asteko protagonistetako bat

Egubakoitzean hasiko dira aurtengo San Juan jaietako ekitaldi nagusiak, eta ezin bestela izan eta irratian ere herriko jaiak izango dira datorren asteko protagonistetako bat. Asteburuko ekitaldietan zentratuko dira, baina dagoeneko jaietara begira, irratsaio berezia dabiltza prestatzen irratiko lankideak, etxean edo lanean dagoen entzuleari jaiak ere zelanbait helarazi guran.

> ARRASATE IRRATIA

### Bitxiak, datorren astean entzuleen artean zozketatzeko

Opari kuriosoak ematen jarraituko dute irratiko lankideek datorren astean. Oraingo honetan, bitxiak dituzte entzuleen artean zozketatzeko. Hain justu, Iruñeako Karrikiri dendak emanda lepoko eta eskumuturreko bana dituzte, lauburudunak.

Zozketan parte hartzeko: 943 25 05 05 edo Internetez: *irratia@goiena .com* edo *goiena.com*. Zozketa izango da egubakoitzean 11:30etik 12:00etara.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Elkarreko editore Xabier Mendiguren, 'Ilunpean' saioan

Filologoa formazioz, Elkarreko editorea da egun Xabier Mendiguren; horretaz gain, idazlea ere bada

**GOIENKARIA** > BERGARA

Beasainen sortua, filologia ikasketak egindakoa, eta egun Elkarreko editorea. Baina Xabier Mendiguren, Elkarreko editore izateaz gain, idazlea ere bada: gazte eta haur literatura landu ditu, eta baita bestelako eleberri ugari argitaratu ere. Horretaz guztiaz gain, urtebetez sarean egunero hornitzen zuen bloga euskal internauten artean irakurrienetarikoa izan da. Euskal kulturaren kontsumitzailea, zinemara eta antzokietara sarri joaten da. Haren bizitzako gorabeheren gainean jardungo dute *Ilunpean* saioan.



Xabier MendigurenGoiena Telebistan egongo da gaur. IKER BARANDIARAN

**'ERREPORTAJEA'** > ASTELEHENA, 21:47

# ARTE Arrasateko Tailagileen Elkartearen gainekoa izango da asteleheneko erreportajea

**GOIENKARIA** > BERGARA

Arrasateko Tailagileen Elkarteak 25 urte bete ditu aurten. Gaur egun 34 kide ditu, eta maiatzaren 25era arte izan dituzte ARTEko 22 kideren lanak Kulturaten erakusgai. Egurra lantzen dute tailagileek; egurra zurruna den arren, era guztietako irudi eta formak ematen dizkiote. Forma emateko gaitasuna, txukuntasuna, irudimena, perspektiba eta pazientzia handia behar izaten dituzte tailagileek euren lana ongi burutzeko.

Datorren asteko *Erreportajean*, Julen Iriondok tailagileen lana islatuko du. Erabiltzen dituzten egur motak, forma emateko erabiltzen dituzten materialak eta tresnak eta tailagileen sormenerako gaitasuna erakutsiko dizkigu. Horretarako, ARTE elkarteko kideekin eta Jose Mari Etxabe presidentearekin izan da. 25 urte hauetako ibilbidea eta bilakaera eta beste hainbat kontu kontatuko dizkigute.

Esandako moduan, egurra lantzen ikusi, ikasi eta horrekin gozatzeko aukera emango du GOITBk, astelehenean, 21:47an.

## telebegi

**Aitor Arregi** > aitorarregi@hotmail.com

### Kerouac BMW batean

Ziurrenik ikusiko zenuten egun hauetan telebistan bota eta bota ari diren iragarki bat. BMW baten barruan doan tipo batek *On the road* izeneko Jack Kerouac idazlearen liburuaren pasarte bat irakurtzen du. BMWko publizistek bidaiatu eta *a tope* bizi nahi duen jendearen atentzioa deitu nahi dute. Ados, iragarkiak horretarako daude. Jendea erakarri eta saltzeko. Ez da lehenengo aldia publizistek kontzeptu desberdinak nahasten dituztela iragarki xarmangarri baten bila. Dena dela, iragarki honetan sortzen den paradoxa kurioso bat nabarmendu nahiko nuke.

Wikipedia bedeinkatuaren arabera, *On the road* 50eko hamarkadan AEBetan sortutako *beat generation*-en biblia da. Liburu honetan autoa ez da garrantzitsua, liburuko protagonistek egiten duten bidea baizik. Errutina eta konpromisoetatik ihesa haragitzen du bideak. *Beat* kideek kontrakultura, antimaterialismoa eta antikapitalismoa defendatzen zuten. Hau da, BMW etxeak defenditzen dituen baloreak, hain zuzen. Orain, berriz, BMWkoak *Beat generation*-eko kide bilakatu zaizkigu. Ba begira ze ondo. *Con dos coj*… En fin. Denok ditugu kontraesanak, ezta?

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza,13**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15** Euskaldunok hizketan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Mundumira 08. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Animalia. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 14**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**28klip. **12:30** Berbaire **13:00** Eltze beroa **13:30** Mundumira. **14:00**Euskaldunak ameriketan. **14:30**Erreportajea. **15:00** Kantari. **16:00** Ipar haizearen erronka. **18:30**Mundumira. **19:00**Ikusten. **19:30**Ikusten. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Animalia. **21:00**Euskaldunak hizketan. **21:30**Mundumira. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 15**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak. . **11:00**Kantari. **12:00**Eltze beroa.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Euskaldunak hizketan. **14:00**Erreportajea.**14:30**Ikusmira. **15:00**Animalia. **15:30**Mundumira. **16:00**Marrazki bizidunak.**19:00**28 Klip. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis.**23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 16**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusten. 1**8:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Animalia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunako. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 17**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**Animalia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Euskaldunok hizketan. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 18**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Euskaldunok hizketan. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Animalia. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. **20:45** Berriak. **21:15** Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47**San Juanetako pilota txapelketa. **23:45**Gaurkoak.**23.47**Jazzmina.**00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 19**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Euskal artzainak. **14:45**Berriak. **15:15**Euskaldunak hizketan. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Ur eta lur. **16:17**Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. 1**8:15**Kirolari. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Teknopolis. **00:15**Emisio amaiera

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
Arrasate / Mendia Jauregia.
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZABAL SAIOA**
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Ekainak 13-29

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 12**

## Erakusketa



BERGARA

**> San Martzialgo erromeriaren gaineko argazkiak eta hitzaldia, gaur**

*San Martzialgo erromerixia* izeneko argazki erakusketa irekiko dute gaur Aroztegi aretoan. Horren barruan, gaur, Jose Ignacio Homobono irakasleak euskal erromerien eta erromeria horren gainean berba egingo du, 19:00etan.

## Erakusketa



OÑATI

**> Amazoniako herrien eta bizimoduen gaineko argazki erakusketa, gaur hasita**

Jose Angel Areta Goñi *Juxe* argazkilari errenteriarrak egindako *Amazoniako oihanetik Pazifikoko kostaldera* izeneko erakusketa zabalduko dute gaur gaztelekuko kuboan. 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik, hilaren 22a arte.

## Ospakizuna



ARRASATE

**> Hirurehun ume eta 11 konpainia irtengo dira danborradan bihar, zapatua**

Sanjuanen atarian, danborrada egingo dute umeek bihar, zapatua. 300 ume ibiliko dira herriko kaleetatik, 11 konpainiatan banatuta. Danborrada 19:00etan hasiko da, Nafarroa etorbidean, eta 21:00ak aldera bukatuko da, plazan.

## Ospakizunak

ESKORIATZA

**> Eskoriatza Kirol Elkartearen eguna ospatuko dute bihar**

Hauxe da egitaraua: areto-futbol partidua, beteranoen eta neska taldearen artean (10:00); saskibaloi partidua, gizonezko beteranoen eta emakumezko beteranoen artean (11:15); eskalatzaileen erakustaldia (11:45); umeendako jokoak, plazan (11:00); tortilla lehiaketa (11:00-12:00); disko-musika (12:00); motorren kontzentrazioa (12:30); herri kirol bazkaria (14:00); txuleta-jana (18:30); pilotari ohien partiduak (19:00); disko-musika (19:30) eta jai bukaera (23:00).

10:00etatik 23:00etara, denetariko ekintzak izango dira.

BERGARA

**> Gaztetxearen 8. urteurreneko ospakizunak izango dira**

Honako ekintzak antolatu dituzte biharko, zapatua: bazkari begetarianoa (14:30ean; izenematea, Pol-Polen edo gaztetxean); *Los pies en la tierra* liburu aurkezpena, Dani Lopezekin; agroekologiaren gainean egingo du berba (16:30); eta, gauean, Turboshit eta Obligaciones taldeen kontzertua.

Bestetik, etzi, domeka, *Izotzezko eskaladak Perun* delako diapositiba emanaldia egingo du Iñigo Mujikak (21:30).

Hainbat ekintza bihar, zapatua, eta etzi, domeka.

ELGETA

**> Motorzaleen jaia ospatuko dute aste bukaera osoan**

Gaur, izenematea (20:00), afaria (20:30) eta boleta txapelketa (22:30) izango dituzte; bihar, zapatua, izenematea (10:00), gosaria (10:00-11:30), ibilbidea eta jokoak (18:00), ikuskizuna (20:30), afaria eta ezustea (21:30) eta Dune Buggy, The Fever eta Fision Boyz taldeen kontzertua (00:00); eta etzi, domeka, gosaria (10:00-11:30) eta ibilaldia, luntxa eta agurra (12:00).

Ekintzak gaur 20:00etan hasiko dira, eta domeka eguerdian bukatuko da jaia.

ARRASATE

**> Presoenganako Elkartasun Eguna ospatuko dute bihar**

Presoen aldeko egun osoko jaialdia izango da bihar, honako ekintzekin: umeen txokoa Biteri plazan (11:00), herri kirolak (11:30), manifestazioa (13:00), herri bazkaria (14:00) eta kontzertuak herriko taberna gehienetan eta, 22:00etan, Monterronen.

Ekintza guztiak, Biteri plazan, herriko tabernetan eta Monterronen; agerraldia, Seber Altuben hasita.

BERGARA

**> San Antonio auzoko jaiak ospatuko dituzte**

Gaur, Paduako San Antonio eguna, meza (10:30), San Joxepe abesbatzaren kontzertua eta luntxa (12:00), bederatziurrena (20:00) eta afaria (21:00) izango dira; bihar, zapatua, basurdeak, poniak eta zezentxoak (12:00), mus txapelketa (16:00), 72. San Antonio Txirrindularitza Saria (16:00), mus txapelketako sari banaketa eta afaria (20:00).

Ekintza nagusiak gaur eta bihar egingo dituzte.

BERGARA

**> Bertso afaria ospatuko dute bihar Osintxun**

Bertso afaria izango dute bihar Xabi Paia eta Andoni Egaña bertsolariekin, frontoian, 21:00etan; baina, egunean barrena, beste ekintza batzuk izango dituzte: mendi irteera 07:00etan; bazkaria eguerdian (izenematea, Txuringon); triki-poteoa 20:00etan, eta, afariaren ondoren, erromeria.

Osintxuri buelta, bazkaria, poteoa... izango dituzte bihar.

## Musika

BERGARA

**> Loud-E disko-jartzaileak emanaldia egingo du bihar**

Kogollo Disko Krew taldeak gonbidatuta, Loud-E disko-jartzaileak emanaldia egingo du GoJam aretoan. Gaur egun disko musikaren inguruan dabiltzan DJ esanguratsuenetariko bat da. Horrez gain, DJ Zero bartzelonarrak ere jardungo du, 7notas7colores taldeko sortzaile izateagatik ezaguna. Oreretako Mikel Kobakek eta kolektiboko Balzak ipiniko dute musika.

Sarrera eta edaria 12 euro kostatuko da.

Bihar, zapatua, GoJam aretoan, 00:00etan.

BERGARA

**> Disko-jartzaileen emanaldiak izango dira Ziripot tabernan**

Gaur, egubakoitza, DJ Dubby (kpk) disko-jartzaileak musika ipiniko du Ziripot tabernan. Bihar, zapatua, Imanol Costas DJ-k egingo du emanaldia.

Saiook 23:00etan hasiko dira.

BERGARA

**> Obligaciones eta Turboshit taldeek emanaldia egingo dute**

Gasteizko Obligaciones eta Bergarako Turboshit taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua. Gaztetxearen 8. urteurreneko ospakizunen barruan antolatu dute emanaldi hori.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

BERGARA

**> Decepción eta Crisis taldeen kontzertua, Oilagorra tabernan**

Oilagorra tabernak Decepcion eta Crisis taldeen kontzertua antolatu du gaurko, egubakoitza. Sarrera doan izango da.

Gaur, 19:00etatik 23:00etara.

BERGARA

**> Musika eskolako orkestrako ganbara eta orkestra**

Orkestrako ganbara taldeak Mozart, Vivaldi, Rimski-Korsakov eta Purcellen lanak joko ditu, Andoni Sierrak zuzenduta; eta orkestrak, berriz, irlandar kantak, frantziar kantak, Edelweiss (R. Rodgers) eta *Cosi Fan Tutte*-ko *Terzettino* (W.A. Mozart) joko ditu.

Gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiko elizan, 19:00etan.º

ARRASATE

**> Arrasate Musikalek hainbat kontzertu egingo ditu**

Arrasate Musikal eskolako taldeek ikasturte bukaerako emanaldiak egingo dituzte: gaur, egubakoitza, Monterronen egingo dute, 18:30ean; bihar, zapatua, umeen danborradan parte hartuko du bandak; hilaren 17an, martitzena, Caja Navarraren egoitzan joko dute, 18:00etan; 18an, eguaztena, musika eskolan, 19:30ean; eta datorren astean, emanaldi gehiago egingo dituzte.

Gaur, Monterronen joko dute, 18:30ean.

ARRASATE

**> Beñat disko-jartzaileak emanaldia egingo du**

Beñat (Silum Soundz) disko-jartzaileak dantzarako musika ipiniko du 3.60 aretoan.

Bihar, zapatua, 3.60an, 04:00etan.

PROPOSAMENA

ARRASATE

### > Gobernuz kanpoko erakundeen hainbat ospakizun, bihar

Bidezko merkataritzako produktuak erakutsi eta salduko dituzte, tea emango dute dastatzeko, Saharako dantzak erakutsiko dituzte, umeendako jokoak eta jolasak egongo dira… 10:00etan hasita, Ibai-Artek emandako produktuen tonbolako txartelak salduko dituzte. 20:00etan, Mugarik Gabeko Zinemaldiaren barruan, *Urre beltza* dokumentala emango dute.

Ekintza guztiak bihar, zapatua, egingo dituzte, Seber Altube plazan, 10:00-20:00.



# Erakusketak

ARRASATE

**> Lesbianismoaren gaineko irudi erakusketa dago**

Udal Emakume Sailak antolatuta, Aldarte gay, lesbiana eta transexualendako arreta zentroak prestatutako erakusketa egongo da Arrasaten. Ekainaren 28an Gay, Lesbianen eta Transexualen Eguna delako antolatu dute honako erakusketa. *Bidean: ezkutukotik ikusgarritasunera, 1977-2007* du izena erakusketak, eta, 18 paneletan, 1977. urteaz geroztik lesbianen eta feministen mugimenduek egindako lana erakusten du, kartel, aldizkari eta dokumentuen bidez. Modu kronologikoan ordenatuta daude panelok, eta lesbianen helburu eta erreibindikazio nagusiak azaltzen dituzte.

Bisita egunak: ekainaren 17tik 22ra, Kulturateko klaustroan, 17:30etik 20:30era. Hilaren 18an, bisita gidatua egingo du Aldarteko kide batek, 19:00etan.

ARRASATE

**> Ekin Emakumeak elkartearen eskulan eta orrratz-lanak**

Ekin Emakumeak elkarteko kideek egindako eskulan eta orratz-lanen erakusketa gaur, egubakoitza, irekiko dute, 18:00etan. Ekainaren 20a arte egongo da zabalik, honako ordutegian: zapatu eta domekan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:30.

Irekiera, gaur, Harresi aretoan, 18:00etan.

# Ikuskizunak

ESKORIATZA

**> Mugarik Gabeko Zinema Jaialdiko azken emanaldia**

Gaur, egubakoitza, bukatuko da Mugarik Gabeko Zinema Jaialdia. *Alamitou* film laburra emango dute lehenengo, Etiopiako nerabe baten bizimoduaren gainean, eta *Bridge over the Wadi (Wadi gaineko zubia)* delako dokumentala, arabiarrak eta judutarrak batzen dituen eskola baten inguruan, segidan.

Gaur, Ibarraundi museoan, 19:00etan.

# Bestelakoak

ARRASATE

**> Ilargia, Saturno eta Jupiter ikusteko aukera, Ilatargirekin**

Ilatargi Astronomia Taldeak behaketa astronomikoa antolatu du, interesa duten guztiondako. Arrasateko Laubide plazan batuko dira, 22:00etan. Eguraldia lagun, Ilargiko kraterrak, Saturno eta bere eraztunak eta Jupiter ikusi ahal izango dute Ilatargik ipiniko dituen teleskopioetatik. Gau ona egiten badu, gauza gehiago ikusten saiatuko dira.

Eguraldi txarra egiten badu, ezta ere utziko dute behaketa hori.

Gaur, egubakoitza, Laubide plazan, 22:00etan.

# Zinema



## Honeydripper ***

**Zuzendaria:** John Sayles.
**Aktoreak:** Danny Glover, Lisa Gay Hamilton, Yaya DaCosta.
AEB, 2007.
123 min. 7 urtetik gorakoendako.

John Sayles sarritan izan da Donostiako Zinemaldian: urte baten, berak zuzendutako film guztiak eman zituzten, eta, beste batzuetan, *Hombres armados* edo orain estreinatu den *Honeydripper*-rekin Zinemaldiko sail ofizialean parte hartu izan du. *Passion Fish, Lone Star, Limbo* eta *El secreto de la isla de las focas* dira Saylesen lan aipagarri batzuk. Gai sozialak, antropologia eta kultura desberdinen ohiturak eta bizimoduak haren istorioetan agertzen dira. Eta askotan, errealismora jo baino gehiago, ipuin eta kondairen teknika erabiltzen ditu.

*Honeydripper* 1950. urteko Alabaman kokatzen da. Agertzen diren pertsonaia gehienak beltzak dira, eta han gertatzen diren istorio ugariak musikaren indarrari esker lotzen dira. Garai hartan blues klasikoak musika berrien agerpena ikusten du, tabernetan zuzeneko musikak grabatutako musikari tokia utzi behar dio, eta tabernari batzuek, aldaketa horiekin, krisialdia jasango dute. Beltzek, zurien mendean daudenez, azkartasuna erakutsi beharko dute zailtasunak gainditzeko. Hori guztia garraztasunik gabe azaltzen zaigu: pertsonaia batzuek Frank Capraren filmetatik irtendakoak ematen dute, gizaki apalak dira, agintarien eta gangsterren trabak gainditzen; kanpotik ailegatzen den pertsonaia ezezagunak *western*-en ukitua du, eta amodio istoroak ere badaude.

*Honeydripper* ipuin musikala da. Musika asko entzuten da, eta musika da gertakizun guztiak elkartzen dituen osagaia. Filmaren barnean ere igartzen da Saylesek istorioak kontatzeari ematen dion garrantzia. Egia da ikusleak erraz igar dezakeela gertatu behar duen guztia, baina ez da askorik inporta; gauzak ondo lotuak daudenean eta ipuin bat ondo kontatzen denean, ez du xarmarik galtzen.

**Antonio Zabala**

### BERGARA
#### GAZTETXEA

**Las mil y una noches**
Eguena: 21:30.

### OÑATI
#### KULTURA ETXEA

**Algo pasa en Las Vegas**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR
#### UNZAGA

**88 minutos**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
#### GURIDI

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
17:00, 19:45, 22:15.

**El incidente**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Aritmética emocional**
17:30, 20:00, 22:30.

**Antes que el diablo sepa que has muerto**
17:00, 19:45, 22:30.

**La boda de mi novia**
17:30, 20:00, 22:30.

**Una chica cortada en dos**
17:30, 22:30.

**Algo pasa en Las Vegas**
17:30, 20:00, 22:30.

**Elegy**
20:00.

#### FLORIDA-GURIDI

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
17:30, 20:00, 22:30.

**12**
18:00, 20:45.

**Pretextos**
17:30, 20:00, 22:30.

**The dead girl**
17:30, 20:00, 22:30.

**Bab' Aziz**
17:30, 22:30.

**La duquesa de Langeais**
18:00, 20:45.

**El último viaje del juez Feng**
18:00, 20:15, 22:30.

**El silencio antes de Bach**
20:00.

#### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
12:15, 15:45, 17:00, 18:15, 19:30, 20:45, 22:00, 23:15, 00:30.

**El incidente**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**La niebla**
12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

**Speed racer**
12:15, 16:45, 19:30.

**Sentencia de muerte**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Algo pasa en Las Vegas**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**La boda de mi novia**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Iron man**
12:15, 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.

**88 minutos**
20:15, 22:15, 00:15.

**Sexo en Nueva York**
Eguena: 22:00.

**Eurokopa: Suedia-Espainia**
Zapatua: 18:00.

**Fuera de carta**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**21: blackjack**
17:35, 19:50, 22:05, 00:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

#### ÁBACO BOULEVARD

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
16:00, 17:00, 19:00, 20:00, 22:00, 22:35, 00:45.

**Dueños de la calle**
20:00, 22:15, 01:00.

**La niebla**
17:00, 19:30, 22:10, 01:00.

**Speed racer**
16:30.

**Sentencia de muerte**
20:10, 22:20, 00:45.

**Algo pasa en Las Vegas**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**La boda de mi novia**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**Iron man**
17:00.

**Ella es el partido**
15:50, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**Una noche para morir**
20:30, 22:25.

**La isla de las almas perdidas**
16:05, 18:10.

**El incidente**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**No tan duro de pelar**
16:05, 18:15.

**Casual day**
20:20, 22:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Steven Spielberg. Aktoreak: Harrison Ford, Shia LaBeouf, Cate Blanchett, Karen Allen.
124 min. Denondako.
1957an girotutako abentura honetan, Indiana Jonesek ihes egin die sobietarrei. Etxean bueltan, irakasten duen unibertsitatetik bota nahi dutela jakingo du. Halako baten, gazte abenturazale batek tratu bat proposatzen dio: arazo batetik irteten laguntzen badio, gazteak Akatorreko Kristalezko Burezurra aurkitzen lagunduko dio.

**Antes que el diablo sepa que has muerto ******
AEB, 2007. Zuzendaria: Sidney Lumet. Aktoreak: Philip Seymour Hoffman, Ethan Hawke, Marisa Tomei, Albert Finney.
123 min. 18 urtetik gorakoendako.
Andy enpresaburua da eta Hank, haren anaia, diru premia larrian daude. Halako baten, gurasoek New Yorken duten bitxitegia lapurtzea erabakitzen dute.

**La niebla *****
AEB, 2008. Zuzendaria: Frank Darabont. Aktoreak: Thomas Jane, Marcia Gay Harden, Laurie Holden, Andre Braugher.
127 min.
Stephen King idazlearen istorio baten oinarrituta dago. Maineko hirixka baten, ekaitz baten ondoren, behelaino beldurgarri bat agertzen da, eta jendea hiltzen doa.

**Mil años de oración *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Wayne Wang. Aktoreak: Faye Yu, Henry O, Pasha Lychnikoff.
87 min. Denondako.
Shi jauna Pekinen bizi den alargun bat da, eta Yilan, bere alaba bakarra, bisitatzera joaten da AEBetara. Yilan oraintxe dibortziatu da eta aitak lagundu egin gura dio, baina bien arteko distantzia, fisikoa ez ezik, mentalitate eta emozio aldekoa ere bada.

**Algo pasa en Las Vegas ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Tom Vaughan. Aktoreak: Cameron Diaz, Ashton Kutcher.
99 min. Denondako
Jack Fullerrek eta Joy McNallyk Las Vegasen aste bukaera zoro bat pasatzen dute, eta hantxe ezkontzen bukatzen dute.

**Fuera de carta ****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Nacho G. Velilla. Aktoreak: Javier Cámara, Lola Dueñas.
111 min. 13 urtetik gorakoendako.
Xantarella goi mailako sukaldaritza egiten duen jatetxea da, eta hango sukalde-burua da Maxi. Gauzak ezin hobeto doakizkio... oraingoz.

**The dead girl *****
AEB, 2006. Zuzendaria: Karen Moncrieff. Aktoreak: Toni Collette, Rose Byrne, Marcia Gay Harden.
93 min. 13 urtetik gorakoendako.
Neska baten hilketaren inguruan, bost pertsonaren bizitzak elkarrekin gurutzatuko dira.

## nire aukera



**Maider Altuna**
KZguneko arduraduna
Bergara

## "Berdeguneak gogoko ditut"

Astean zehar Lazkaotik Bergarara etortzen naiz lanera eta asteburuetan lasai egotea gustatzen zait. Lagunekin eta mutilarekin pasatzen dut asteburua, bueltа bat ematen edo pelikularen bat ikusten.

Aurreko asteburuan Bartzelonan egon nintzen Bon Joviren kontzertua ikusten, primerakoa izan zen. Bihar, Guadalajarara joateko asmoa genuen, baina greba dela-eta erregaiarekin arazorik ez edukitzeko beste plan bat egin dugu: Garagardo festa dago herrian, Lazkaon, eta bertara joango gara lagunak, txerri-ukondoa jatera.

**Zer moduz Bergarako KZgunean lanean?**

Oso ondo. Duela astebete hasi nintzen eta gustura nago. Aurretik Oreretan eta Urnietan izan naiz lanean eta Bergara askoz lasaiagoa da.

**Pazientzia behar da zure lanean?**

30 urtetik gorakoei Internet klaseak ematen dizkiet, eta bai, beharrezkoa da pazientzia. Ez dut inoiz arazorik izan, baina gauza bera errepikatu behar izaten dut behin eta berriz. Guk betidanik erabili dugu Internet eta ez dugu zailtasunik, baina ohituta ez dagoenarentzat korapilotsuak dira hainbat gauza.

**Gustatzen zaizu informatika?**

Ni gizarte hezitzailea naiz eta teknologia berriak gustatzen zaizkit, baina ez nahiz zale amorratua. Informazioa topatzeko eta lan egiteko oso erabilgarriak dira ordenagailuak eta Internet.

**Animaliak asko gustatzen zaizkizu, ezta?**

Zaldiak, txakurrak, astoak... Nire zaletasuna dira. Lagunen artean Gipuzkoako Asto Zaleen Elkartea sortu genuen: baserri bat alokatu eta bertan astoak zaintzen ematen dugu asteburua. Euskal astoa aurrera ateratzea da gure helburua. Dagoeneko jendeak ez ditu zaintzen eta elkarteari esker kopurua handitzen doala dirudi.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-06-13

# Antzuolatik Montmeloraino

**BI TALDETAN** Talde bat Pirinioetatik joan zen Terrasaraino, eta beste taldeak autobidetik egin zuen joaneko bidea

**PRIMERAKO JARLEKUAK** Zarauzko lagunen bidez lortutako sarrerak zituzten, eta jarlekuak primerakoak ziren

**CHESTE, JEREZ...** Montmelon egoteaz gain, Cheste eta Jerezko zirkuituetan ere egon dira probak ikusten

**MIREIA BIKUÑA** > ANTZUOLA

Motoziklismoko Munduko Txapelketako proba jokatu zen aurreko domekan Montmeloko zirkuituan, eta han egon zen Antzuolatik joandako zale talde bat. Gehienak antzuolarrak ziren, baina Zarautz, Oñati, Idiazabal, Bergara, Urretxu eta Gasteizko motorzaleak ere bazeuden. Hain zuzen, 20 bat lagun egon ziren GP, 250 eta 125 zentimetro kubikoko lasterketak ikusten. Hurrenez hurren, Dani Pedrosa, Marco Simoncelli eta Mike di Meglio izan ziren irabazleak.

Egubakoitzean irten ziren Antzuolatik: talde batek Pirinioetatik egin zuen bidea eta 08:00etan irten zen; eta bestea taldeak autobidetik egin zuen joaneko bidea, 15:00etan irtenda. "Terrasako hotel batean hartu genuen ostatu. Zapatu goizean, Montmelora joan ginen entrenamenduak ikustera, eta herrian bertan bazkaldu genuen. Egia esan, giro motorzalea zegoen, eta oso ondo pasa genuen", esan digu Xanti Iturbek.

**JARLEKU ONAK**

Domeka goizean motorrak hartuta, Montmelora joan ziren lasterketak ikustera. Motorrak ondo aparkatuta utzi zituzten eta zirkuituan sartu ziren. "*Treku*, Gregorio eta Jon Zarauzko lagunen bidez lortu genituen sarrerak, eta toki oso onean egon ginen. Gainera, karrera onak ikusi genituen", esan digute.

Probak bukatuta, etxerako bidea hartu zuten guztiek, baina batzuk bidean geratu ziren lotan, eta astelehen goizean heldu ziren Antzuolara. "Domekan heldu ginenok, guztira, 1.250 kilometro egin ditugu aste bukaera osoan".

**CHESTE ETA JEREZ**

Ez da lehen aldia, Antzuolako taldea motor lasterketak ikustera joaten dena. "Montmelon egon gara beste batzuetan, eta baita Cheste eta Jerezko zirkuituetan ere. Baina lehen aldia da horrenbeste lagun elkartzen garena, eta oso ondo pasa dugu", dio Xanti Iturbek. Hurrengo urtean errepikatzekotan geratu dira.



Antzuolatik Montmelora joandako taldea. XANTI ITURBE

## ahobero

**"Gaur negar egiten dugu, baina hurrengo astelehenean barre egingo dugu, ziur nago"**

**Juanma Lillo** > Entrenatzailea

Horiek esan zuen Realeko entrenatzaileak Alaves taldearen aurka azkeneko minututan galdu ondoren. Esperantza da galdu beharreko azkena, eta baikor izatea ona da, baina joan zen domekan baino jarrera hobea erakutsi beharko dute jokalariek.

## iturri onetik

**Garai bateko motorren kontzentrazioa egingo dute Bergaran**

Oraindik ez dute zehaztu egunik, baina antolatzaileek esan dute uztailean egingo dutela kontzentrazioa. Garai bateko motorrak dituzten lau lagun dabiltza antolakuntza taldean. Oraindik ez dute egitaraua osatu, oraingoz bazkaria egiteko jatetxe baten bila dabiltza. Antolatzaileen asmoa da 40 bat motor elkartzea kontzentrazioan. Datozen egunetan bilduko dira berriro ere.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Apalago

Botako diogu grebaren errua hango edo hemengo gobernuari, garraiolariei edo Maria Santisimari. Eta lasai geldituko gara, hiritar zentzuzkoaren kontzientziarekin. Baina alferrik da.

Urte osoan jan nahi dugu tomatea, munduko beste puntatik ekarri behar bada ere. Ez dugu autoa geldirik uzten, ezta deskuidatuta ere. Ordaindu dezakegun guztia nahi dugu, juxtu eta larri ibili behar badugu ere. Eta aski zaigu norbaitek alarma txikiena piztea dendetako apalategiak husteko, atzetik etorriko denaz akordatu ere egin gabe. Hori bai, zerbait okertzen bada, aurkituko dugu nor izendatu errudun.

Ingurukoa jan, gutxiago eta hobeto mugitu, ahal baino maila bat beherago ibili, lankidetzan antolatu... Badago bizitzeko beste modu bat, apalago eta alaiago.

## ai, ene!



**Komuneko altzariak Taiwaneko jatetxean**

Eserlekuak komun-ontziak dira eta mahaiak, bainuontziak. Gainera, muturrak garbitzeko komuneko papera erabiltzen dute!

www.nopuedocreer.com




Etxebizitzen ekipamendu integrala
Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA-ALTZARIAK

Telleria 23, D5 pabilioia
Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com

